

# Goiena esperientzia

---

*Eskualdeko talde multimedia  
baten sorrera*

# Aurkibidea

|                                                       |    |                                                   |    |
|-------------------------------------------------------|----|---------------------------------------------------|----|
| <i>Atarikoa</i> .....                                 | 3  | Lantaldea eta aurrekontua .....                   | 42 |
| <b>Aurrekari historikoak</b> .....                    | 4  | <i>4. eranskina: Goiena 2000-2001</i> .....       | 43 |
| <i>1. eranskina: EHPren bilakaera</i> .....           | 5  | <b>Eskualdeko telebistaren esperientzia</b> ..... | 54 |
| Arrasate Irratia .....                                | 12 | Aurrekariak .....                                 | 54 |
| Oñati Irratia .....                                   | 12 | Bategitea .....                                   | 54 |
| <b>1999ko egoera eta diagnostikoa</b> .....           | 14 | Hausnarketa .....                                 | 55 |
| <b>Bateratze prozesua</b> .....                       | 16 | <i>5. eranskina: GOITB</i> .....                  | 56 |
| <i>2. eranskina: Goiena egitasmoa</i> .....           | 17 | Garapena lantaldean .....                         | 59 |
| Egitasmoa azaltzen .....                              | 22 | Garapen teknika .....                             | 59 |
| Otalorako eratze batzarra .....                       | 22 | Aurrera begira .....                              | 60 |
| Notario aurrekoa .....                                | 23 | <b>Eskualdeko aldizkaria eta egunkaria</b> .....  | 62 |
| Arlokako egitasmoak adosten .....                     | 23 | <i>6. eranskina: prentsarako egitasmoaz</i> ...   | 63 |
| Aurrerantzean .....                                   | 24 | Goienkaria kalean .....                           | 68 |
| <b>Izaera juridikoaz</b> .....                        | 25 | Hurrengo, edizioak .....                          | 69 |
| Bitariko kooperatiba .....                            | 25 | Egunkaria ikertzen .....                          | 69 |
| Bazkide motak eta aginte banaketa .....               | 26 | <b>Eskualdeko atari informatikoa</b> .....        | 71 |
| Estatutuetako atal adierazgarriak .....               | 26 | Lehen lanketa .....                               | 71 |
| Barne funtzionamendua .....                           | 27 | <i>7. eranskina: Internet</i> .....               | 72 |
| Egoera juridiko honen etorkizunaz .....               | 27 | Hurbilekoa, sarean .....                          | 77 |
| <b>Finantziarioaz</b> .....                           | 29 | Atariak .....                                     | 77 |
| Sarrera propioen pisuaz .....                         | 29 | Goienet .....                                     | 77 |
| Gizarte ekimena eta erakundeak .....                  | 29 | <i>8. eranskina: zer da Zope?</i> .....           | 81 |
| Autofinantziarioa gora .....                          | 30 | <b>Eskualdeko irratia egitasmoa</b> .....         | 83 |
| Hirugarren hanka .....                                | 31 | Abiapuntua .....                                  | 83 |
| <b>Izaera multimediaz</b> .....                       | 33 | Iratia eskualdeko multimedien .....               | 83 |
| Monomediak .....                                      | 33 | Iratia, nola? .....                               | 84 |
| Multimediak .....                                     | 33 | Korapilo, zein korapilo? .....                    | 84 |
| Monomediatik multimediarantz .....                    | 34 | Legaren gainean .....                             | 85 |
| Eskualdeko multimedien .....                          | 35 | <b>Zerbitzuak: sail komertziala</b> .....         | 86 |
| <b>Kanpo harremanak</b> .....                         | 36 | Abiapuntua .....                                  | 86 |
| Hedabideekin .....                                    | 36 | Bateratzeko urratsak .....                        | 86 |
| <i>3. eranskina: Euskarazko Telebista Sarea</i> ..... | 38 | Hausnarketa .....                                 | 87 |
| Erakundeekin .....                                    | 40 | <i>9. eranskina: talde komertziala</i> .....      | 88 |
| Bestelakoekin .....                                   | 40 | Aurrera begira .....                              | 92 |
| <b>Goiena 2001</b> .....                              | 42 | <b>Zerbitzuak: gainerakoak</b> .....              | 93 |
| Bateratu eta gero .....                               | 42 | Lehentasanak .....                                | 94 |
|                                                       |    | <b>Plan estrategikoa eta etorkizuna</b> .....     | 96 |

# Atarikoa

**GOIENA KOOPERATIBAREN ESPERIENTZIA** kontatzen da ondoko orrietan, gurean sortu berri den eskualdeko komunikazio-talde multimediaren esperientzia.

*Esperientzia da eta ez egitasmo, bere sortzaileen asmo eta ametsak jasotzen dituen arren. Beste ezeren gainetik, bateratze baten azalpena da, eta bateratze horren ondorioz sortu den errealitatearena, egun dituen ezaugarrien, indarguneen eta gabezien deskribapen zintzoa. Puntu bonetara iristeko egin den ibilbidearen kontakizuna da, beti zuzena izan ez bada ere, beti aurrerantz eta bateratasunez egin dena. Bidean abiatzeko izan ziren arrazoiak adierazten dira, eta nola etorkizunak kezkak sortzen zituen, nabiz eta abiapuntuako egoera ona izan. Eta kezka horiei aurre egiteko ikusten ziren ibilbide posibleen artean bide zebatz hau aukeratzeko egin ziren hausnarketak. Baita beste hainbat kontu osagarri ere.*

*Esperientzia horren kontakizuna da eta ez txosten tekniko soil edo neutroa, datu, xehetasun eta osagai tekniko ugari jasotzen duen arren. Kontakizun beroa da, eta berotasun hori uste sendo batean oinarritzen da. Euskal gizarteak bere nortasun ezaugarriak geroratzeko behar duen komunikazio-egitura ez da teknika hutsez abiatuko edo gorpuztuko. Borondate, gogo, baliabide eta lankidetzak askoren uztartzetik etorriko da, etortzekotan, helburu horren alde guztiok eskuzabaltasunez eta setakeriarik gabe elkarlanean jartzen garen neurrian.*

*Horregatik, esperientzia bete-betea eta betegarria izan delako, bizipen, ikusmolde eta iritzi asko dago tartekatuta kontakizunean zehar. Kontakizunaren datu objektiboak Goienarenak dira eta, Gipuzkoako Foru Aldundiari esker, euskal gizarte osoarenak. Aldiz, bizipenak, ikusmoldeak eta iritziak kontatzailearenak dira, eta berea da horien erantzukizuna.*

**Mikel Irizar**

*Goienako zuzendari nagusia*

# Aurrekari historikoak

**DEBAGOIENAK**, lehen Deba Garaia izenez deitzen zen eskualdeak, Gipuzkoako zortzi herri hartzen ditu: Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati. Arabakoa den arren, arro berean dago Aramaio, eta bere jardun asko Debagoiengan bideratzen ditu. Bederatzi herriok 65.000 biztanle inguru biltzen dituzte eta, herritik herrira alde handiak badaude ere, batez beste debagoeindarren bi heren baino gehiago euskaldunak edo ia euskaldunak dira.

## Eskoriatza

Deba *Goiena* oso oparoa izan da hurbileko hedabideetan, eta Euskal Herri osoan eragina izan zuen arren, gutxi aztertu den fenomeno da. Eskualdean sortu zen aro berriko lehen hebadibea *Telesko* izan zen, Eskoriatzako telebista, 1985ean. Herrian bestelako telebistak ikusi ahal izateko kablea hedatu zen, eta udalak aukera baliatu zuen herriko telebista sortzeko. Emisio xumea zuen, asteen behin edo birritan, eta gehienbat gaztelaniazkoa. Hamabost urte geroago, batik bat euskaraz emititzen du, eta emisioak xume izaten jarraitzen du.

## Oñati

Bigarren sortu zen herri komunikabidea, Oñatiko *Kontzejupetik*, 1988ko urtarrilean abiatu zen. Udalak argitaratzen zuen, euskaraz eta maiztasun finkorik gabe. Bere edukia, udal jarduna eta bertan hartutako erabakiak izan ohi zen. 1992an bigarren aldiari ekin zion, hilabetekari bilakatu zen eta profesionalago. Edukietan, udalaz kanpoko informazioa jorratzen hasi zen, herrikoa.

## Arrasate

Dena dela, iraultza eragingo zuen ekimena Arrasaten hasi zen, 1988ko abenduan *Arrasate Press* kaleratu zenean. Ezohiko produktua zen, bide berriak ireki zituen, eta laster igarri ziren haren ondorioak bailaran eta kanpoan. Bilakaera hartan dago *Goienaren* oinarria, eta baita gaurkoa ulertzen laguntzen duten giltzarri asko ere. Horregatik, atal honen aukera baliatu nahi izan dugu *Arrasate Presseko* talde sortzaileko kide, aldizkariko eta *Arrasate Telebistako* zuzendari eta loraldi hartako protagonista izan zen Joxe Aranzabalen bertsioa jasotzeko. Idatzi zenetik igaro den denborak datu zehatzen bat aldatu du, baina kontakizunak oso ondo biltzen ditu sasoiko kezkak, erantzunak eta ekarpenak.

## *Euskarazko herri prentsaren bilakaera*

**Joxe Aranzabal**  
2000ko udaberria

### **Arrasate Pressen aurretikoak**

Euskarazko herri prentsa gizarte eta kazetaritza fenomeno moduan 1988ko abenduaren 2an sortu zen, *Arrasate Press* astekariaren lehen zenbakiarekin batera. Dena dela, ez dago esaterik *Arrasate Pressen* aurretik ez zegoela ezer. Bazegoen.

#### ***Orri parrokiak***

Herritan maiztasun eta iraupen aldakorrek argitaratu ziren orri parrokiak bazuten zerikusia guk egin nahi genuen tokiko aldizkariarekin. Batzuetan herriko apaizak edo maisuak idazten zituen, euskaraz edo gaztelaniaz. Gaiak hurbil-hurbilekoak ziren eta jasotzen zituzten ia guztiek goitik behera irakurtzen zituzten. Baztanen, esate baterako, horrelako hainbat argitaratu izan dira.

#### ***Berripaperak***

Arrasaten bagenuen bat, oso ona, *Gorabeherak*, Eskola Politeknikoan argitaratzen zena. Bi orrialdetan, hamabostean behin edo, eskola eta kooperatiben gaineko berri mordoa argitaratzen zituen Juanito Leibar, eskolako idazkariak. Albisteak, jakina, hurbil-hurbilekoak ziren. Estilo azkarra, argia eta umoretsua nahasten zituen, taula eta grafikoak erabiliz. Mundu guztiak irakurtzen zuen.

#### ***Egunkarietako kronikak***

Gaztetatik, geure herrietako kronikak irakurtzeko ohitura hartu genuen Euskal Herrian argitaratzen ziren egunkarietan. Konforme egongo ginen edo ez, baina azkenean ohitu egin ginen garai bateko *El Diario Vasco*, *La Voz de España*, *Hierro*, *Unidad*, *El Correo Español* eta *La Gaceta del Norte* eskaintzen zizkiguten kronikak irakurtzen. Guretzat hori zen beste erreferentzia inportantea. Garai bateko *Zeruko Argiak* ere, egunkari itxura zuenean, bazituen euskal herrietako kronikak.

#### ***Herria***

*Herria* egunkaria ez zen hain ezaguna guretzat, baina aspalditik zegoen lanean. 50 urte bete ditu, *Eskualduna* izan zena kontuan hartu barik. Zalantza barik, haxe dugu euskal prentsan izan dugun aurrekaririk argiena. Hor zegoen, bai, baina aldi berean aitortu beharra dut guregan eragin txikia izan zuela *Arrasate Press* sortzeko orduan.

### **1988ko testuingurua**

Euskarazko herri prentsaren sorrera hobeto ulertzeko, garai hartan eman ziren lau fenomeno garrantzitsu aipatu behar dira:

#### ***Autoedizioaren sorrera***

Autoedizioaren iraultza 80. hamarkadaren erdialdean hasi zen. Alde batetik ordenagailu berriak agertu ziren, ordura arte denbora mordoa eskatzen zuten lanak askoz ere bizkorrago eta merkeago egiteko gauza zirenak. Bestetik, Hewlett-Packard eta Apple etxeek laser inprimagailuak kaleratu zituzten. Ordura

*Euskarazko  
herri prentsa  
une jakin  
batean sortu  
zen:  
demokrazian,  
euskararen  
batasuna  
bideratuta  
zegoela,  
euskal  
kazetari  
belaunaldi  
berriak  
zetozeala,  
eta teknologia  
berrien  
gerizpean.*

arte gutxi batzuen eskuetan zegoena, oinezkoen eskura jarri zuten. Iraultzak aurrera egin zuen Aldus etxeak Macintosh ordenagailuetan erabiltzeko zen PageMaker programa kaleratu zuenean eta Xerox etxeak IBM bateragarriekin erabiltzeko balio zuen Ventura Publisher atera zuenean. Ondoren, beste programa batzuk agertu ziren.

Arrasate Press iraultzaren trenean igo zen. Apple Macintosh Plus pare bat eta Apple LaserWriter laser inprimagailua erosi zituen. Idazteko, berriz, MSWord hartu zuen; maketatzeko PageMaker eta marrazteko, Aldus FreeHand. Geroztik sortu diren herri aldizkari gehienak autoedizioan oinarritzen dira eta euretariko gehienek Macintosh sistema eragilea darabilte.

### **Euskararen batasuna**

Arrasate Press sortu zenerako euskara batua finkatua zegoen eta haren erabilera zabalduta zegoen, bai irakaskuntzan nola administrazioan eta komunikabideetan ere.

### **Euskara taldeak**

80. hamarkadaren erdialdean ere gerora Euskal Herrian hedatuko ziren euskara taldeen eredia sortu zen Arrasaten: AED. Bere helburua Arrasate euskalduntzea zen. Hasieran lanik handiena kontzientziazio lana izan bazuen ere, gerora, heldu ahala, funtzio berriak hartzen joan zen. Euskarazko hedabideak sustatzea adibidez. Arrasate Press AEDren babesean sortu zen. Gerora ere, Euskal Herrian sortu diren herri aldizkari asko eta asko antzeko taldeen itzalpean plazaratu dira: *Berrigara* eta Jardun Bergaran, *Eraz* eta Berbaro Durangaldean, *Barren* eta Elgoibarko Izarra Elgoibarren, *Irutxulo* eta Bagera elkarte Donostian, etab.

### **Herri erakundearen irekitasuna**

Udalak eta foru aldundiak demokratizatu ondoren, eta Eusko Jaurlaritzaren Nafarroako Gobernua sortu eta gero, euskararekiko eta euskal kulturarekiko jarrera irekiagoak azaldu ziren erakunde horietan. Kasu askotan ontzat hartu zuten euskarazko herri komunikabideak sustatzea, euskara elkarteekin lankidetzan. Udaletako teknikari eta euskara arduradun askok zerikusi handia izan zuten jarrera aldaketa honekin. Geroztik, asko dira euskarazko herri prentsaren barruan ekimen pribatuarekin batera herriko aldizkarietan parte hartzen ari diren udalak.

### **Euskal kazetari berriak agertzea**

80. hamarkadan kazetari belaunaldi berriak agertu ziren. Harrezkero, gure aldizkarietan lan egin zezaketen kazetari profesional euskaldunak hartuko genituen. Ordura arte euskal kazetaritza larri gorritan zegoen.

## **Arrasate Press, 1988**

1988. urtearen hasieran AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) elkartearen baitan edo inguruan genbiltzan zenbait pertsona aldizkari bat euskaraz argitaratzeko aukeraz hitz egiten hasi ginen.

### **Zergatik?**

- Egunkari salduen herriko kroniketan erabiltzen zuten euskara portzentaia zeharo testimoniala zen, batez beste %5 bakarrik. Eta egoera hura aldatuko zen itxaropenik ez zegoen.

- Euskarazko prentsaren salmenta oso urria zen: 1989an 143 *Argia*, 148 *Ipurbeltz*, 65 *Aizu*, 58 *Jakin*, 55 *Elhuyar* eta gainerakoak 50era iritsi barik. *Hemen* eta *Eguna* ere gutxi saltzen ziren.

*Gizartean  
eragina izan  
nahi bazuen,  
ordura arteko  
ereduetatik  
urrundu  
beharra zuen  
Arrasate  
Pressek.*

- Bestalde, irakurleria potentziala nahiko zabala somatzen zen, 1986ko erroldako datuen arabera, ia 12.000 lagunek aitortzen baitzuten “zerbait edo ongi” irakurtzeko gai zirela.

Bi erronka genituen aurrean: alde batetik euskaraz ezer gutxi irakurtzen zuten irakurle potentzial horiek gehiago irakurtzea. Bestetik, herri mailako informazioa aberastea, integratibide izan zedin. Bigarrena ondo eginez gero, lehena lortzeko amua izango litzateke.

“Honetarako”, jarraian datozenak Iñaki Mendigurenen hitzak dira, “laster ikusi zen ordura arteko ohiko ereduetatik urrundu beharra zegoela, ezin zela aldizkaria betiko gutxiengo euskaltzale militante edo kulturzalearentzat bakarrik planteatu, euskarari eta euskal kulturari buruzko diskurtso ideologiko eta kontzientziatzailea zuzenean egin gabe, euskaldunen gehiengoa erakarri eta irabazi behar zela euskara idatzira. Beraz, aldizkari herrikoi, sinple, praktikoa, irakurterraza egin behar zen; albiste erakargarri eta artikulu laburrekin, argazki eta elementu grafiko askorekin, etab.”.

Poliki-poliki, hausnarketa eta gogoeta askoren ondoren —eta Tuterako *La Ribera Navarra* bisitatu eta gero— proiektua zehaztu genuen: beti oso argi egon zen euskara hutsean izan behar zela. Puntu honetan esan beharra dut bost minutu baino gutxiago behar izan genuela erabakitzeko euskara batuan idatziko genuela, beti ere Arrasateko euskararen kutsua emanaz. Egitura profesionaleko astekaria izango zen, doanekoa, publizitatea eta finantziario mistoa izango zituena, etxez etxe banatzekoa, eskatzen zuten herritarren guztien artean, edukietan Arrasatera mugatua eta autoedizioz burutua.

Proiektua isilean eraman genuen. Abenduaren 2an aldizkariaren lehen zenbakia atera zenean, Arrasateko jendeak sekulako ezustekoa hartu zuen. Lehen zenbaki haren akatsak begi bistakoak ziren, baina inork gutxik eman zien garrantzirik, ezustekoaren alde onak alde eskasak baino askoz ere gehiago baitziren.

Lehen laupabost zenbakiak ateratzeko kanpoko lagun baten laguntza behar izan genuen, Jose Luis Agoterena, ordenagailuen erabilera eta maketazioa guk baino askoz ere hobeto menperatzen zituen eta. Hortik aurrera, geuk egin genuen dena.

Barrura begira, garai latzak izan ziren, kazetariak ez baitzuten lan esperientziarik bat ere, ez zuten larregi sinesten ari ginen hartan eta guk ere, esperimentatzen ari ginenez, ezin izan genien behar zuten gidaritza zuzena eman.

### ***Eragina***

Kanpora begira, aldizkariak sekulako arrakasta izan zuen herrian. 1.700 alerekin hasi ginen eta bi urtean 7.000 aleko tirada egin genuen. Horrek dena esaten du. Garai hartan eskualde aldizkaria bihurtu zen *Arrasate Press*: Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Bergaran, Oñatin eta Aramaion zabaltzen zen. Baita Euskal Herri osoan zehar ere, 1.140 ale astero, batez ere herritik kanpo bizi ziren arrasatearren artean. Espainian 88 ale banatzen ziren, Katalunian 18 eta munduan zehar 40.

Bilakaera honi esker, ez zen harritzekoa *Arrasate Press* jende askoren mintzagai eta eredu bihurtzea. Guk goitik behera sinesten genuen proiektu

*Lehen urteetan  
bailarara  
zabaldu zen  
Arrasate Press.  
Bitarteko  
guztiak erabili  
ziren  
aldizkariaren  
eredua  
zabaltzeko.*

hartan eta gure eginkizunen artean inportanteenetariko bat izan zen berri ona euskal herrietan zehar zabaltzea.

- Medio guztietako kazetariei bidali genien geure aldizkaria.
- Aurkezpen partikularrak egin genituen hainbat kazetarirekin.
- Azalpen luzeak eta zabalak eman genizkien *Arrasate Press* nola egiten zen ikustera etorri ziren talde guztiei.
- Parte hartu genuen herri prentsaren gainean antolatu ziren hitzaldi, mahai inguru eta eztabaida guztietan.
- Deitu zitzaigun herrietara joan ginen, berri ona azaltzera.
- Hasteko ziren zenbait aldizkariaren maketak egin genituen.
- Aurrerago herri komunikabideen berri emango zuen berripapera, *Herri.KO*, sortu genuen.
- Hiru jardunaldi antolatu genituen herri komunikabideen fenomenoak finkatzeko eta ezagutarazteko helburuarekin.

### ***Euskarazko herri aldizkariaren garapena***

Zabalkunde lan honi esker eta aldizkariak herrian izan zuen arrakasta ikusirik, emaitzak berehala etorri ziren. Hurrengo urtean, 1989an alegia, 11 herri aldizkari sortu ziren; 1990an, 10; 1991n, 5; 1992an, 5; 93an, 7; 94an, 4, 95ean, 4; eta iaz, 6. Guztira 52 herri aldizkari euskaraz.

Ordura arte zeuden gehienak erdarazkoak ziren edo elebidunak. Baziren beste batzuk euskara hutsean, Irungo *Plazara* eta Berako *Ttipi-ttapa* bezalakoak, baina hauek literatura kutsu handia zuten.

### ***Arrasate Pressen eraginari esker,***

- Hortik aurrera argitaratutako herri aldizkari gehienak euskara hutsezkoak izan ziren.
- Lehen beste zerbait ziren hainbat aldizkari herri aldizkari bihurtu ziren: Nafarroako *Ttipi-ttapa* eta Oñatiko Kontzejupetik kasu.
- Ondoren etorritako herri aldizkari gehienak autoedizioa erabiliz egin ziren, doanekoen eremuan finkatu eta ekimen pribatu eta publikoaren elkarlanari esker atera ziren.

Herrietara ezezik, Euskarazko Herri Prentsa (EHP) Hego Euskal Herriko hiriburuetara ere iritsi da. Gasteizen, Geu Gasteiz. Donostian, Irutxulo

### **EHP herrialdeka**

Euskarazko herri prentsaren loratzea Hego Euskal Herrian gertatu da batik bat. Iparraldean aldizkaria baino berripapera den argitalpena kaleratu zen, *BAM* izenekoa, baina desagertu da. Gipuzkoan 30 herri aldizkari daude. Bizkaian 12. Nafarroan 6 eta Araban 2. Astekari gehien Gipuzkoak ditu. Baita hamaboskariak, hilabetekariak eta bestelakoak. Honek badu zerikusirik euskararen ezarpenarekin ere, Gipuzkoa baita herrialderik euskaldunena.

### ***Deba arroa***

Euskarazko herri aldizkariaren kontzentrazio handiena Deba arroan gertatzen da. Eskoriatzan hasi eta Deban amaituz 125.000 bizilagun dituen bailara honek 10 herri aldizkari zeuzkan 1995ean: *Aretxagazeta*, *Arrasate Press*, *Barren*, *Berrigara*,

*Euskarazko  
herri aldizkariaren  
kontzentrazioa  
handiena  
Deba arroan  
gertatu zen.*

*Eta kitto, Goibekokale, Irinmodo, Kontzejupetik, Pil-pilean eta Ze Barri.* Aldizkari hauen errotze maila, gainera, handia da. Hona hemen 1995ean jasotako zenbait datu adierazgarri:

- Denen artean 128 milioi pta baino gehiagoko aurrekontua dute, 82.500 lagunek irakurtzen dituzte eta 14 bat kazetariri ematen diote lan. Euskal Herrian ez dago parekorik.
- 4 aldizkari astekariak dira, bat hamaboskaria, lau hilabetekariak eta bat urtekaria. Honek esan nahi du eragin handia dutela.
- Horietako aldizkari batek 100 zenbaki baino gehiago atera ditu; lauk 200 zenbaki baino gehiago: Arrasate Press, Berrigara, Eta Kitto eta Barrenek. Bat, Berrigara, laster iritsiko da 300.era. Eta Arrasate Press 400.era bidean dago.
- Denen artean hilean 2.500.000 orrialde argitaratzen dituzte, euskaraz, testua eta publizitatea nahasirik.

### **EHP, maiztasunaren arabera (1997)**

- Astekariak: 8 dira. Eurak dira eragin eta tiradarik handiena dutenak. Hauen artean Donostiako *Irutxulo* zen, 7.000 alerekin, tiradarik handiena zuena. Kobratzen hasi zenetik, harpidedun gutxiago ditu. Hauetako bi, *Herria* eta *Eraz*, eskualde aldizkariak dira.
  - Hamaboskariak: 7 dira eta tirada polita dute.
  - Hilabetekariak: 23.
  - Bestelakoak: hiruhilabetekariak, urtekariak, etab. Beste 14 dira. Hauetako gehienak ez dira autoedizioan egiten.
- Denetara 52 aldizkari, 125.350 aleko tirada dutenak.

### **EHP eta irakurleak**

Hainbat herri aldizkari ikerketak egin dituzte beren irakurleei buruz: *Arrasate Press, Berrigara, Barren, Ttipi-ttapak...* Denetan ondorioztatzen da aldizkariaren ale bakoitza hiru lagunek irakurtzen dutela. Zenbaki hau kalkulatu zuzurrak eginda ateratzen da. Izan ere, egunkariei 4tik gora irakurle kalkulatu baitzaizkie. Beraz, EHPk 125.350 aleko tirada baldin badu, 375.000 irakurle ditu. Euskarazko prentsak inoiz izan duen irakurle kopururik handiena.

#### ***Nola esplikatu liteke EHPren erakargarritasuna?***

- Albisteen hurbiltasuna. Hau da, nire ustez, arrazoi nagusia. Zenbat eta lotuago izan albisteak inguru hurbilarekin, hainbat eta arrakasta handiagoa.
- Doanekoa izatea. Honela askoz ere jende gehiagorengana iristen da eta, ondorioz, askoz ere errezago lortzen du publizitatea.
- Publizitatea eramatea.
- Egitura profesionala izatea.
- Herri erakundeen laguntza izatea.

Hauxe da, labur esanda, orain hamahiru urte modu berrian hasi zen euskarazko herri prentsaren bilakaera.

### **EHPren ekarpenak**

- Euskal prentsarentzat eremu berria sortzea. Euskarazko herri prentsak eremu berria eman dio euskal prentsari: doaneko herri prentsa.

*Euskarazko  
prentsak  
inoiz  
lortu duen  
irakurle kopururik  
handiena  
eskuratu du  
Euskarazko  
Herri Prentsak.*

- Informazio lokalaren hutsunea betetzea. EHPk herrietako hutsune informatiboa bete du. Aldi berean, gainerako komunikabideak behartuta daude tokian tokiko informazioa zabalago tratatzera.
- Informazioa demokratizatzea. Tokian tokiko aldizkariei esker, gainerako komunikabideetan agertzeko ia aukerarik ez duten ahots asko herriko aldizkarian azaltzen dira. Bere orrialdeetan ideien eta iritzien arteko eztabaidak bideratzen dira.
- Kazetaritzaren eratze profesionala sendotzea. EHPk aldizkarien eratze profesionala ekarri du, bere aro berrian. Orain urte gutxi pentsaezinezkoa zirudiena, egi bihurtu da.
- Irakurle berriak irabaztea. EHPk euskaraz inoiz izan den irakurle kopururik handiena sortu du. Euskal herrietan zehar inoiz euskaraz irakurri gabe zeuden asko eta asko euskaraz ari dira irakurtzen orain.
- Publizitatea erakartzea. EHPk euskarazko prentsa idatzian inoiz euskaraz egin den publizitate kopururik handiena irabazi du. Negozio moduan planteiatu zaienetik, merkataria asko eta asko finantzatzen ari dira, publizitatearen bidez, euskarazko herri prentsa. Neurri handi batean behintzat.
- Teknologia berria sartzen laguntzea. EHP teknologia berriaren eskutik etorri zen aro berrian. Hori dela eta, bere kazetariak eta teknikariak jantziago daude autoedizioan.
- Euskarari izen ona ematea. EHPren arrakastak izen ona eta ospea eman dizkio euskarari.

### EUSKARAZKO HERRI PRENTSAREN EKARPENAK

- Euskal prentsarentzat eremu berria sortzea: doanekoa.
- Informazio lokalaren hutsunea betetzea.
- Informazioa demokratizatzea.
- Kazetaritzaren eratze profesionala sendotzea.
- Irakurle berriak irabaztea euskararentzat.
- Publizitatea erakartzea.
- Teknologia berriak sartzen laguntzea.
- Euskarari izen ona ematea.

*Arrasate Telebistak  
ez zuen  
aldizkariak  
besteko  
jarraitzailerik izan,  
besteak beste  
telebista bat  
antolatzea  
askoz ere  
korapilatsuagoa  
eta garestia  
delako.*

## **Euskarazko herri telebistak**

### ***Arrasate Telebista***

*Arrasate Press* egin eta urtebete eta erdi geroago, eta aldizkariarekin irabazi genuen sinesgarritasuna lagun genuela, *Arrasate Telebista* sortu genuen, bakarrik Mondragoen ikusiko zena.

Hemen ere irizpide profesionalak jarri genituen. Lau teknikari kontratatu genituen eta *Arrasate Presseko* kazetarien laguntzarekin, lanean hasi ginen. Super VHS formatuan, hasi ere.

Astean hiru egunean emititzen genuen eta gainerakoetan errepikatu egiten genituen saioak. Berriak, mahai ingurua, musika saioa, sukaldaritza, haur programa, elkarrizketak... Hori eskainiz hasi ginen.

### ***Aldaketak***

Harrezkero, aldaketa handiak izan ditu telebistak:

- Egunero emititzen hasi zen. Bigarren urtean gertatu zen hori.
- Albistegiak hiru aldiz jarraian ematen hasi ziren.
- Erredakzio bateratua egin zen, aldizkaria eta telebista lantzeko.
- Betacam sistemara aldatu zen, kalitate askoz ere handiagoa eskainiz.

Oro har, telebista txukuna eta profesionala eskaintzera iritsi ginen, beti ere kontuan izanda guk ez ditugula Euskal Telebistak edo beste katea batzuek dituzten bitartekoak.

### ***Eragina***

Herri telebistei dagokienez, ez dago esaterik sekulako iraultza gertatu zenik, herri aldizkarietan bezala. Herri telebista bat egitea askoz ere garestia eta zailagoa da aldizkari bat egitea baino eta horrek bakarrik, sekulako zailtasunak jarri ditu.

Horregatik, bada, ATBk ez du hainbeste jarraitzelik izan. Batzuk, bai, ordea: Ttipi-ttapa telebista, Nafarroako iparraldean; Oarso Telebista, Errearteria aldean; eta Atxabalta Telebista Aretxabaletan. Euren artean lotura handirik barik lan egin dute eta teknologia desberdinak erabiliz.

### Arrasate Irratia

Joxe Aranzabalen kontakizuna osatzeko, aipa dezagun *Arrasate Irratiaren* sorrera. Aldizkaria eta telebista sortu zituen talde haren gogoan iratiaren asmoa ere bazegoen. Eta irratia sortzeko ahalegina egin zuten, aldizkaria sortu eta berehala, telebista baino lehen. Baina sasoi hartan, ez zegoen artean udal irratien legerik eta lizentzia komertzialetara iristeko lehia gogorregia zen. Horregatik, aldizkariaren ondoren, eta irratirik eskuratu ezinean, telebista sortzeari ekin zioten. Baina, iratiarena ez zegoen ahaztuta.

Urte gutxi geroago, 1992an, *Arrasate Komunikabideak* (Arko) elkarte sortu zen, AEDren baitatik, komunikabideak kudeatzeko. Eta elkarte berriak, lehengo komunikabideei bultzada bat eman ondoren, irratia egiteari ekin zion, zetorren lege berriak udal irratia sortzeko emango zuen aukera baliatuz. Eta irratia sortu, sortu zen, nahiz eta legeak azkenean udalak derrigortu zituen irratien gestio zuzenera. Derrigortasun honen ondorioz, 1994. urtean abiatu zen *Arrasate Irratia*, Arrasateko Udalak zuzenean kudeatu behar izan du, Arkoren baitako beste bi hedabideetatik aparte. Egoera aldrebes honek sei urtez iraun du, 2000an konponbidea aurkitu zaion arte.

### Oñati Irratia

Bestelakoa da Oñati Irratiaren sorrera. Izan ere, hemen udalak berak bultzatu zuen asmoa, lehen aldizkariarena bezala. Aipagarria da komunikabideen gai honetan Oñatik eta Eskoriatzak Debagoieneko beste herriekiko erakutsi duten berezitasuna. Kasu gehienetan hedabidea euskara elkarteak sortu badu eta udala hitzarmen bidezko laguntzailea izan bada, bi herriotan udala izan da sortzaile eta kudeatzailea, Eskoriatzakoa telebistarena eta Oñatikoa aldizkaria eta iratiarena.

Asier Aranguren, “Euskarazko Komunikabide Lokalak Euskal Herrian” izeneko doktorego tesian xehetasun handiz aipatzen ditu Oñatiko Irratiaren sorrera eta ezaugarriak. Hauxe dio sorrerari buruz:

“Oñatiko Irratiaren lehen emanaldia 1991ko maiatzaren 11n izan zen, herritarrei zerbitzu berri bat eskaintzeko asmoz sortu zen. Sorkuntza hau hainbat faktorek eragin zuten:

- Herritarrek eguneroko informazio hurbila eta bizia eskatzen zuten.
- Geografia menditsuak, irratieskaintza asko murrizten zuen.
- Euskara normalizatzeko bide egokitzat jotzen zen.
- Herrian zegoen kirol eta kultura dinamikaren isla eta bultzatzaile izan zitekeen...

Hasieratik, bestalde, zegoen eskaerari jaramon eginez, zerbitzu berri hau euskara hutsez eskaintzea erabaki zen:

- Herriarekin eta herritarekin identifikazioa xamurtzearen (%80 euskalduna da).
- Etorkizunera begira, hizkuntza normalizatzeko”

(Oñatiko Udal Irratia legeztatzeko udalak berak Eusko Jaurlaritzara bidalitako txostenetik jasotako datu eta aipuak dira. 1994ko apirila)

Sortzeko arrazoiak eta helburuak, bada, argi eta garbi agertzen dira aurrenengo urratsetatik: informazio hurbila, euskararen normalizazioa eta herriko jardueraren bultzatzaile izatea”.

Gero irratia legeztatzeko prozesu luzea aipatzen du, eta hau dio:

“Hasierako garaietan hiru momentu desberdin behar dira, beraz: lehenengo emisioa (91ko maiatza), baimena eskatzea (93ko otsaila) eta frekuentzia lizentzia ofiziala EHAA-n agertzea (98ko urtarrila). Egin kontu, ez da bide erraza”.

Eta, aurrerago, teknologiari buruzko atalean, tresneria zerrendatu eta gero:

“Gutxieneko materiala besterik ez da eta zaharra jada. Seinalearen digitalizazioa eta ekipoen informatizazioa dira eman beharreko pausuak, baina itxuraz udalean beti dago beste lehentasunen bat”.

“Beharbada, horixe da udal zerbitzu bat izan eta ez, esaterako, komunikabide elkarte baten zati izatearen aldea. Udal baten barruan oso kontu txikia da irratia, komunikabide elkarte batean, aldiz, lehentasuna izango luke”.

Azkenik, esanguratsua da herri berean eta udal berak kudeatutako bi medioen arteko elkarlanari buruz dioena:

“Izan ere, Oñatin bertan *Kontzejupetik* hilabetekaria argitaratzen du udalak (...) Baina elkarlaguntzarik ez dago araututa. (...) Nire ustez, elkarte berean egoteak emango luke horretarako aukera eta bidea.

Bestela, bakoitzak bereari eusten diolako normalean. Arrasaten, estareako, horixe gertatzen da *Arrasate Irratia*, udalarena, eta *Arkoren Arrasate Press* eta *ATBren* artean, Arkoren biek batera lan egiten duten artean, irratia beti dabil bakarrik eta bere kabuz”.

Eskualde oparoa, Debagoiena, komunikazioan ere. Hedabide asko eta eredu ezberdinak eman ditu. Borondate eta baliabide asko bildu ditu eta horretara bideratu. Ez zen oinarri txarra *Goiena* sortzeko.

# 1999ko egoera eta diagnostikoa

## Arko eta Jardun

Ari denak nahiko lan ohi du bere jardueraren egunerokoan, baina ona izaten da tarteka burua altxatu eta urrutikoari erreparatzea. Horrela bakarrik antzeman daiteke ildoak okertu bada edo egoerak zer nolako joera duen. Debagoieneko hedabideetan bazen aurrez ere ardura etorkizunak ekarriko zuenaz, baina 99aren hasieran buruak bateratsu hasi ziren altxatzen, ekaitza datorrenean animalienak bezala.

Arrasateko Arkok kezka nagusia telebistan zuen jarria. Izan ere, *Arrasate Telebista* (ATB) sendotzen ari zen heinean, eskualdean jarduteko joera areagotzen ari zen, eta horrek baliabide gero eta gehiago eskatzen zion. Bestalde, 1993an berritutako tresneria zaharkitua zegoen oster, eta inbertsio plan berri baten garaia hurbiltzen ari zen. Berez, 99ko udaberrian ARKOn zuzendaritza hasia zen Arrasatez kanpoko herrietan eskualdeko telebistak izango zukeen harrera esploratzen. Burua altxatu eta gerora begira.

Bergarako Jardun elkartearen prentsa idatzia gainean ari zen hausnarrean. Aldizkariak bai, tresna onak izan ziren euskaldun asko euskaraz irakurtzen jartzeko, finkatuak zeuden eta irauteko moduan orduko moldean, eta profesional gazteen eskola ere baziren. Bailarakoak, gainera, aitzindariak ziren, eta beste herrientzat eredu. Emaiza ona, atzera begira. Ildoa zuzen zihoan. Baina, euskarazko aldizkariak oraindik ezer gutxi ziren herritarrek irakurtzen zuten masa osoan, eta masa horren gainontzeko ia guztia erdarazko prentsa zen. Eragina areagotze aldera, maiztasuna, lan-eremua edo aldizkaria bera aldatzeko prest zeuden Jardunekoek, eta

egunerokoa zuten amets. Hauek ere burua altxata.

Bien begiradak gurutzatu zirenean abiatu zen *Goiena*.

## Informazio Gizartea

Lanean zihardutenei burua altxarazi zien zer ezezagun hura Informazio Gizartearen etorrera izan zen. Etorriko zenaren iragarkizuna iristen hasi orduko, etorkizuna bera hemen zegoen. Akordatu orduko, sare bidezko loturak, sateliteak, kable sistemak eta kablerik gabekoak, denak ari ziren eskura jartzen. Eta guztien bitartez, datuak, emisioak eta mezuak erruz jasotzeko aukera, irentsi ahal izango genuena baino ugariago.

Interes handiak daude komunikazioaren bueltan. Izan ere, hedabideek diru mozkin handia eman dezakete helburu horretara bideratzen badira. Agintea eskuratzen ere lagun dezakete, edo aurkaria agintetik kentzen. Hain dira handiak komunikazioan dauden interesak, ustekabeko bategiteak ari baitira gertatzen azken urteotan, hedabide taldeen artean. Hauetako batzuk munduko enpresa handien artean kokatu dira.

Ezinbestean iristen ari zaigun ugaritasun uholdean, gutxi etorriko da gutaz, eta gutxiago euskaraz. Uholde horrek itoko ez bagaitu, euskararen barrutik sortu beharko da eskaintza erakargarria, ugaria eta lehiakorra.

Burua altxatu, haizea usaindu. Kezka.

## Hurbiltasuna

Sarean gaude, sarean egongo gara. Distantzia berdiner, izango ditugu auzokoaren terminala eta Singapurerekoa.

Aldi berean mintzatu ahal izango gara batarekin nahiz bestearekin. Hango hura izan daiteke gure arimaren bikia, hurbilekoak ez du izango hurbiltasunaren abantailarik.

Hurbiltasuna ezaba lezake sareak. Edo ahuldu. Mundu zabalarekin lotzen bagara, mundu zabaletik mezu indartsuak iristen bazaizkigu, eta hurbilekoa ez badugu maila berean jartzen, mundu zabala izango dugu interes gune. Eta lehengo komunitateen ordeztu, komunitate berriak sortuko dira sarean, munduaren puntatik puntako pertsoenez osatuak.

Aldiz, gure gizarte antolaketak eta izaerak hurbiltasuna dute ardatz. Hurbilekoekin eraiki ditugu talde nortasuna ematen diguten egitura eta erakundeak. Hurbilekoekin partekatzen ditugu kultura

eta historia. Hurbilean egin dezakegu euskaraz. Hurbila behar dugu.

Hori bai, mundua ukatu gabe. Euskarak ez du harresirik behar, eta sareak ez du harresirik errespetatzen. Jatorrizko komunitateak sarean ere komunitate bihurtzea da erronka. Hurbilekoa sareratu, eta sarean hurbilekoa indartu. Hurbileko komunikazioak sarean hurbileko komunitateak sortuko ditu, eta hauek gure talde nortasuna geroratzeko tresna izango dira.

Burua altxatu, haizea usaindu. Ekaitza dator, antolatu egin behar. Sor dezagun *Goiena*.

# Bateratze prozesua

## Lehen bilerak

1999ko uda aurretik hasi ziren lehen bilerak, Arko eta Jardunen artean. Tentuz, baina giro onean. Gezurra badirudi ere, urte luzez elkarren ondoan lan berdintsuan jardun arren, ez zegoen harreman esturik. Kidetasuna bai, baina hurbiltasunik ez. Mesfidantza gainditu beharrik ez, baina konfiantza eraiki behar zen. Baita eraiki ere.

Lehenengo talde hura eta gero etorri diren guztiak eraginkorrak izan dira, erabakiak hartzen jakin egin dute, hartu behar ziren erritmoan. Eta, iritsi garen egoeraren korapiloak besterik pentsarazi badezake ere, erabaki guztiak adostasunez hartu dira: *Goienan* ez da orain arte bozketa bat ere egin. Ez da behar izan.

Hasiera hartan, lehen erabaki garrantzizkoa bateratze prozesuari kudeatzaile profesionala jartzea izan zen. Eta ez zuen edonork balio. Hurbilekoa behar zuen, gaian aditua eta aritua, eta bateratze korapilatsu hura bideratzeko gaitasuna izan zezakeena. Aurkitu zen hautagaia lanean ari zen eta lan hura bi urtez uzteko proposamena egin zitzaion, orduko lanean zuen diru egoera berdinduz.

Apostu ausarta egin zen, beraz. Baina prozesu zailei profesionaltasunez heldu behar zaie, eta erronken tamainako baliabideak jarri. Ehiztari adoretuenak ere nekez botako du elefantea harrika.

Bateratzaile liberatuak bizkortu egin zuen prozesua, urritik aurrera eta, txosten idatziak oinarri, adostasuna egosten hasi zen. Horren lehen emaitza *Goiena Egitasmoa* izeneko dokumentua izan zen, urria amaieran Arrasateko eta Bergarako elkarteek sinatu zutena.

## Goiena egitasmoa

Urte t'erdi geroago irakurrita, lehen dokumentu hartan ikusten da gaurko *Goiena*. Ez xehetasunetan, baina bai bere ezaugarri nagusietan. Izan ere, dokumentua ez zen aldarrikapen edo asmo onen bilduma hutsa, enpresa baten egitasmo zehatza baizik, oinarri filosofikoez gain, diru ekarpenak, egitura juridikoa edo baliabideak aipatzen zituen.

## Goiena egitasmoa: oinarrizko dokumentua

Goiena | Sarrera  
1999ko urria

Debagoienean komunikabide lokalek bide luzea egin dute dagoeneko, eta bide horretan sendotuz joan dira. Hala ere, eta aurrera begira, erronka berriak datozkie. Hurbileko informazioarena esparru erakargarria bilakatu da, lehentasun merkantileko ekimenak pizteko beste.

Bestalde, teknologiaren garapen etengabea, Euskaltelek epe laburrean eskualdean kablea ezartzeak edo ikus-entzunekoaren digitalizatzeak egungo egoera aldatu egingo dute. Erronka horien aurrean gure medioek nola jokatzten duten, halakoa izango dute etorkizuna. Hazkunde-krisian daude, beraz.

### Oinarri filosofikoak

Komunikabideon orain arteko garapenak zutabe sendoak izan ditu, gerora ere baliagarri izango direnak. Hona:

#### *Hurbileko informazioa*

Beharrezkoa da hurbileko informazioa lantzea. Munduaren globalizazioak unibertsalago egin gaitzake, eta hori ez da txarra. Baina guztiz berdin, uniforme ere bihur gaitzake eta hori kaltegarri litzateke. Komeni da giza-multzo bakoitzak bere izaera propioa gordetzea, eta komunikabide lokalek eragin handia dute horretan. Herritarren eta herriko indar bizien (kultura talde, kirol talde, enpresa, ikastetxe...) zerbitzukoak direlako eta euren partehartzea eta eurekiko elkarlana bultzatzeko asmoarekin sortzen direlako. Hortik hurbileko informazioa lantzeko ditugun bitartekoak tinkotu eta garatu beharra.

#### *Hizkuntza*

Kultura izaeraren muinean hizkuntza dago, gurean euskara. Eta euskararen etorkizuna bere hiltunen dinamismoan datza. Gure herrietan euskaldunen dinamismo horrek euskara elkarteak sortzea ekarri zuen eta elkarteok hainbat esparru landu dituzte, tartean herri komunikabideena. Aurrerantzean ere, esparru berriak, modernoak irabaztea komeni zaio euskarari, bere indarra areagotuko bada. Horregatik, gure estrategian euskaraz egin daitezkeen komunikabide lokal guztiak dira helburu, eta berdin hauen inguruan sor daitezkeen esparru berriak —zerbitzu telematikoen, esaterako.

#### *Autofinantziazioa*

Eskualdeko herri komunikabideek diru sarrerak lortzeko ahalmena erakutsi dute. Baina zerbitzua eta hizkuntza helburu nagusi izanik, helburu merkantilak bigarren mailan gelditzen dira, nahiz eta hauek ere garrantzizkoak diren. Horregatik, komunikabideok nekez iritsiko dira autofinantziaziora oraingoan, eta administrazioen laguntza beharko dute. Hala ere, komeni zaie ahalik eta autofinantziazio maila handiena eta finantziazio bide askotarikoenak lortzea.

*Diru sarrerak  
lortzeko abalmena  
erakutsi dute herri  
komunikabideek,  
baina, oraingoz,  
herri  
administrazioaren  
laguntza  
beharko dute.*

### **Kudeaketa**

Ekimen hauen kudeaketa elkarteek esku uztea komeni da. Herri komunikabideok kasurik gehienetan euskara elkarte ekimenaren fruitu izan dira eta orain arte berek kudeatu dituzte tokian tokiko hedabideak. Orain, bailarako elkarlanari ekin nahi zaion une honetan ere, komenigarritzat ikusten da aurrerantzean beren esku egotea sortzen den entitate berriaren gaineko aginpidea. Kudeaketa bizkorrago, eraginkorrago eta seguruagoa lortzeko, behar-beharrezkotzat jotzen da elkarteak batuko dituen egitura juridiko bat sortzea eta haren gain delegatzea sortu nahi diren komunikabideon kudeaketa. Administrazioaren laguntzak bideratu eta eragile ezberdinen arteko elkarlana garatzeko hitzarmen egonkorak ikusten ditugu egokien.

### **Eskualderako diseinua**

Bailarako herri komunikabideak herrietan sortu ziren, eta herrirako. Hala ere, elkar hartzeko ordua etorri zaie. Urte gutxi barrurako aurreikusten den panoraman, nekez iraungo dute bakarka. Herri eta hedabide bakoitzaren nortasunari eutsiz, egitasmo bateratua abiatu behar da, herri komunikabideak —gure eskualdean behintzat— euskaraz eta gizalegez jardun daitezen.

#### **Jarduera arloak**

- **Telebista.** Telebista da eskualdeko esparrua lehenen eskatzen duena. ATBk egindakoa erabiliz, gastuak biderkatu gabe egin daiteke eskualdeko telebista. Seinale banaketa prestatzea, herrietako berriemaileen sarea osatzea eta erredakzio bateratua sortzea dira lan nagusiak.

- **Prentsa.** Bailarako herri gehienetan daude herri-aldizkariak. Ia guztiak euskara elkarteek kudeatutakoak dira, gainera. Maiztasunaren aldetik, berriaz, denetik dago: astekariak, hamaboskariak, hilabetekariak... Garbi dago eskualdeko planteamenduak eragin handiagoko bideak jorratzera eramane behar gaituela. Izan ere, oraingo egoeran gure aldizkariok nahiko sendo badaude ere, herritarren prentsa kontsumoaren zati txiki bat baino ez dute asetzen. Horregatik, komenigarri ikusten da telebista bailaran hedatzearekin batera, bailarako egunkariaren bideragarritasun plana ere lantzea. Aldeko faktoreak izango dira, gainera, telebistaren bidez egunean eguneko informazioa jorratzea, bailarako eta inguruetako publizitateak lantzea, eta abar.

Bitartean, herri aldizkariak herria dute esparru egokia, hemen optimizatzen baita “baliabideak/eragina” bikotea. Hala ere, esparru komunak elkarrekin lantzea komeni da, eskualde zentzua indartzeaz batera, merkeago ere badelako. Telebistarako sortuko den erredakzio bateratuak emango du horretarako bide.

- **Irratia.** Hemen ere herria da esparru egokia. Une honetan bi herritan dago abian irratia: Arrasaten eta Oñatin. Bietan ere oraindik udala arduratzen da kudeaketaz. Kudeaketa hori elkarteetara bideratzea eta bien arteko elkarlana abiatzea izango litzateke egokia.

- **Zerbitzu telematikoak.** Euskaltelek kablea zabaltzen duenean, Debagoienak kable bidezko zerbitzu telematikoak eskatuko ditu. Zerbitzu horiek eskaintzea diru iturri berri bat izango litzateke kooperatibarentzat, eta aldi berean euskara kablean ezartzeko bidea. Berariazko txostena egingo da gai hau nondik nora jorra litekeen aztertzeko.

- **Diru iturriak.** Eskualdea eremutat hartuta, diru iturri berriak abiatzeko aukera sortuko da. Lehenik eta behin, publizitatea bateratsu kudeatzea etorriko

*Bitariko  
kooperatibak  
aukera ematen du  
bazkide mota eta  
diru ekarpen mota  
askotarikoak  
hartzeko.*

da. Baina gero, eskualdeko merkatua suspertu eta bereziki kanpoko biderkatzera jo beharko litzateke. Diru iturriak banatze aldera, klub bat ere abia daiteke, gure bazkideek zerbitzuak, beharpenak edo sariak jaso ditzaten, ordain sari baten truke. Zerbitzu telematikoei eta bestelako produktuei ere ondo erreparatu beharko zaie. Hau guztiau bideratzeko, marketing-a izango da tresna baliagarria.

## **Egitura eta elkarlana**

### ***Bitariko kooperatiba***

Antolaketa honek hartuko lukeen egitura juridiko egokiena bitariko kooperatibarena da, bazkide mota eta diru ekarpen mota askotarikoak hartzeko gai delako. Herrietako elkartek izango dira egitura honetan gehiengoa izango duten bazkide erantzule eta kudeatzaileak. Bazkide laguntzaileen atalean sar daitezke diru laguntza esanguratsuak ematen dituzten udal eta bestelako erakundeak, publiko nahiz pribatuak. Eta langileek ere bazkide izateko aukera izango dute.

### ***Diru ekarpenak***

Diru-ekarpenei dagokienez, herri bakoitzari dagokion kopurua proportzionaltasunez ezarriko da, biztanleen arabera. Herriz-herriko elkarte eta udalen arteko hitzarmenetan zehaztuko dira ekarpenok, aldioro lanean diharduten hedabideen arabera.

Gai honetan, ona da gogoratzea kablea ezarri izan den herrialdeetan, operatzaileei ordainarazten zaien zerga herri komunikabideak diruz laguntzera bideratzen dela.

### ***Elkarlana***

Euskara elkarteek eta herri-aldizkariak elkarlanean jarduteko borondatea azaldu dute orain arte eta elkarlan hori bideratu nahian sortu zuten Topagunea izeneko elkarte. Elkarte berriak ere beste herri komunikabide batzuekin eta nazio mailako komunikabideekin elkarlanean jarduteko borondatea du.

Adibidez, ETB1-en inguruan mami daiteke etorkizunean euskarazko ikus-entzunezkoen sarea, sarearen luze-zabalean telebista lokalak daudela. Sare horrek erabat estaliko luke Euskal Herria, eta aitzindari izan liteke eragin handiko esparru horretan.

## **Lehentasunak**

Goian aipatu den egitasmo zabalean puntu guztiak ez dira batera lantzekoak, egutegiak eta tokian tokiko errealitateek lehentasunak ezarriko dituzte eta.

### ***Enpresa egituratzea***

Gai batzuk presazkoak dira, besteak beste, Euskaltelek kablezko sarearen zati batzuk hurrengo urtean ezartzeko asmoa duelako. Urte berriarekin sortu beharko litzateke kooperatiba, ordurako prestatu diren herriekin. Hortik aurrera, ona litzateke urtebeteren buruan eskualdeko herri guztiak —Aramaio barne— partaide oso izatea.

### ***Lehentasunezko jardun eremuak.***

- Telebista. Urte hasieran telebista hedatzen hasi behar dugu, ahal den herri guztietan; eta urtean zehar, bailara osoan. Erredakzio bateratua abiatu, digitalizazio plana prestatu, Euskaltelen oinarritzko eskaintzan gure seinalea sartu, ETBekin agentzia hitzarmena egin eta ondorengo urratsak finkatu behar ditugu.

*Muga oso hurbilak  
jarri zitzazkion  
lehen  
ekintza planari.*

- Prentsa. Hainbat gehigarri argitaratuko dira bailararako eta egunkariaren bideragarritasun txostena egingo da.
- Eskualderako diseinua. Osatu eta herriz-herri zehaztu.
- Zerbitzu telematikoak. Oinarrizko txostena egin.

### **Azpiegiturak eta baliabideak**

Nekez aurreikus daiteke orain prentsa eta telematika arloek izan dezaketen bilakaera hurrengo urteetan. Horregatik, ekintza planaren lehen fase honi muga oso hurbila jarri zaio denboran, 2000. urtearen amaiera, hain zuzen. Hipotesi hauek egin dira epe horretarako:

#### ***Hipotesiak***

- Telebista. Telebista eskualde osoan hedatuko da. Emisio eta informatiboen zentroa gaurko ATB izango da, eta hiru ordezkari izango ditu: Bergara/Antzuola/Elgeta lehena, Oñati bigarrena, eta Aretxabaleta/Eskoriatza/Gatzaga hirugarrena. Aramaiok Arrasaterekin izango luke lotura. Gaurko ATBren egoitza mugatua denez, aztertu beharko da produkzioarako bigarren zentro bat sortzea Zubillaga/San Prudentzio aldean, baina hau ez litzateke 2000.ean gauzatuko.

- Prentsa. Prentsa idatzian astero bi gehigarri argitaratuko dira eskualdeko herri guztietan. Bat telebistari lotua, programazioa eta GOITBko jendea aurkeztuz. Eta bestea, eskualderako edukiak jorratzen hasiko litzateke, eta aldi berean gehigarri komertzialen euskarria bihurtu.

- Egunkaria. Egunkariaren bideragarritasuna aztertuko da, baina hau ere ez litzateke 2000.ean gauzatuko.

#### ***Azpiegitura***

Telebista

Ordezkaritza:

- 25 m<sup>2</sup>ko lokala, zaratetatik bakartua.
- 10 m<sup>2</sup>ko lokala, erredakzioarako.
- 10 m<sup>2</sup>ko lokala, irudien artxibategirako.
- DVcam kamera bat, audioa eta argiztapena.
- Aurkezle/korrespontsari bat.
- Teknikari bat, egun erdiz.
- Emisio zentroarekiko joan-etorriko lotura.

Emisio Zentroa:

Gaurko emisio zentroan ere aldaketak aurreikusten dira:

- Bereiztu emisioa/errealizazioa editatzetik.
- Editatzeko ekipo berria.
- Joan-etorriko lotura ordezkari zekin.
- Seinale banaketa.
- Mantenimenturako pertsona bat, sare osorako.

#### ***Zerbitzu orokorrak***

Datorrena oraindik trantsizio urtea izango da, eta enpresa herriz herriko egiturez baliatu beharko da, gastuak banatuz. Hala ere, ezinbestekoak ditu baliabide hauek:

*Lau lagunek  
osatutako lantaldea  
eratu zen,  
Goiena prestatzen  
joateko.*

- Bateratzailea. Egitasmoa bultzatu eta enpresa finka dezan.
- Informazio burua. Erredakzio bateratua antolatu, telebistaren albistegiak prestatu eta gehigarriak zuzenduko dituen. Lantaldean hiru kazetari izango ditu eta horiez gain, herrietako erredakzioen laguntza.
- Marketing arduraduna. Publizitatean eta telematikan produktu berriak prestatu eta klubaren aukera lantzeko.
- Publizista bi. Eskualdeko euskarrietarako publizitate berria ekarriko dutenak.
- Administrazio arduraduna. Administrazio eta finantza arduradun bat, hasieran egun erdiz.

### **Aurrekontuak**

#### ***Eratze gastuak***

Goienaren legezko eratzea urte berriaren hasierarako aurreikusten da. Bitartean, ordea, prestatze lanak egin behar dira. Horretarako, bateratzailea, marketing arduraduna eta gaurko hedabideetatik libratuko liratekeen beste bi pertsonaz osatutako lantaldea prestatu behar da. Horiez gain, hiru telebista-teknikari, egun erdiz hasiko direnak.

Horrela joanez gero, eratze gastuen aurrekontua 9 milioikoa da. Gastu horiek, herrietako elkarteek hartuko dituzte bere gain, enpresari egiten dioten hasierako ekarpen gisa (ikus xehetasunak 1. eranskinean)

#### ***2000. urterako gastuen aurrekontua***

Lehen aipatutako azpiegitura eta baliabideekin, 2000. urterako aurrekontua 95 miliokoa da. (ikus xehetasunak 7.2. eranskinean)

#### ***Inbertsioak ordezkartzetan***

Herriak telebistaren emankizunetan zuzenean sartuko badira, ezinbestekoak dira kamera, audio eta argiteria. Ediziorako tresneria erosiko balitz, produkzio zentroan erabiliko litzateke gero. (ikus 3. eranskina)

#### ***Seinalea zabaltzeko kostuak***

Herrietan seinalea hartzeko, emisio zentrotik datorren seinalea jaso eta banatuko duen instalazioa behar da. Baina itzulerako instalazioa ere ezinbestekoa da ordezkartzeko seinalea emisioan sartu ahal izateko. (ikus 4. eranskina).

Egitasmoan bertan espreski agertzen ez denez, komeni da aipatzea udalek Goienara egin beharreko ekarpenetarako, Arrasateko Udala hartu zela erreferentzia, bera baitzen bakarra aldizkaria, telebista eta irratia diruz laguntzen zituena. Eta laguntza hau ez zen une batekoa, urte luzeetakoa baizik. Jasangarria zen seinale. Guztira, Arrasateko Udalak urtean eta biztanleko 2.000 pezeta bideratzen zituen euskarazko herri komunikabideetara. Kopuru hori muga hartuta, eta beste herrietako erreferentziak erabilita, ekarpen mailakatua zehaztu zen eskualdeko udal guztientzat: eskualdeko astekaria eta telebistarako, 1.000 pezeta urtean biztanleko, herriko astekaria gehituta, 1.600 pezeta eta eskaintza osoa, irрати eta guzti, 2.000. Hortik aurrerako garapena Goienak bere kontura egin beharko zuen.

Bestalde, lehen unean tresnerian eta seinale hedapenerako inbertsioetan udalen laguntza espero bazen ere, berehala hobetsi zuen Goienak tresneria bere baliabideekin erostea.

### **Egitasmoa azaltzen**

Aurrez ere harremanik izan zen, baina ondorengo hilabeteetan lan handia egin zen beste herrietako euskara elkartei eta udalei egitasmoa azaltzen. Herriz herriko lan horretan, nabarmen agertu ziren herri bakoitzaren berezitasunak, eskualdeari buruz edo gauzak egiteko moldeetan. Hala ere, euskara elkarteek berehala antzeman zuten gaiaren garrantzia eta egitasmoaren trinkotasuna, eta erreskaran eman zioten baietza. Honen ondorioz, 99ko abenduaren amaieran, eskualdean zeuden zazpi euskara elkarteek ekitaldi bateratuan sinatu zuten egitasmoa, eta prozesuak sekulako bultzada hartu zuen.

Tartean, Aramaio eta Leintz-Gatzaga falta ziren. Lehenak euskara elkarerik ez zuen, sortzeko asmoa landu samar bazegoen ere. Bigarrenean, herri oso txikia izanik, euskara elkarteak geldirik zuten guraso elkarteak bultzatzeko, bientzat besteko jenderik ez zegoelako. Dena dela, *Goiena*

zela eta, Aramaio berehala sortu zuen bere elkarteak, Txirritola, eta Leintz-Gatzagan guraso elkarteak bera aurkeztu zuten kooperatibako bazkideztat, euskara elkarteak berpiztu bitartekoa egin zezan.

Udalei dagokienez, harrera ona izan zuen egitasmoak. Batzuetan berehala agertu zen aldeko jarrera eta egitasmoan parte hartzeko borondatea. Hauek 2000. urtean bertan sinatu zuten lehen lankidetzak hitzarmena, eta zegokien diru laguntza kooperatibara bideratu. Beste udal batzuek aldeko jarrera bai, baina gaia patxadaz aztertu beharra azaldu zuten. Hauen partaidetza une honetan formalizatu gabe dago.

Oro har, egitasmoa eskualdean azaltzeko aldi hau ondo gauzatu zen, aurrez uste baino bizkorrago eta adostasun handiagorekin. Emaita onaren arrazoiak bat baino gehiago izan dira, eta seguruenik ez da garrantzi txikienekoa izango Debagoiena eskualdearen dinamika ikaragarri ari dela indartzen azken urteotan, herrien esparruak zenbait gauzatarako mugatuegi gelditzen ari diren neurrian. Barruko arrazoietan eragingarriena da behar adina azalpen eman izana, informazio zuzena eta azken ordukoa behar zen tokietara eraman izana. Ez dago beste biderik herrien artean oso aspalditik etor daitezkeen errezelo edo uste ustelak gainditzeko.

### **Otalorako Eratze Batzarra**

Egitasmoa lantzen hasi eta sei hilabetera adostuta zeuden egitasmoa bera, kooperatibaren estatutuak eta barne araudiaren oinarritzko atalak. Herri guztietako euskara elkarteak, bederatziak, prest zeuden aurrera egiteko. Ez zalantzarik gabe, ez guztia argi zegoelako, ez zurrumbilo hark bakoitzaren zati handiegia irentsiko ote zuen beldurrik ez zegoelako. Horren guztiaren gainetik, ordea, bederatzi euskara elkarteak prest zeuden ahaleginerako, beren helburuen aldeko lana eragingarriago egingo zuen egitura berrian sailatzeko. Ausardia eta eskuzabaltasun handiko unea izan zen.

Eta Aretxabaletako Otalora etxean, Urkuluko urtegiaren ondoan, bederatzi elkarteetako ordezkariak bildu ziren Eratze Batzarrean, *Goiena* legez sortzeko bidean lehen ekintza publikoan. Ordura artekoak prestatze lanak ziren, talde sustatzaileak eginak. Handik aurrerakoak urrats publikoak izango ziren, ordezkari ofizialek emanak.

*Goienaren* sorrerari data ofizialik jarri behar bazaio, data hori 2000ko martxoaren 31 da, Otalora etxeko Eratze Batzarrarena.

### Notario aurrekoa

Otaloran hasitako legezko bidean arin egin zuen aurrera taldeak, eta ekainaren amaierarako prestatu zen enpresaren eratze formala notario aurrean. Ordurako eginak zeuden elkarten diru ekarpenak kapital sozialerako, zuzenduak behin behineko estatutuei erregistroan aurkitutako akatsak, eta lotuak ordezkaritza, kargu eta funtzionamenduko oinarriak.

Bilbon, notario aurrean eskritura publikoa sinatu eta gero, *Goiena* gai zen enpresa jarduerak eskatzen zituen eginkizunetarako, hala nola, lan kontratuak edo maileguak sinatzeko, edo estatutuetan jasotako organoak abiatzeko. Une hartatik aurrera, *Goiena* enpresa bilakatu zen. Egoera asko aldatu zen eta bilakaeraren abiada, bizkortu.

Hitz bi eskritura sinatzera Bilboraino joan behar izanari buruz. Tramite osoa euskaraz egin nahi izateak eragin zuen Bilborako bidai hura, mikrobus eta guzti. Sinatzaile guztiek, dozena bat inguru, laneko goiz osoa galdu behar izan zuten ekitaldira joan ahal izateko. Euskaraz jardun nahi izanak oraindik, edo orduan behintzat, horrelako sariak ordaintzea dakar.

Zeren, zailtasunak zailtasun, *Goienaren* sortze prozesuko osagai guztiak, —bilerak, txostenak, estatutu edo tramite guztiak—, euskaraz gauzatu dira.

### Arlokako egitasmoak adosten

Enpresa egitura prest zegoen, eta hasierako egitasmo orokorraren atal zehatzak

adosteko ordua zen. 2000ko uda aurretik hasi zen hausnarketaldia, eta urte amaiera arte lan mardula egin zen, *Goiena* sendo finkatuta utzi zuena. Dena dela, jardun arlo bakoitzari eskainitako atalean xehetasun guztiak azaltzen direnez, hemen zertzelada batzuk aipatuko dira, bateratze bidea marrazteko adierazgarri direnak.

Prensa egitasmoak eta kudeaketa ereduak piztu zuten eztabaidarik handiena, bietan ere ikuspegi nahiko kontrajarriak agertu zirelako. Prensa egitasmoari buruz, bazegoen egunkaria ahalbailehen nahi zuenik, eta egunkariari beldurra bakarrik zioenik ere bai. Herri aldizkariak oinarri hartuta egunkariraino diseinatu zen trantsizioak batzuen presa eta besteen beldurra ezkondu zituen, bilera, azalpen eta idatzi askoren ondoren. Lanketa honek prentsa egitasmoa adosteko balio izan zuen, baina aldi berean sekulako eskola izan zen adosten ikasteko. Prensa egitasmo adostua onartu zeneko batzarra mugarri nabarmena da *Goienaren* bateratze prozesuan.

Kudeaketa ereduari buruzko eztabaida ere, hasieran, bi aukera oso ezberdinen artean kokatu zen. Alde batetik, erabateko integrazioa proposatu zen, hau da, lantalde eta baliabide guztiak egitura bakar batean bizkor biltzea, produktu berriez gain, lehengoak egiten jarraitu behar bazen ere. Ekoizpen talde bakarra bultzatu behar zen, eskualdeko produktuak nahiz herrietakoak egiteko. Beste aldean, lehengo egiturei eutsi eta osagarria izango zen egitura zentrala sortzea proposatu zen. Bidea eginez, integrazioarako urratsak patxadaz emateko astia eskatzen zen. Eztabaida hau eta prentsa egitasmoarena bateratsu abiatu ziren, eta bigarrenaren korapiloak askatu zirenean, lehena ere berehala amaitu zen. Behin konfiantza giroa lortu zenean, ez zegoen integrazioarako trabarik. Eta 2000ko urte amaieran adostutakoak, aurtengo lehen hilabeteetan *Goienak* elkarten hedabide guztien ekoizpenaren ardura hartzea ekarri

du. Dagoeneko langile guztiak kooperatibarenak dira, eta baliabideak optimizatzeko lana hasia da.

Telebista arloan, errazago iritsi zen adostasuna. Prentsakoaren ondoren egin zen hausnarketa, hark sortutako konfiantza giroa baliatuz. Gainera, GOITB sortua zen, aurreko maiatzean Arrasateko eta Aretxabaletako telebistek emisioak eten eta baliabideak batu ondoren. Eta prentsan denek zer esana zuten bitartean (elkarte gehienek kudeatzen baitzuten aldizkariren bat), telebista ezezagunagoa zitzaien, eta eztabaidan parte hartze txikiagoa izan zen.

Telebistaren kasuan, baliabideak beti mugatuak izango zirenez, lehentasunak ezartzea zuen helburu hausnarketak. Eta ez zen zalantza handirik izan emisioaren bizkarrezurra albiste zerbitzuak izango zirela erabakitzeko. Gainontzeko programazioa, gizarteko hainbat eragilerekin elkarlanean egingo zen, nagusiki. Lantaldearen antolaketa eta inbertsio plana zehazterakoan ez zen eztabaida apartekorik sortu.

Sail komertzialean udazkenean hasi ziren aldaketak, talde bateratuarentzat zuzendaria hautatu eta gero. Hemen ere, bidea egin da eta urte hasieran estrategia berriak finkatzeko oinarriak bazegoen.

Zerbitzuen atalean ez da bateratzen lan handirik izan, herriz herri gutxien garatutako atala zelako. Ez zegoen, beraz, zer bildu handirik. Aldiz, sail hau da beste guztientzat giltzarri, eta bere baliabideen eskasiak ekarri du estutasunik. Dagoeneko, ari da garatzen zerbitzuetako lantaldea.

### Aurrerantzean

Orain arteko *Goienak* definizio bat baino gehiago onartzen du, nabarmendu nahi denaren arabera. Hala ere, eta beste ezer baino gehiago, *Goiena* bateratze prozesua izan da, konberjentzia. Deigarria da nola urte baten bueltan bederatzi elkarte eta berrogei langile bateratuz joan diren, eta zenbaiterainoko adostasun guneak sortu dituzten.

Aurrera begira, gai asko ditu oraindik kooperatibak adosteko. Aurtengo urtea amaitu baino lehen, hiru urteko Plan Estrategikoa finkatzeko erronka hartu zuen azken Batzar Orokorrean. Izango du, beraz, zer adostu. Baina badaki nola egin, landuak ditu horretarako behar diren giharrak, sortuak ditu iritzi ezberdinak bateratzeko gailuak.

# Izaera juridikoaz

## Elkarte egitura baino gehiago

*Goienaren* sortzaileak kultura elkarteak ziren. Euskara sustatzeko helburuaz sortutako elkarteak. Elkartearena egitura arina da, erraz eraiki daitekeena. Estatutu mehe samarrek balio dezakete, diru handirik ez da behar eta hiru pertsona nahikoa dira. Burokraziako tramite azkarra egin eta berehala egon daiteke elkarte lanean.

Aldi berean, elkarte tresna indartsua izan daiteke, bere oinarria gizartean hedatzeko gai izaten bada. *Goiena* sortu duten bederatzi elkarteek 3.000 bazkide inguru biltzen dituzte. Debagoienean, kooperatiba taldea salbu, ez da egongo neurri horretako beste giza talderik helburu baten alde antolatuta.

Hala ere, euskararen aldeko lanean ohiko ildoez aparte hedabideetako jarduera abiatu zutenean, elkarteak egitura honen ahuleziaz ohartu ziren. Aldizkari bat, telebista edo irratia profesionaltasunez egiteak enpresa egitura eta moldeak eskatzen ditu. Dirusariak, erosketak, inbertsioak edo publizitate salmentak ohiko kontzeptuak diren jardunean, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak banatzeko tresna aproposak, azkarra eta eragingarriak behar dira. Bestalde, hedabide baten aurrekontua —are gehiago multimedia batena— handia izan daiteke, handiegia ere bai egitura arinez kudeatzeko.

Honen adibide, eskualdean hedabide bat baino gehiago zuten bi euskara elkarteak, Arrasate eta Aretxabaletakoek, bigarren elkarte bana sortua zuten, komunikazioan bakarrik jarduteko, euskara elkarte bera libreago gera zedin. Eta horrela, komunikazio elkarteak aukera zuen enpresa moldean

funzionatzeko, beti ere elkarte egiturei dagokien arintasunaren pean.

*Goiena* sortzeko orduan hedabide guztiak bateratuz gero neurri handiko jarduera bilduko zela ikusita, kultura elkartearena baino egitura trinkoagoa lantzea hobetsi zuen sustatzaile taldeak, ardurak, aginte guneak eta erantzukizunak zehatz finkatuko zituen. Gainera, egitura berrian gizarte eragile, langile eta erakundeek tokia izan behar zuten, guztien arteko ezinbesteko lankidetzak finkatze aldera.

## Bitariko kooperatiba

Aholkularitza profesionalaren esanak entzunda, enpresa egituren artean kooperatibarena hobetsi zen. Batez ere, elkarte sortzaileek izaeran eta helburuan duten osagai sozialaren antzekoa duelako kooperatibak. Enpresa ere bada, eta antolaketan enpresa molde guztiak onartzen ditu. Egitura trinkoa da, estatutu eta barne araudi beteak eskatzen dituen, jardueraren alde guztiak ondo arautuak egon daitezen. Onura sozialekoa ere izan daiteke kooperatiba, zergen zama arintze aldera. Eta Debagoienean, azkenik, oso hurbileko egitura da kooperatibarena. Ezaguna delako, erabiltzen erraza.

Hala ere, *Goiena* ez zen izango lan elkartuko kooperatiba arrunta, bere baitan langileak bakarrik hartuko zituen. Bigarren mailako kooperatibaren antza bazuen asmoak, bere sortzaileak pertsona juridikoak zirelako, baina hauek kultura elkarte ziren eta ez kooperatiba. Gainera, pertsona fisikoak —langileak— bazkide hartu behar zituen, eta bestelako pertsona juridikoak —erakundeak edo enpresak— ere bai.

Hau guztia kontuan hartuta, bitariko kooperatibarena zen aukera egokiena, agian bakarra. Ez, ordea, gero ikusiko zen bezala, aukera erraza. Ia urtebete behar izan zen elkartearen artean adostutako antolaketa Kooperatibaren Estatutuetan behar bezala jasotzeko eta, aldi berean, administrazioa ikuskatzaileek onartzeko moduan.

### Bazkide motak eta agente banaketa

Estatutuen arabera, elkarte sortzaileak kooperatibako “bazkide erabiltzaileak” dira. Izen hau bigarren graduako kooperatibetatik dator, hemen oso esangura zuzena ez badu ere. Hauek dira kooperatibaren bazkide nagusiak. Batzar Orokorrean, elkarteek 52tik 27 ordezkari dituzte, eta Kontseilu Errektorean 11tik 7 kide. Kopuru zehatzak, agian, alda daitezke bestelako bazkideak datozen neurrian, baina oinarri filosofikoak bere horretan iraun behar luke. Hain zuzen, 9 elkarte eta 3.000 bazkide berme ona dira, —sortzaileen ustez, onena— kooperatiba bere helburuetatik desbidera ez dadin. Oinarri sozial zabala horrek, era berean, ziurtatu behar luke koiuntura politikoek gehiegizko eraginik ez izatea kooperatibaren jardunean.

Estatutuetan “akziodunak” ere agertzen dira. Bitariko kooperatibak honetarako aukera ematen du, eta kategoria sortu egin zen, nahiz hasiera batean oso garbi ez jakin zertarako erabiliko zen. Gero, ordea, aurkitu zitzaion garrantzi handiko funtzioa.

Elkarte sortzaileen artean alde handiak zeuden, tamainari zegokionez. Mutur batean, Arrasatek bazituen hogeita lau mila biztanle eta Arko elkarteak, ia mila bazkide. Beste muturrean, Leintz-Gatzagak 250 biztanle zituen eta Gurel elkarteak dozena pare bat bazkide. Sustatzaileen nahia zen bazkideek organoetan izango zuten pisua ponderatzea, ez proportzio zuzenean, baina bai batetik zazpirakoan, hau da, txikiak ordezkari bat zuen tokian handienak zazpi izatea. Ponderazio hau estatutuetan jasotzeko bide bakarra akziodunen izan zen, elkarte handienak erabiltzaile izateaz gain, akziodun ere bihurtzea. Horrela, akziodun multzo

berezirik ez dago, erabiltzaile batzuei metatzen zaie hauen partaidetza.

Bigarren multzo berezia, “bazkide laguntzaileak” osatzen dute eta hemen bilduko dira kooperatibarekin lankidetzak hitzarmenak sinatzen dituzten erakunde edo enpresak, eskualdekoak bereziki. Laguntzaileak 14 ordezkari dituzte Batzarrean eta 2 kide Kontseilu Errektorean. Batzarreko 14 ordezkarien artean, aurrez ikusita dago 9 ordezkari eskualdeko udalenak izatea, bakoitzak bana. Bazkide hauen ekarpen nagusia jarduerari lotua dago, finantziarioaren zati garrantzizkoa direlako. Gainera, udalen partaidetzak kooperatibaren helburua lortzeko lagungarri den izaera parapublikoa ematen dio enpresari, eta lege aldetik bideak erraztu, ez baita ahaztu behar toki komunikabideen gaurko legediak protago-nismo handia ematen diela udalei, lizentziak lortzeko orduan, gehien bat.

Eta hirugarren multzoa “lan bazkideak” dira, kooperatibako langileen artean bazkide izan nahi dutela adierazi eta onartuak izango direnak osatutako multzoa. Langileak enpresaren zati izatea garrantzi handiko helburua zen talde sustatzailearentzat, batik bat haien enpresarekiko atxikimendua indartzearren. Baita ere, gainontzeko multzoen ordezkarietza —elkarte, udal edo enpresetan— pertsonak berez aldatzeko izanik, lan bazkideak izango zirelako ildorekin jarraipena ziurtatuko zutenak. Lan bazkideek Batzarrean 10 ordezkari dituzte, eta Kontseilu Errektorean 2 kide.

### Estatutuaren atal adierazgarriak

Lehenago aipatu da kooperatibako Estatutuen lantzea luzea eta nekeza izan zela, egin nahi zenaren aurrekaririk ez zegoelako. Hala ere, emaitza ona izan da, eta modu egokian jasotzen ditu *Goienaren* ezaugarri nagusiak. Hona hemen adibide batzuk:

*“Kooperatiba honen xedea ondorengo bakoitzaren da: herriarrek, taldeek,*

*enpresek, erakunde publikoek... dituzten komunikazio-beharrak euskaraz asetzeko era guztietako zerbitzuak sortu eta kudeatzea”.*

*“Euskara izango da bizkuntza ofiziala”.*

*“Zor sozialengatik bazkideek duten erantzukizuna, kapitalera egin dituzten ekarpenen arabera izango da soilik. Horrenbestez, kapital sozialaren muntaren egiazkotasuna eta egonkortasuna hiru-garregoen aurrean garantizatzeak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu Kooperatibak”.*

*“Kontseilu Errektorea Kooperatibaren ordezkariak, gobernu eta kudeaketarako organoa da eta hilean behin bilduko da gutxienez. Organo honek dagozkion abalmen guztiak izango ditu, Legeak edo Estatutu hauek bestelako organo sozialei egotzen dizkietenak izan ezik. Edonola ere, Kontseilu Errektoreak Kooperatibaren jarduerarako gainontzeko ekintza guztiak gauzatzeko ahalmena izango du. Kontseilu Errektoreari dagokion odezkaritza, printzipioz, bertako Lehendakariak hartuko du bere gain, Kontseiluak bestelakorik erabakitzen ez badu”.*

*“Kontseilu Soziala langileek Kooperatibaren parte hartzeko duten aholkularitza eta informazio organoa da, beti ere Batzar Orokorrari eta Kontseilu Errektoreari dagozkion eginkizunak kaltetu gabe”.*

*“(…) Bazkide Erabiltzaileen Kontseilua eratuko da. Kontseilu hau bazkide erabiltzaile diren Elkarrekin Kooperatibaren dinamikan parte hartzeko organoa da. (...) Kontseilu honen oinarritzako funtzioa informatzea, aholkatzea eta kontsultatzea da”.*

### Barne funtzionamendua

Txosten hau idazteko unea, 2001eko apirila, lehen lan bazkideak eta bazkide laguntzaileak onartu diren unea da. Hemendik aurrera hasiko da kooperatibaren organoetan hauen parte hartzea nabaritzen. Horrekin batera abiatuko dira bazkide

multzo bakoitzaren informazio eta aholku organoak, Erabiltzaileen Kontseilua eta Kontseilu Soziala.

Orain arte, elkarte sortzaileak bakarrik izan dira kooperatibako bazkide, eta hauek bakarrik hartu dute parte Kontseilu Errektorean. Kontseilu honek lan bikoitza izan du, alde batetik kooperatibaren sortze aldiak eskatzen zituen lanketa guztiak bultzatzea, eta bestetik, enpresaren jardun arrunta bideratzea. Bi lan hauek aurrera eramateko, Errektore Kontseilua hamabostean behingo erritmoan bildu da, egoerak abiada hori eskatzen zuelako. Eta eraginkortasun handiz egin du lan, adostasuna sortzeko gaitasun handiz. Lehenago aipatu bezala, ez du orain arte bozketa bakar bat ere behar izan, erabaki guztiak adostasunez hartu dira. Aurrerantzean, hilean behingo maiztasunez jardungo du normalean.

Enpresaren jardun arrunta Zuzendaritza Kontseiluak gobernatu du. Kontseilu hau Zuzendari Nagusiak, eta sailetako zuzendariak osatzen dute. Kooperatibako Lehendakaria ere boturik gabeko kide da, eta bere partaidetzak zubi lana egiten du Kontseilu honen eta Errektorearen artean, bien arteko sintonia bermatuz. Kontseilu hau Zuzendari Nagusiaren aholkularitzarako organo gisa definitzen dute Estatutuek, baina jarduerari buruzko erabakiak hartzeko gunea bihurtu da. Organo honek ere adostasunez hartu ditu erabakiak.

Laburbilduz, esan daiteke *Goienako* sortzaile izan diren bederatzi herrietako elkarrekin gorputz sendoa egin dutela elkarrekin eta bakarrik jardun duten denbora honetan, eta sendotasun hori izan dela kooperatibaren sorrerako oinarria. Era berean, itxaropen ona pizten du aurrerantzean bestelako bazkideekin eraiki behar den gobernu konpartituari buruz ere.

### Egitura juridiko honen etorkizuna

Sortu den egitura juridikoak balio izan du orain arteko bidea egiteko, eta balio lezake hurrengo urteetan ere, egokitzen

egokitzen, bazkide mota guztiak kooperatibara biltzen direnean. Orain arte toki hedabideetan erabili direnak baino egitura landuagoa da, zehatzagoa eta trinkoagoa, eta lehen aldiz langileei eta laguntzaileei bazkide izateko aukera ematen zaie, iritzi ezberdinen aberastasuna baliatzeaz gain, jardueraren gardentasuna eta elkarrenganako konfiantza bermatze aldera.

Hala ere, gai honetaz erabili diren legelarien txostenetan, Guillermo Ibarrondorenean eta Iñaki Lasagabasterrenean, hausnarketarako beste bide bat ere aipatzen da, zehazki kontsorzioarena. Badirudi egitura hau egokiagoa izan daitekeela erakundeetatik kooperatibara etorri beharreko diru laguntzen jariora etenik gabe eta berme osoz etor dadin.

Bi adituen artean, ordea, bada ezberdintasunik kontsorzioari buruz. Ibarrondoren txostenak kontsorzioa erakunde ezberdinen arteko bilgune moduan hartzen du, udal, aldundi eta Jaurla-ritzaren partaidetza arautzeko, besterik gabe. Lasagabasterren ikusmoldea anbiziotsuagoa da, berak uste du kontsorzioaren balioa

eskualdean dagoela, eskualdeko erakunde eta elkarteak biltzeko tresna gisa. Honelako kontsorzioa, udalen izaera publikoaren eta ekoizpen enpresaren izaera pribatuaren arteko gune publiko-pribatua litzateke. Eta diru laguntzak babesteaz aparte, bi aldeen arteko lankidetzara ondo araututako oinarri sendoaren gainean eraikitzeko aukera emango luke. Interesgarria dirudi aukera hau aztertzea.

Edonola ere, kontu hau ez da egun batetik bestera egitekoa. Lehenengo, ez dago presarik, egungo egoera ez da agian optimoa, baina bai balekoa. Diru laguntzak, erakundeek interesekotzat hartzen dituzten jarduerak sustatzeko bide arrunta dira, bai euskaingintzan eta bai beste hainbat arloetan ere. Eta bigarren, egitura berria ondo hausnartzea komeni da, aldagai bakoitzaren alde on eta txar guztiak ondo neurtzea. Izan ere, hemen asmatzen dena ez bakarrik herri komunikabideen arloan, beste jardun batzuetarako ere erabilgarri izan daiteke.

Hausnarketa hori abiatzen denean, *Goienak* azalduko ditu bere eskarmentua eta ikusmoldea.

# Finantziazioaz

## Sarrera propioen pisua

Debagoienak herri komunikabideen arloan egindako bideak bi zutabe nagusi izan ditu finantziazioari dagokionez, sarrera komertzialak eta erakundeek laguntzak, udalenak bereziki. Bi zutabe orekatu, gainera. Udalek hasieratik onartu zuten urteko gastuen zati garrantzizkoa estaliko zutela, eta elkarteek sarrera propioen kopuru handiak lortzeko erronkari ekin zioten.

Abiatzeko une hartan, udalen konpromisoa zehatza zen, eta elkarteena ikuskizun, baina laster ikusi zen hauen dirua lortzeko gaitasuna ez zela badaezpadakoa. Herri bakoitzeko prozesuaren hasieran, diru propioak eta laguntzak parekatu samar bazeuden batez beste, hamar urte geroago autofinantziazio maila % 60tik gorakoa zen, urtez urte etengabe igo ondoren. Datu hau, euskara hutsezko eta helburu ez komertzialeko jarduera batean, lorpen handitzat hartu behar da, zalantzarik barik.

Horrelako lorpena posible egin duten arrazoen artean lehena da publizitate merkatua ondo landu izana. Hasieratik, helburu profesionalekin planteatu zitzaion bezeroari toki hedabideetan publizitatea egitea, euskarria hartzaile askorengana iristen zelako eta hauen interesa bereganatzeko modukoa zelako. Agian, bezero batek baino gehiagok euskarari mesede egitearren ezarriko zuen bere iragarkia, baina 10-12 urteko kopuruak ikusita, argi dago euskarak ez daukala horrenbeste militante, horrenbeste urtez eta horrenbeste diru xahutzeko prest dagoenik. Beste zerbaitek izan du eragina, eta hori interes komertziala izan da.

Bigarren arrazoi bat, antzekoa baina ez berdina, herri hedabideetako komertzialen jarrera konformagaitza izan da, ohiko produktu eta bezeroez gain, arlo, produktu, esparru eta zerbitzu berriak jorratzera bultzatu dituen. Honi esker, salmenta komertzialen artean sarrera nagusia izan da, baina ez bakarra, etxeko euskarrietan egindako publizitatea. Guztien batura hazi egin da urtetik urtera.

Azkenik, protokoloak ohorezko hartzen duen tokian, urte luzeotako milaka bezeroren leialtasuna eta atxikimendua nabarmendu behar dira. Bakoitzak jakingo du bere kasuan zein proportziotan nahastu diren militantzia, interes komertziala eta itzala darion mezenazkoa. Baina guztien artean eman duten erantzuna eredugarria izan da, eta erabakigarria jardueraren etengabeko bilakaerarako. Bezeroei buruz zalantza gehiago egon izan balitz, ausardia urriagoa izango zen, eta emaitza pobreagoa.

## Gizarte ekimena eta erakundeek ahalmena

Aurreko atal batean aipatu da Deba-goinean eredugarri izan den aldagai bat: herri komunikabideak gizartearen ekimenez sortu ziren, baina hasieratik izan zuten udalen konpromisoa eta laguntza. Lankidetzak hau ahulagoa izan den inguruetan emaitzak eskasagoak izan dira, salbuespenik gabe.

Gizarte ekimena gidari izateak abantaila handiak ditu honelako jarduera batean. Lehenik, nabarmen, herritarren atxikimendua erraz iristen zaio gizartearen baitatik sortu den egitasmoari, eta talde profesionalak borondatezko laguntza ugari jasoko du. Honi esker, diru gastuak bestela baino txikiagoak izan ohi dira. Eta bestelako aukera hori

erakundeen gestio zuzena bada, orduan gastuak bikoiztu baino hirukoiztu ere egin daitezke.

Bestalde, gizartetik sortutako onarpen zabaleko jarduerak ondo eraman dezake hedabide guztiek jasan behar izaten duten presioa, hurbileko hedabideetan hurbilagotik egiten dena. Euskarazko herri komunika-bideak, beren oinarri soziala eta finantziabideak kontuan izanik, derrigortuta daude zintzotasunez jokatzera gai deontologiko, etiko edo politikoetan. Akats edo gehiegikeria puntualetatik aparte, ezin dute modu sistematikoan setakeriaz jokatu, herritarren onarpenik eta erakundeen laguntzarik gabe ezinezkoa zaielako epe luzeko iraupena. Presioa sentitu behar dute, presiorik ezak akaso interesik eza adieraziko luke, beste ezer baino gehiago. Presioa alde guztietatik iristen denean, orduan ari dira hedabideak ondo, guztien arreta pizten dutelako.

Bada beste kontu bat hedabideen jardueran erakundeen gaintik gizarte ekimenaren nagusitasuna aholkatzen duena, eta hau hizkuntzarena da. Euskarazko herri komunikabideetan elebakartasuna hautatu da euskararentzat mesedegarrien izan daitekeen politikatzat. Eta legeak muga zorrotzak ezartzen ditu erakundeen jardueran hizkuntza ofizialen erabilerari buruz. Udal Euskaldunen Mankomunitateak euskara hutsez lan egiteko aurkitzen dituen arazoei erreparatzea besterik ez dago. Ez dago, ordea, inongo arazorik gizarte ekimenetik sortutako hedabide elebakarrei laguntza publikoak emateko.

Aipatzekoa da, aurreko guztiaren ondoan, erakundeek ahalmen handia dutela hedabideen arloan, udalek bereziki. Indarrean dagoen legediaren arabera, hedabide zenbaiten lizentzia udalei bakarrik eman ahal zaie, nahiz eta hedabideei dagokien legedia ezinbestean aldakorra den, eta aldaketak liberalizaziora bideratuta dauden, gehien bat. Udalek badute, bestalde, azpiegiturretan erabakigarriak diren

jokamoldeak hartzeko ahalmena, uhinezko seinaleen hedapenean edo kable bidez banatuko direnetan baldintzak jarritz.

Eta ez da ahaztu behar udalen diru ahalmena. Beren aurrekontuen %1 inguru-rekin, bideragarri egin dezakete eskualdeko talde multimedia, prentsa, telebista, irrati eta interneten jardungo duena.

Zalantza barik, alde biek irabazten dute elkarlanean. Hedabideak bere aurrekontuaren zati handia estalia izango du laguntzei esker, eta horrek patxada emango dio helburuei tinko eusteko, diru estutasunak eragindako larritasunik barik. Eta udalak zerbitzu duinak eskainiko dizkie herritarrei, merkatuko prezioaren erdia baino gutxiago ordainduz, berari zuzenean zerbitzu horiek ematea kostatuko litzaiokeenaren herena bakarrik erabiliz.

Gauzak horrela, euskararen aldeko tresnek aurrera egingo badute, ezinbestekoa da gizarte ekimena eta erakundeen ahalmena ondo uztartzea, bien arteko lankidetzat tinkotzea eta balizko eraso guztietatik babestea. Eskualdeetan, hedabideen orain arteko jabeek eta udalek konfiantzazko esparruak eraiki beharra daukate, gai honetan elkarrekin aurrera egiteko, sasi guztien gaintik. Aukera ezin hobe galduko da bestela.

### **Autofinantziazioa gora**

Atzetik datorren joera da hau Debagoienean, eta ez hitzekoa, urte luzeko datuek frogatzen dutena baizik. Herri komunikabideetan, oro har, diru publiko-arena ez da errapetzat hartu, edozein unetan eta edozertarako eskura egongo dena. Diru publikoa bidezko ordainketa bezala hartu izan da, interesa duten zerbitzu duinen trukean interes komunaren arduradunek ordaintzen duten kanon egoki bezala.

*Goienak* guztiz bere egin du helburu hau, eta bi lan ildo berezi abiatu ditu. Lan komertzial ohikoari dagokionez, hedabideak bateratzeko unea baliatu du estrategia oso eta landua bultzatzeko, lehendik datozen

euskarrientzat nahiz berrientzat berbera. Estrategia berriak dakarren aldaketa nagusia, orain arte produktuetan oinarritu den lan komertziala, aurrerantzean bezeroetan zentratzea izango da. Honenbestez, kontua ez da izango, hemendik aurrera, produktuen publizitate atalak betetzeko bezeroak aurkitzea, baizik eta produktuak eta zerbitzuak sortzea bezeroaren premiak asebetetzeko. Ildo berri honek bezeroaren hurbileko ezagutza eta jarraipena eskatzen du, eta horretarako ezinbestekoa da bezero bakoitzak *Goienako* komertzial bakarra izan dezan, katalogo osoa eskura jarriko dioena. Txipa aldatzea ere eskatzen du komertzialen buruan, eta berdin lantaldearen antolaketa, tresna informatikoak, eta jarduteko ohiturak. Bezeroen publizitate premia guztiak betetzeko gai izatea da helburua, gure euskarriekin edo beste batzuentzat bitartekari izanda.

Iraultza komertzialaren bigarren ildoak, katalogoa irekitzea izan da. Produktu eta zerbitzu nagusi batzuk aurrez zehaztuta egongo dira, ohikoak izango dira, baina beste hainbat propio sor daitezke, egoera jakinen arabera. *Goienak* lantalde handia eta arlo askotan jantzia du, hedabideen ekoizpena zuzendua. Lantalde horren atal batzuk etxe barrurako zerbitzu ona emateko trebatuak daude, hala nola, sail komertziala edo arte eta diseinu saila. Sail komertziala gai bada etxeko euskarriarako publizitatea sortzeko, gai izan daiteke kanpaina oso bat sortzeko edozein bezeroentzat eta kanpaina hori kudeatzeko, etxe barruan nahiz kanpoan. Arkoren talde komertzialak, handiena bera, lau urte darama Euskal Autonomia Erkidegoko udal euskaltegien udaberriko kanpaina sortu eta kudeatzen, lehen urratsetik azkenera. Berez, *Goienako* talde komertziala, zuzendariak, bost komertzialek eta diseinatzaileak osatzen dutena, euskaraz publizitatea sortzen ohitua dagoen talderik handiena izan daiteke. Euskarazko publizitatea, zorionez, gero eta gehiago egiten da, baina asko, tamalez, itzulitakoa da, erdaraz

pentsatutakoa. Bada hemen salmentetan eragina izan behar lukeen ibilbiderik.

Beste horrenbeste esan daiteke enpresako arte eta diseinu sailari buruz. *Arrasate Press* aldizkariaren diseinu nazioartean saritua egin zuenak, edo *Goienkariaren* diseinu arrakastatsua egin duenak egin lezake hainbat diseinu-lan merkatuan lehiakor izango direnak. Eta jarrera hau zerbitzu gehiagoetara ere heda daiteke, etxe barrurako onak diren neurrian, kanpoan ere aukera izan baitezakete. Horrelakoetan beti, diru sarrera propioak ugaltzea eta handitzea izango da helburua, eta autofinantziazioan gora egitea jomuga.

### Hirugarren hanka

Esana doa bi hanka gainean dabilela *Goienaren* finantziazioa: sarrera komertzialak eta laguntzak. Bi hankaduna pertsona bada, orekan ibil daiteke. Mahaiak edo aulkiak hiru hanka behar ditu gutxienez, eta lau badira, hobe. Enpresa izanik ere, bi hanka motz gelditzen dira. Ekonomiaren ahulaldiak samur ekar lezake salmenten jaitsiera, oraindik publizitateak ordaintzen ditu eta, beste ezerk baino lehen, krisialdien ondorioak. Laguntza publikoenak ez du orain arte sasoi txarrik bizi izan, baina hainbat aldagairen mende dagoenez, ezin esan guztiz segurua denik, kopuruz edo segidaz. Horregatik, *Goienak*, bere diru orekaren bila, hirugarren hanka bat aztertzen dihardu.

Herritarrak izan daitezke finantziazioaren hirugarren hanka. Kooperatibak eskaintzen dituen produktu guztiak doan jasotzen dituzten herritarrak, hain zuzen. Gai hau jorratzeko abiatu den ikerketak ez du salmenta gordina aurreikusten. Doaneko esparrua herri komunikabideek sortu zuten eta, urte asko geroago, modako bihurtu da. Gero eta prentsa gehiago banatzen da doan, batez ere hiriburuetan. Bestalde, doanekotasunak edo antzekoek bakarrik ziurtatzen dute masibotasuna, eta hau ezinbestekoa da hizkuntza helburuak nola komertzialak betetzeko. Produktuaren doanekotasuna

ikutu gabe, banaketa pertsonalizatuarekin lotutako harpidetza edo zerbitzu trukeko bazkidetza dira aztergai dauden formulak, besteak beste. Dagokion atalean *Goienak* abian dituen ikerketak aipatuko dira luzeago, baina hemen esan behar da pertsona batek diharduela ikasturte osoan ikerketa hau

egiten, eta bere emaitzak oso esanguratsuak izan daitezkeela euskaletza guztiarentzat. Euskarazko ekoizle asko egon daiteke *Goiena* oraintxe dagoen ataka berdinean.

| GOIENAK BILTZEN DITUEN HERRIAK |          |                  |
|--------------------------------|----------|------------------|
| ■ Antzuola                     | Gipuzkoa | 1.900 bizilagun  |
| ■ Aramaio                      | Araba    | 1.450 bizilagun  |
| ■ Aretxabaleta                 | Gipuzkoa | 6.170 bizilagun  |
| ■ Arrasate                     | Gipuzkoa | 23.984 bizilagun |
| ■ Bergara                      | Gipuzkoa | 15.107 bizilagun |
| ■ Elgeta                       | Gipuzkoa | 973 bizilagun    |
| ■ Eskoriatza                   | Gipuzkoa | 3.914 bizilagun  |
| ■ Leintz-Gatzaga               | Gipuzkoa | 260 bizilagun    |
| ■ Oñati                        | Gipuzkoa | 10.744 bizilagun |

# Izaera multimediaz

## Monomediak

Toki komunikabideetan medio bakarrean jardutea izan da joerarik arruntena. Kasu gehienetan, hedabideren bat abiatu nahi zuen elkarte edo taldeak aldizkaria aukeratzen zuen. Berez, aurretik sortutako eneredu arrakastatsuak izugarri errazten zuen bidea. Gainera, informazioa emateko moldeen artean, idatzizkoa da ohikoena, jende asko da gai txukun samar idazteko. Azkenik, hedabide guztien artean prentsa da, izan, autofinantziazio mailarik altuena lortzen duen medioa. Faktore guztion eraginez, 50etik gora dira euskarazko herri prentsak eman dituen aldizkariak. Oso gutxi, ordea, baliatu dute aldizkariaren oinarria beste hedabideren bat abiatzeko.

Oso gutxi dira, era berean, prentsa ez den beste medio batean bakarrik dihardutenak. Telebistan, Oarso, Zarautz eta Xaloea aipa daitezke, nahiz eta azken honek *Irulegi Irratia* duen kide, eta *Zarautz Telebista* kable hornitzaile bat izan zuen sorreran oinarri. *Oarso Telebista* da zuzenean telebista soila sortzeko egon den ekimenik garbiena. Hala ere, arazo bat baino gehiago izan du bidean, eta egun eskualdeko beste hedabideekin elkarlana bultzatzeko bide bila dabil. Multimediaren bidean, beraz.

Irratigintzari dagokionez, irratilibreen *boom*-aren ondoren oso gutxi gelditu dira bizirik. Eta bizi direnek ere, neurri handian borondatezko pertsonen eginak direnez, ez dute etorkizun ziurrik, borondatea amaitu eta gero. Bestalde, azken udal irratien legeak udal bakoitzari aukera ematen dio irratibaten lizentzia lortzeko. Eta bazirudien aukera honek herriz herriko irratien loraldi

indartsua ekarriko zuela, baina legeak berak zuen bere baitan muga. Irratien kudeatzeari buruz, ez zuen gestio zuzena ez zen beste aukerarik onartzen, hau da, udalak derrigortuak zeuden irratia egiteko langile eta ardura guztiak hartzera. Administrazioak mehetzeko asmoz ekimen pribatuekin kontzertazioa garatzen ari den aldi honetan, oso udal gutxi nahi izan du zama berri hau bere gain hartu. Ondorioz, oso udal irratigutxi sortu da azken urteotan.

## Multimediak

Arrasaten 88an hasi zen ekimen hura izan da honetan ere aitzindari. Aldizkaria sortu eta berehala irratia abiatu nahi izan zuten. Eta irratirako baimenik ezean, aldizkaria abiatu eta hamalau hilabeteren buruan, telebista sortu zuten. Eta handik beste hiru urtera, irratia lege berria baliatuz, irratia bultzatu zuten, nahiz eta legeak berak derrigortuta, udalak zuzenean kudeatu behar izan zuen. Irratia sortu baino lehen, 92an, Arrasate Komunikabideak (Arko) izeneko elkarteak sortu zen, aldizkaria eta telebista kudeatzeko berariazko elkarteak. Proiektua aurkeztu zuenean, “euskarazko lehen toki multimedia” bezala aurkeztu zuen bere burua Arkok.

Nafarroako Bortzirietan, *Tiipi-ttapa* da talde multimediaren beste adibide bat. Lehendik zetorren literatura aldizkaria berehala igo zen herri prentsaren gurdira, eta aldizkari berria finkatu zenean, eskualdeko telebista sortu zuten. Eskualde txiki eta nekazaritza girokoan ari den talde hau, aitzindari izan da bazkide txartela edo aldizkariaren *on-line* edizioa sortzeko orduan.

**Monomediatik multimediarantz**

Euskarazko toki komunikabideen kasuan, medio bakarrean jardutea tarteko urrats gisa hartu behar da, ez jomugatzat. Hedabideon helburu komuna da hurbileko komunikazioa euskaraz garatzea, euskararentzat esparru berri eta entzutetsua irabaztearekin batera, gizartearen barne kohesioa eta komunitate zentzua bultzatuz. Helburu hori bete-betean lortzeko, toki hedabideek ahalegina egin behar dute beren esparrua guztiz betetzeko, eta esparru horretan lehenak izateko. Hori multimedia izanda bakarrik lortu ahal da.

Izan ere, multimedien teoriak dio mezu baten eragina handiagoa dela hiru mediotan behin aipatzen bada, medio berean hiru aldiz aipatuta baino. Lehenik irratian

zuzenean entzun dugun albisteak, handik gutxira telebistan ikusten badugu, eta biharamunean egunkarian irakurtzen, albisteak ontzat emango dugu. Nekezago lortzen da hori, medio bakarrean hiru aldiz emanda.

Multimedien aldeko beste puntu bat baliabideen optimizazioarena da. Iaz irakurri zen (*El País*, 2000-03-28) Estatu Batuetan *The Chicago Tribune* argitaratzen duen talde multimediak aurkikuntza izugarria egin zuela. Medio ezberdinetako erredaktoreak, bakoitza bere mediorako jarduteaz gain, talde osorako eduki hornitzaile bihurtzen baziren, sekulako aurrezte eta sinergia sortzen ziren taldearentzat, eta birmoldaketa sakona ari ziren gauzatzen aurkikuntza horretan oinarrituta. Hauek dira artikuluen zatirik esanguratsuenak:

## **“Tribune” taldeak “Los Angeles Times”era zabalduko du informazioa partekatzeko sistema**

*Editore eta erreportari komunak prentsa, irrati, telebista eta Interneteko hedabideetan*

ROSA TOWNSEND (Miami). Kazetaritzaren atal berria ari da idazten Estatu Batuetako hainbat talde multimediatan. Bere funtsa erredaktorea “eduki hornitzaile” bihurtzean datza, enpresak albisteak hedatzeko dituen hedabide guztien hornitzaile izateko: egunkari, telebista, irrati eta Internet. *Tribune* taldea izan da sistema hau goi mailan ezartzen aitzindaria. Talde hau lau egunkariren jabe da —hauen artean, *The Chicago Tribune*— eta egin duen apustu honi esker, *Los Angeles Times* eta bere katea osoa erosi ahal izan du, 1,1 bilioi pezetaren truke.

Sinergia, edo “multimedia kazetaritza” honela lortzen da: egunkariko erredaktore batek informazioa eskuratzen du eta, hurrengo eguneko edizioan argitaratuko dena prestatu baino lehen, behin —edo eguneratutako bertsio gehiago— idatziko du Interneteko edizioan, eta gertatutakoa azalduko du enpresaren telebista edo irrati kateetan. Berdin gertatuko da albisteak lortu duena telebistako edo irratiko erreportaria bada. Argazkilariei bideo kamerak eraman ditzatela eskatzen zaie.

(...) Sinergiak irauli egin ditu *Tribune* taldeko hiru egunkari: *The Chicago Tribune* (632.000 ale egunero eta milioi bat igandeetan), *The Orlando Sentinel* (262.000 egunero eta 380.000 igandeetan) eta ez horrenbeste *The Sun Sentinel* (258.000 egunero eta 370.000 igandeetan). Eta ez da lan sistema aldatu, soilik, idazgelen itxura bera ere bai, hauen erdian telebista-irratiko miniestudio bat ezarri da-eta, zuzeneko emisioak egiteko. Mila kazetari baino gehiago dituen *Chicago Tribune* egunkarian gelak egokitu egin dira, editatzaileak eta erreportariak telebistako eta irratiko lankideekin batera jardun daitezela. (...)

“Tribune” moduko talde handi batek agian txiripaz edo ikerketa sakonei esker egingo du aurkikuntza hori. Multimedia txiki batek begien aurrean du optimizazioarena. Herriko aldizkaria eta eskualdeko telebista bakoitza bere aldetik badabiltza, ekitaldi batera erredaktore bana bidali beharko dute, kameralaria eta, agian argazkilariarekin batera. Talde bereko bi medio izanik, erredaktore bakarrak jasoko du informazioa bi medioetarako, eta kameralariak egin lezake argazkilariarena ere.

Eta honek berdin balio du bi medio baino gehiago badira ere. Eduki hornitzaileak eramandako informazioa, gero medio bakoitzeko erredaktoreak egokitu beharko du mediorako, baina pertsona bakarrak egin du bestela hiru edo laurekin egingo zena. Zenbat eta medio gehiago, orduan eta ekonomia handiagoak.

Bada azken puntu bat, euskarazko hedabide lokalen kasuan, multimedien aldekoa. Indarrarena, hain zuzen. Komunizazioaren esparruan interes ekonomiko eta politiko handiak daude, eta lehiakideak gero eta indartsuagoak dira. Lehian irabazteko, edo gutxienez irauteko, indarra behar da. Eta handien aurrean, txikien indarra batasuna da, elkartasuna eta herritarren atxikimendua. Bakarka, jai.

### **Eskualdeko multimediak**

Lehen *Arko* eta gero *Ttapi-ttapa* baziren multimediak, eta bigarrena euskaldekoea ere bai. Orain *Goienak* eredu hori landu eta bultzatu egin du. Eta Topagunean biltzen diren hedabideak, gehienak aldizkariak, adi jarri dira. Bilakaera hau izan daiteke guztientzat etorkizuna ziurtatzeko bidea.

Eskualdea neurri egokia da hainbat jardunetarako, hauen artean hedabideena. Egia da Euskal Herriko eskualdeak oso ezberdinak direla eta batzuk ez daudela oso ondo bereiztuta edo finkatuta. Hala ere, eskualdeen suspertze prozesua nabari da hainbat ingurutan, zenbait jarduera eta ekimen herrien mugak gainditzen hasi direnean. Lurralde antolamenduan adituek unitate egokitzat jotzen dute 50.000 eta 100.000 biztanle arteko komunitatea, baldin eta homogeneitate, batasun funtzional eta beste parametro batzuk ere egokiak badira. Egungo eskualde asko sartzen dira biztanle tarte horretan.

Ona litzateke herri hedabideak eskualdeka bateratzen hastea. Zailtasunak izango dituzte, baina zailtasunak gainditzeko ahaleginean indartu egingo dira. Medio ezberdinetakorik balego, berehala has daitezke multimedien abantailak frogatzen. Bestela, denak medio bakarrean ari badira, lehenbizi jarduera hori tinkotu eta elementu komunak sortzea komeniko zaie, eta gero beste medioetarako estrategia prestatzeko ordua etorriko da.

Tokian tokiko errealitateari egokitu beharko da bilakaera, ez dago formula bakarrik. Hori bai, elkarren berri ahalik eta gehien jakitea komeni da, hankasartzeak eta akatsak ez errepikatze aldera. Topagunea eta administrazioen arteko lankidetzak oso eragingarria izango litzateke, ikuspegi eta interes orokorrak ondo ezkon daitezen partikularrekin.

# Kanpo harremanak

*Goiena* eskualdeko egitasmo gisa sortu zen, eta ez du inoiz eskualdez kanpo hedatzeko asmorik izan. Hori argi esan eta gero, tamaina bertsuan esan daiteke *Goienak* ahalegin handia egin duela kanpoko hedabide, erakunde eta eragileekin, bere kezkak, diagnostikoa eta egitasmoa azaltzeko. Helburua, sintoniak sortzea izan da eta bilakaera orokor bat abiatzea, honek komunikazioaren euskal esparruaren plangintza ekar zezan eta, bidez batez, *Goiena* bera garatzeko egokiera hobea.

## Hedabideekin

Horizontalean, *Goienak* harreman estua izan du euskarazko herri prentsa gehiena biltzen duen Topagunearekin, eta baita euskarazko herri telebistekin. Topagunearen Komunikabideetako Batzordean *Goienak* ordezkatu ditu Debagoieneko hedabide guztiak, eta batzorde honen bidez zabaldu ditu bere kezkak eta proposamenak herri aldizkarien artean. Batzordea bera eta Topagunea bere osotasunean dinamika berri baten hastapenetan zeuden, eta sintonia handia egon da eskualdeko eta nazioko bi egituren artean. Elkarlanean bakoitzak hartu dituen funtzioak ere osagarri agertu dira: *Goienarena* aitzindari lana izango zen, norabidea igerri eta bidezidorra irekitzeko ahalegina, eta Topagunea, ondoan, bidezidor hori ibilbide zabal bihurtzen saiatuko zen, bere baitako hedabide guztientzat erabilgarri izan zedin. Urte t'erdi inguruko lankidetza hau alde bientzat suertatu da onuragarri.

Euskarazko herri telebistekin ere harremana estutu egin du *Goienak*. Hurbilen zeukan *Tipi-ttapa Telebista*, hau ere Topagunean kide, eta ekimen zehatzetan hurbilduz joan da gainontzeko taldea,

jardueran dauden telebistak eta abiatzeko asmoa aurreratua dutenekin sortu dena. Oarsoaldeko *Oarso* eta Baztango *Xaloe* dira, Bortzirietako *Tipi-ttapa* eta Debagoieneko *Goienarekin* bateratsu ari diren toki telebistak. Lau hauek dira, hain justu, ETB1eko “Bertatik Bertara” saioan astero toki telebisten zapping-ean agertzen direnak. *Zarautz Telebistaren* arrastorik ez da aspaldian izan eta, aldiz, telebista nahia duten bi eskualdetako ordezkariak ere taldera hurbildu dira, Durangaldekoak eta Tolosaldekoak.

Sakabanatuta dauden arren, talde honetako kideek urrats batzuk egin dituzte aurrerantzean elkarlana ekar dezaketena. Bide horretan elkarrenganako konfiantza sortuz joan da, eta aldi berean Topaguneako Komunikabideetako Batzordeak lehen aipatutako dinamizazioa bizi izan du. Bi eragin hauen ondorioz, toki telebisten taldeak bere kideen arteko elkarlana Topagunearen baitan garatzea erabaki zuen, eta federazioari proposamen hori egin zion. Formalidade batzuk gora-behera, lehen aldizkarien bilgune zen Topagunea, aurrerantzean telebistena ere izango da.

Euskal Telebistarekin ere harreman ugari izan du *Goienak*, eta gai bat baino gehiago jorratu da harreman horietan. Arduradun teknikoekin, ETBren digitalizazioak libratuko zituen baliabideei probetxu ateratzeko aukerak aztertu dira. Hain zuzen, eskualdeko telebista berriak sortzeko estrategia bultzatzeko, oso lagungarri izan zitekeen ETBk amortizatutako tresneria telebista horien lehen txanparako erabiltzea, hauen abiatzea errazte aldera, eta bide batez, tresnen hondar balioa agortu arte

erabiltzeko. Gai honetan borondate ona agertu izan da, eta EITBren Plan Estrategikoan espreski aipatzen da aukera hau. Baina oraingoz, gaiak ez du aurrera egin.

Aldiz, azken urtean areagotu egin da eguneroko lankidetzak ETB eta GOITBren artean. Irudi ugari mugitzen da batetik bestera eta bestetik batera. Ia egunero dago mugimenduren bat eta ohitura sortzen ari da. GOITBri dagokionez, ETBren aurrean bere profesionaltasuna erakutsi duela esan

daiteke, eta honek aurrera begirako lankidetzak estuagoak ahalbide ditzake.

Hirugarren ildo batean ere saiatu da *Goiena* ETBekin. Hain zuzen, telebista publikoa bere Plan Estrategikoa mamitzen ari zenean, etorkizuneko seinale ugaritasunean euskarazko kateak ugaltzeko formula erraza eta merkea eskaini zion, ondoko dokumentuan jasotzen dena.

#### GOIENAKO ELKARTE SORTZAILEAK: 3.000 BAZKIDE

|              |                |
|--------------|----------------|
| ■ Arko       | Arrasate       |
| ■ Axtroki    | Eskoriatza     |
| ■ Goibeko    | Elgeta         |
| ■ Gurel      | Leintz-Gatzaga |
| ■ Idolaz     | Antzuola       |
| ■ Jardun     | Bergara        |
| ■ Laixan     | Oñati          |
| ■ Loramendi  | Aretxabaleta   |
| ■ Txirritola | Aramaio        |

## *Euskarazko Telebista Sarea: ekintza plana*

Mikel Irizar  
1999ko azaroa

### **Zer datorren**

Sateliteek, kableek eta sare informatikoez zeharo aldatuko dute ikus-entzunezkoen panorama. Telebista seinaleak modu esponentzian biderkatuko dira datozen urteotan. Katea orokorrak, segmentatuak edo hurbilekoak, helburu komertzialetan edo politikoz bultzatutakoak iritsiko dira laster, uholdeka.

ETB1-en lanari esker, euskarak nabarmen egin du telebistan aurrera, mediorako hizkera eta estilo egokia sortuz, euskal hiztunentzat erreferentzia bilakatu arte. Tamalez, beste telebista orokorretan ez da urratsik egin norabide horretan, eta euskarak gaur duen kuota apala da.

Kuota hori, hala ere, galdu egin daiteke datorren uholdean, euskarazko seinale berriak sortzeko plan trinkoa prestatzen ez bada. Edo euskarak hiritarengan duen eraginkortasuna baliatuz, telebista sare zabal eta indartsua sortzen ez bada. Bigarren hau da idazki honen abiapuntua.

### **Zer egin**

Landareek bezala, ETBk indartzeko duen bide bat sustraiak luzatzea da. Nazioarteko informazioan bat gehiago da, eta txikia. Nazionalean, lehena izateko lehia gogorra irabazi behar du aldioro. Herriz herrikoan, aldiz, bakarria izan daiteke, inor iritsiko ez den tokian ere ordezkariak izango lituzkeelako.

Herri edo eskualde telebisten sare bat osatu beharko litzateke, euskararen inguruan biltzen den indarra baliatuz. Telebista hauek berriemaile lana egingo lukete ETBrentzat, eta gainera bakoitzak bere programazioa landuko luke. Audientzien kontrolean **ETB Taldea** erabiliko litzateke marka gisa, datuetan kenketak egin ordez batuketak egin ahal izateko.

Idea honen alde zenbait faktore dago:

- Administrazioetan, oro har, aldeko jarrera dago gai honi buruz eta Euskara Biziberritzeko Planean estrategikotzat jotzen da.
- Herri telebistak sortzeko gogoia berpizten ari da eta lehendik daudenetan susperraldia nabari da.
- ETBren digitalizazioak tresneria ugari libratuko du, herri telebistak sortzera bidera daitekeena.

### **Nola egin**

Plana zehazteko lehen lana da balizko telebisten mapa egitea. Kasu gehienetan, Eusko Jaurlaritzaren esparru funtzionalak izan daitezke abiapuntu.

Bigarrena, esparru bakoitzean modulu bat antolatzea. Modulu honek bi osagarri izango lituzke. Telebista kudeatuko duen enpresa bat, beste hedabide batzuk ere gara ditzakeena, eta enpresa horren bultzatzaile eta bideratzaile izango diren giza elkarteak. Enpresa egiturak emango lituzke eraginkortasuna

*Eusko Jaurlaritzak  
deiseinatuko luke  
Euskarazko  
Telebista Sarea  
sortzeko ekintza  
plana.*

eta profesionaltasuna, eta elkarteen izaera sozialak bilduko lituzke erakundeen eta hiritarren laguntzak.

Azkenik, ETBk eskainiko luke libratzen duen tresneria eta laguntza teknikoa, eta trukean jasoko luke korrespontsaritza zerbitzua. Telebistak bere esparrurako ematen duen zerbitzuaren kostua udalen diru laguntzaz eta diru iturri propioekin estaliko litzateke.

Jaurlaritzak diseinatuko luke ekintza plana, baldintzak finkatu eta moduluak zehaztu. Bere ardura litzateke, baita ere, beste partaideak (aldundiak, udalak eta ETB) inplikatzeari, eta gero gauzatze prozesua gainbegiratzeari.

Aldundiei legokieke moduluen sorrera bultzatzea. Enpresa diren heinean, enpresen sorrerarako laguntzak bideratuz, eta euskara elkarte diren aldetik, laguntza bereziak sortuz.

Esparru bakoitzeko udalek zainduko dute elkarteak eta enpresaren jarduerak, urtez urteko hitzarmena baliatuz.

#### **Adibide bat**

Debagoienean (lehen Deba Garaia) mamitzen ari da eredu izan daitekeen egitasmo bat. *Goiena* du izena eta euskara elkarteek sortutako kooperatiba izango da. Hamar urte betetzear dagoen *Arrasate Telebista* eraldatuz, hura ordezkatzeko duen GOITB sortuko du, eskualde osoan hedatuko den telebista. ATBtik jasoko dituen eginkizunen artean ETBrentzat agentzia lana egitearena dago, elkarlanean egin daitekeen bidean lehen urrats gisa.

Dokumentu honek, eta bere aldeko ahaleginak ez du erantzun zehatzik jaso ETBren aldetik.

Hedabideekiko harreman bertikaletan, hau da hedabide orokorrekin izandakoetan, *Euskaldunon Egunkariarekin* izandakoa ere aipatu beharrekoa da. Harreman honetan, elkarlanerako esparru balizkoak aztertu dira. *Euskaldunon Egunkariak*, aurrera begira, informazio lokalaren esparruan jarduteko asmoa du, norabide horretan ikusten du bere bilakaeraren zati handia. Eta prest agertu da tokiko hedabideekin formula bateratuak eta berriak aztertzeke. *Goienak* ere interesa du lankidetzaz horretan, prentsan egunero jarduteko bokazioa duelako, eta euskarazko hedabideekin sarean jarduteko borondatea. Hala ere, *Euskaldunon Egunkaria* astean sei eguneko produktua da eta *Goienak* astean behingoa, eskualdean hau masiboa da eta hura hedapen txikikoa... Ez da erraza izango bi errealitate hauek ezkonduko dituen formula aurkitzea, baina ahalegina egingo da.

### Erakundeekin

Harreman hauek azaltzerakoan, has gaitezen eskualdeko udaletatik. Berez, *Goienaren* filosofiaren arabera, hauek ez lirateke izan behar “kanpo” harremanak, udalak barruko bazkide hartzen ditu-eta egitasmoak. Hala ere, kooperatibaren sorrera elkarleen artean mamitu eta gauzatu denez, aldi honetarako bakarrik eta behin behinekoz kokatu dira udalekikoak kanpo harremanen artean.

Egitasmoa elkarleen artean adostu bezain laster aurkeztu zitzaizen eskualdeko udalei, 99ko azaroan hasita. Lehen errondako azken aurkezpenak 2000ko urtarrilean egin ziren. Oro har, arretaz eta aldeko jarreraz hartu zen egitasmoa. Egoerarik korapilatsuena Oñatiko Udalean agertu zen, izan ere, herriko bi hedabideak —aldizkaria eta irratia— Udalak berak sortuak ziren, eta berak kudeatzen zituen. Horrez gain, hasieran emandako informazio okerren

batzuk medio, eta gerora abiatutako hausnarketaren bat dela-eta, udal batzuen erantzuna atzeratu egin da. Era berean, uste izatekoa da egoera politikoak izan duen txarrerako bilakaerak ez diola mesederik egin egoera honi. Kontua da, une honetan sei udalek eman diotela erabateko baietza *Goienari*, eta beste hirurek oraindik ez, nahiz eta hauen baietza gero eta hurbilago ikusten den.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirola Sailarekiko harremana goiz hasi zen eta sendoa izan da. Lehen unetik harrera ona egin zioten egitasmoari, eta *Goienan* eredu bat ikusi zuten Gipuzkoako beste eskualdeetan egin zitekeenerako. Bide honetan, Gipuzkoarako plan orokor baten zirriborroak eskatu zituzten, horietako bat *Goienari*, nahiz eta gero plana albora geratu zen. Urte amaierarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta *Goienak* hitzarmena sinatu zuten, eta hitzarmen haren ondorio da txosten hau. Diputazioak diru laguntza emango zion kooperatibari, honek sorreran izandako eskarmentua aldundiaren esku jar zezan.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza ere izan du *Goienak* solaskide eta laguntzaile. Hemen ere arreta handiz hartu ziren emandako azalpenak eta, une batez, hitzarmenaren aukera aztertu zen, lankidetzaz lotzeko formula gisa. Azkenean, deialdien bitartez bideratu dira diru laguntzak, eta aipatzekoa da horien zati handia telebistarako etorri dela, HPS iaz hasi baitzen —eta aurten jarraitu du— herri telebistak hedabideen deialdian sartzen.

### Bestelakoekin

Aipatutakoez gain, beste zenbait harreman ere izan du *Goienak* gizarte eragile, alderdi politiko eta enpresekin, beti ere onarpen ahalik eta zabalenaren bila. Denak ezin eta, aipatzekoa da Debagoieneko kooperatiba taldearekin lankidetzaz

finkatzeko abiatu den prozesua. Bitariko kooperatibak aurrez ikusten ditu bazkide laguntzaileen artean enpresak eta, dudarik ez, eskualdeko talde handiko zutabeek izango lukete lehentasuna. Baina, gainera, kooperatiben taldean ere nabarmen ageri dira eskualdearekiko harremana estutzeko joerak, eta horretarako *Goiena* tresna oso egokitzat ikusten dute. Prozesua abiatu besterik ez da egin baina, ondo burutuko balitz, erabat sendotuko luke *Goienaren* etorkizuna.

Harreman asko landu da, azalpen asko eman, iritzi asko entzun. Kasu batzuetan, emaitza praktikoak iritsi dira. Bestetzueta, iristear daude. Edo ez. Beti, ordea, harrera abegitsua eta errespetuzkoa egin zaio *Goienari*. Horren lekuko, 2001eko martxoaren 31n, kooperatibaren aurkezpen ekitaldira bildu zen lagun talde ugaria, askotarikoa eta pisuzkoa. Ondo egindako lanaren emaitza izango zen, seguruenik. Hala ere, bihotzez eskertzekoa izan zen erantzun hura.

### GOIENAK JENDE ASKOREKIN IZAN DITU HARREMANAK

- Topagunearekin: euskara elkarte eta herri aldizkari gehienak biltzen ditu.
- Euskarazko herri telebistekin: Ttipi-ttapa, Oarso, Xaloe, Zarautz...
- EITB taldearekin: batik bat telebistaren arloan.
- Euskaldunon Egunkariarekin: Euskal Herriko euskarazko egunkari bakarra.
- Herri erakundeekin: udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza.
- Enpresa eta erakunde pribatuekin: Mondragon Unibertsitatea eta kooperatibak.
- Gizarte eragileekin: alderdi politikoak, enpresak eta bestelako elkarteekin.

# Goiena 2001

## Bateratu eta gero

2000. urtean egindako bateratze lanak, besteak beste, elkarrenganako konfiantza sendotu zuen, eta honek ekarri zuen hurrengo urratsa, *Goienaren* historia laburrean mugarri izan dena. Urrats hori, elkarteek sortu eta ordura arte kudeatutako hedabide guztiak kooperatibaren esku uztea izan zen. Egia da elkarte zenbaitek bazuela nahikoa lan bere hedabidearen jarduera txukun eramateko. Baina, hala ere, balio handia du izerdiz eta nekez garatutako hedabide kuttuna inoren esku uzte horrek.

## Lantaldea eta aurrekontua

Hedabideen ekoizpena eskuz aldatzearen ondorioz, langile guztiak *Goienaren*ak bihurtu dira, eta une honetan kooperatibak 40 laguneko lantaldea du. Talde honetan, lehengo lanpostu guztiak mantendu dira, eta lanpostu bakoitzak bere elkartean zituen gutxieneko ezaugarriak errespetatu. Lan egoerak ezberdinak ziren elkarte batetik bestera, eta bateratzeko orduan parametrorik onenak hartu dira arau berrietan ezartzeko. Horrela, lan egutegia, ordutegia, soldatak, oporrak eta beste hainbat irizpide finkatu dira edo finkatzeko bidean jarri. Esan daiteke, oro har, inork gutxi galdu duela ezer eta, aldiz, guztiek irabazi dutela zerbait. Gehienek, asko.

Bateratu den beste arlo garrantzitsua diru kontuena da. Hemen ere egoera ezberdinak zeuden, hedabidetik hedabidera, gauzak egiteko ohiturak eta moldeak bereziak zirelako. Hala ere, *Goienak* 2001erako prestatu zuen aurrekontuak bere baitan hartzen zuen elkarteen hedabide guztien ekoizpena. Aurrekontu hori prestatu zenean, artean hainbat kontu erabaki gabe

zegoenez, aukera gehien zuten hipotesiak hartu ziren oinarri, eta bakoitzaren eragina neurtu egin zen. Horrela, hipotesi horietako bat ezeztatuko balitz, aurrez ikusita dago zein izango den bere eragina aurrekontuan.

Aurrekontua egiterakoan, bestalde, gastuen ataletan eskuzabal jokatu zen, garatze egoerak lasaiera tarteak eskatzen dituela pentsatuta. Bestalde, kooperatibak behar dituen inbertsioei bere baliabideekin aurre egingo diela erabaki zenez, urteko amortizazio kopurua ere ezarri zen. Kopuru hori zehazteko, kontuan izan da *Goienak* 50 milioi inguruko ibilgetua izango duela tresnetan eta tresna horien bizi iraupena, batez beste, 5 urtekoa izango dela. Honekin guztiarekin, 2001eko aurrekontua 235 milioi ingurukoa da, gastuen atalean.

Diru sarreretan, aldiz, zuhur jokatu da, seguru samar diren partidak bakarrik sartuz. Sarrera komertzialetan ez da aurreikusi *Goienaren* sorrerak eta produktu berriek sekulako ondorioa izango dutenik. Anbizio handiko estrategia komertziala prestatu da, eta etekinik onenak ateratzeko ahalegina egingo den arren, aurrekontuan agertzen den fakturazio kopurua orain artekoen batura da eta gutxi gehiago. Diru laguntzetan ere, urtez urteko laguntza arruntak kontatu dira, baina ez berezirik. Hala ere, gastuak estaltzeko adina sarrera espero da.

Argigarri delakoan, 2000ko memoria eta 2001eko aurreikuspena jasotzen duen dokumentua doa segidan.

## Goiena 2000-2001

Goiena | Atarikoa  
2001eko urtarila

Orain urtebete, egitasmo zen oraindik *Goiena*, ez genekien orduan non egongo ginen gaur. Eta gaur, egindako urrats guztien ondorio den 2001erako Gestio Plan bateratua dagoeneko adostua dugu. Egitasmoa kooperatiba bihurtu da, kooperatiba berria, nahiz eta baduen iraganik. Sortzaileen hedabideek ematen duten eskarmentuak ez du, ordea, erabateko argitasunik eskaintzen etorkizunaz hausnartzerakoan.

2001eko Gestio Plana bateratze prozesua bete-betean dagoenean egin behar izan da. Izan ere, oraintxe ari da kooperatibako lantaldea osatzen, produktu berrien bidea hasten eta, lehengoa batuz, hurrengo hilabeteetako bilakaera zirriborratzen. Eta iragana baduen arren, kooperatibak ez du Gestio Plana egiteko historiari. Zeren *Goiena* ez baita lehengo batura bakarrik, osagai berri asko ditu, pertsona, produktu, antolaketa, baliabideetan.

Egoera honetan, ahalegina egin da arduradunen aldetik, datorrena igartzeko. Ekinez ikasten da, ekinez da historia egiten. Eta historiak ematen du Gestio Planerako eta epe luzeko plangintzarako oinarria.

Datorren urtean hobeto, urtebete luzeko historia batuari esker.

### Kooperatibaren nortasun ezaugarriak

#### *Jatorria*

*Goiena* Komunikazio Zerbitzuak Koop. E., Debagoieneko bederatzi herrietako beste horrenbeste elkarte sortutako enpresa da. Antzuolako Idolaz, Aramaioko Txirritola, Aretxabaletako Loramendi, Arrasateko Arko, Bergarako Jardun, Elgetako Goibeko, Eskoriatzako Axtroki, Gatzagako Gurel eta Oñatiko Laixan dira herriz herriko elkarteak. Bakoitza bere aldetik jardunaz, *Kontuola*, *Aretxagazeta*, *Arrasate Press*, *Berrigara*, *Goibeko*, eta *Ze barri?* aldizkariak, eta Aretxabaleta eta Arrasateko telebistak sortu eta kudeatzeko gai izan direnak. Orain, etorkizunari indartsu aurre egiteko, kooperatiba bat sortu dute, komunikabide hauek bateratzeko eta falta diren atalak garatzeko.

#### *Helburua*

*Goiena* sortu duten elkarteek hedabideak garatzeko orduan izan zuten helburua, hurbileko informazioa euskaraz garatzea izan zen, gizarte kohesioaren alde eginaz euskararentzat esparru moderno eta prestijioetsua irabazteko. *Goienak* bere egiten du helburu hori, eta horrela, kooperatibaren zeregina Debagoieneko biztanle multzoa komunitate trinko eta moderno bihurtzen laguntzea litzateke, non gizartearen nortasun ezaugarri baliagarrienak, eta bereziki euskara, elementu bizi eta jardun ardatz izango diren.

*Mundu zabalarekin  
bezainbat lotuak  
behar dugu egon  
inguru hurbilarekin,  
oreka galduko  
ez badugu.*

### **Diagnostikoa**

Informazioaren Gizartea badator, kablez, uhinez, satelitez eta zuntzez betea. Bide horietatik guztietatik seinaleak datoz, informazioa, entretenimendua, zerbitzuak, loturak. Mundu zabaletik etorriko zaigu uholdea, seinale asko iritsiko da gurera, baina hemengo kontuez gutxi, eta hemengo hizkuntzan, gutxiago. Uholdea datorrenean, ondo errotuta gauden neurrian bakarrik iraungo dugu gizatalde moduan, gure barnegiturak trinkoak badira eutsiko diogu uniformismoaren indarrari. Mundu zabalarekin bezainbat lotuak behar dugu egon inguru hurbilarekin, oreka galduko ez badugu. Eta horretarako, ezinbestekoa dugu geure komunikazio tresnak sortzea, indartzea eta eragingarri bihurtzea. Elkarren berri dugun neurrian izango gara elkarkide.

### **Izaera juridikoa**

Goiena bitariko kooperatiba da legez, 2000ko ekainean sortua. Bazkide sortzaile izan dira lehen aipaturiko bederatzi elkarteak. Estatutuetan aurreikusita dago erakunde edo enpresekin lankidetzat hitzarmenak sinatzen diren neurrian, hauek bazkide laguntzaile bihurtzeko aukera izango dutela, eta kooperatibak lan kontratuak egin ahala, lan bazkideak ere izango dituela. Bazkide multzo bakoitzak organoetan izango duen ordezkapena honela finkatu da estatutuetan.

### **Ordezkaritza Goienaren aginte organoetan**

|                              |                     |    |
|------------------------------|---------------------|----|
| <b>Batzar orokorra:</b>      | elkarteak .....     | 27 |
| (52 kide)                    | laguntzaileak ..... | 14 |
|                              | udalak .....        | 9  |
|                              | enpresak .....      | 5  |
|                              | langileak .....     | 10 |
|                              | bestelakoak .....   | 1  |
| <b>Kontseilu Errektorea:</b> | elkarteak .....     | 7  |
| (11 kide)                    | laguntzaileak ..... | 2  |
|                              | langileak .....     | 2  |

Antolaketa honekin multzo guztien arteko oreka gorde nahi izan da, beti ere elkarteen gehiengoa gordez. Hauek, izaeraz kultura elkarte izanik, eta 3.000 bazkide biltzen dutenez, inork baino hobeto berma dezakete kooperatibaren jardura ez dela sorrerako helburuetatik desbideratuko.

### **Eginkizunak eta baloreak**

Hasierako egitasmoa oinarri, eta egindako bidea gidari, honako hauek dira Goienak bere jarduerari ezarri nahi dizkion ezaugarriak:

- Hizkuntza normalkuntzarako tresna izatea, euskaraz jardunez herritarren eleaniztasuna bultzatuko duena.
- Debagoiena eskualdearen gizarte kohesioa eta komunitate zentzua indartzen laguntzea, nortasun kolektiboaren ezaugarriak gerora daitezen.

*Egun, GOITB da  
eskualdeko  
informazio gehien  
eta onena  
duen hedabidea,  
eta erreferentzia  
bihurtu da.*

- Informazioaren Gizarteak ekarriko duen antolaketa berrian, informazioa herritar guztien esku jartzea, aukera berdintasuna bermatzeko.
- Kooperatibako langile edo laguntzaile, eta gizarteko talde edo eragileen partaidetza sustatzea, *Goiena* guztiona den neurrian, ezingo delako inorena izan.
- Baliabide eta diru sarrera propioak garatzea, kudeaketa eraginkorrena medio, autofinantziazio mailarik ahalik eta gorena lortzeko.
- Erakundeekin lankidetzan jardutea, hitzarmenak tarteko, informazioaren gardentasuna eta elkarrenganako errespetua oinarri.
- Helburu komunak dituzten beste ekimenekin eta arlo ezberdinetako euskal hedabideekin lankidetzan finkatzea eta sareak eraikitzea.

## **2000. urteko memoria**

Amaitu berri den urtea, sustatze aldia izan da *Goienarentzat*. Ez izatetik izatera dagoen bidea egin du, eta aparte zeudenak bateratu, egitasmoak zehaztu, eredua landu, eta produktuak prestatu. Ekoizpena maiztzean hasi zen, telebistarekin, eta abenduan indartu, *Goienkariarekin*. Hauek izan dira mugarri nagusiak:

- Ekainean legez eratu ondoren, bazkide erabiltzaileen ekimenez egin du kooperatibak aurrera. Oraindik ez du bestelako bazkiderik, baina badatoz, bai bazkide laguntzaileak eta bai lan bazkideak. Oinarri batzuk finkatu dira soldata, kontratazio eta barne araudiari buruz, eta falta dena lantzen ari da.
- Herriz herriko hedabideetan zeuden lantaldeen bateratzea bultzatu da. *Goienak* bere langile batzuk hartu ditu, eta orain ekoizpenerako kontratuak ari da hitzartzen elkarrekin. Urtea hasi orduko, elkarerik handienak, Arrasateko Arkok, utzi du bere ekoizpen guztia eta lantaldea *Goienaren* esku, eta bide berean dira Bergarako Jardun, Aretxabaletako Loramendi eta gainontzekoak.
- Erakundeekiko harremanetan, ezin izan da guztiekin etorkizuneko lankidetzan lotu, batzuk hausnarketan dihardute. Hala ere, ohiko deialdietatik kanpoko 28 milioi iritsi dira HPS eta Gipuzkoako Foru Aldunditik, eta horri esker sustatze aldia sano bukatu da, zulorik egin gabe. Eskualdeko udaletan, sei bildu dira *Goienara*. Beste hirurak —Bergara, Elgeta eta Oñati— hausnarketaren ondorioen zain daude eta ez dute oraindik erabakirik hartu.
- Zerbitzu orokorretan trantsizioa kudeatzea izan da lanik handiena, ia bakarra. Beste sailek propio hartzen ez dituzten lan guztien saila da hau, eta iazko urtean lan bereziak asko izan dira, bai egituraketan, antolaketan, edo gainbegiraketan. Baliabide urriak dituen saila da gainkargari erantzuteko, eta giltzarri ere badenez, estutasunak sortu izan ditu enpresaren jardueran.
- Telebista garatu egin da 2000. urtean. Eskualdean jarduteak lantaldea handitzea ekarri du eta erredakzioa sendotzea. Informazioa jorratzeko ohiturak aldatu egin dira, eta albisteen bila joateko jarrera hartu da. Egun, GOITB da eskualdeko informazio gehien eta onena duen hedabidea, eta erreferentzia bihurtu da. Hausnarketa ere egin da telebistaren bilakaeraz, eta ildo nagusiak finkatu dira.
- Prentsari, hausnarketan eman da denbora luzea, hainbat ikuspegi bateratu ahal izateko. Bilakaeraren ildo nagusiak eta egutegia adostuta gelditu dira. Eta adostasunaren ondorioz, *Goienkariaren* atal komuna sortu da, arrakastaz sortu

*Goienkariak  
salmenta ona  
izan du lehen  
aleetan.  
Orain arte ikusi ez  
diren iragarleak  
erakartzen ari da.*

ere. Aldi berean, balizko egunkarirako ezinbestekoak izango diren banaketa eta finantziatziorako ikerketak Saiolanekin batera abiatu dira.

- Sail komertzialean, zuzendaria kontratatu da, konberjentzian urratsak egin eta aukera berriak lantzen hasteko. *Goienkariak* salmenta ona izan du lehen aleetan, eta lantalde komertzial bateratuak beharko dituen tresna printzipalenak prest daude.

- Azkenik, eta arlo berriei dagokienez, interneterako egitasmoa zirriboratu da, eta “e-gune” egitasmoa aurkeztu, onartua izaten bada, ondorengo bidea han egin dezan. Irratiarena ez da iaz bereziki landu, baina udaberrian Arko *Arrasate Irratia* kudeatzen hasi zen, eta gero *Goienak* hartu du ardura hori.

## 2000. urteko diru kontuak

| <b>Gastuak</b>                 | <b>milakoetan</b> |
|--------------------------------|-------------------|
| Pertsonal gastuak .....        | 20.431            |
| Erosketak .....                | 1.396             |
| Moldiztegia .....              | 1.712             |
| Funtzionamendua .....          | 6.921             |
| Gastu finantzarioak .....      | 130               |
| Beste batzuk .....             | 2.719             |
| Gastuak, guztira .....         | 33.309            |
| <b>Sarrerak</b>                | <b>milakoetan</b> |
| Komertzialak .....             | 6.842             |
| Arrasateko Udala .....         | 12.623            |
| Aretxabaletako Udala .....     | 3.208             |
| Eskoriatzako Udala .....       | 1.500             |
| Leintz-Gatzagako Udala .....   | 198               |
| Aramaioko Udala .....          | 990               |
| Gipuzkoako Foru Aldundia ..... | 1.820             |
| Eusko Jaurlaritza .....        | 5.690             |
| Sarrerak, guztira .....        | 32.871            |
| <b>Emaizta .....</b>           | <b>-438</b>       |

*2001a finkatze  
aldia izango da  
Goienarentzat.  
Atzean geratuko da  
sustatze garaia.*

## **2001. urterako bilakaera hipotesiak**

Aurrekoari sustatze aldia deitu badiogu, orain hasten den urteak finkatze aldia behar du izan. Egindako bideak eta egindako urratsek tinkotzeko tenorean jartzen dute *Goiena*. Sendotasunerako bilakaera hori ondoko hipotesietan oinarritzen da:

### ***Eskualdeko udal guztiak bilduko ditu Goienak***

Ez dago ezer segururik, baina oraindik bildu ez diren udalen aldetik lankidetzarako formula dago aztergai, ez lankidetzara bera. Horregatik, agindutako hausnarketaren ondorioak jakin bezain bizkor adostasunerako aukerak landuko dira. Eta egitasmoak eskualde osoa behar duenez zentzu erabatekoa izateko, *Goienak* lehentasuneko helburu du adostasuna lortzea.

### ***Erakundeek iazko diru laguntza arruntei eutsiko diete.***

Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiko aurrekontuak luzatu egin dira, eta iazko laguntza berezien kopuruak berdinak dira aurrean. Hala ere, banaketarako irizpideak bestelakoak izan daitezke eta, laguntza lortzeko ahalegina egingo bada ere, ez da kopururik sartu aurrekontuan. Laguntza arruntak, urtez urte datozenak, berdintsu etorriko direla aurreikusi da.

### ***Bateratze plana bere borretan gauzatuko da.***

Hurrengo asteetan, elkarteen produktuen ekoizpena eta lantalde guztiak *Goienaren* esku geldituko dira, eta lantaldea bere osotasunean hartu ahal izango da, antolaketa optimizatzen hasteko. *Goienkariaren* hurrengo urratsa, edizioena, maiatzean egingo da.

### ***Produktuen birmoldaketak ez du galerarik ekarriko.***

Hipotesi eta helburu da, aldi berean. Ahalegin berezia egingo da ohiko bezero eta diru sarrerarik ez galtzeko, eta fakturazioaren hazkundea bezero berrietan oinarrituko da.

### ***Aurrean ez da jardun arlo berririk abiatuko.***

Egunkariaren bideragarritasun ikerketa egingo da, internetarako ataria landuko da eta irati egitasmoa zehaztuko da. Baina ez da arlo hauetan ekoizpenik hasiko, ez dirudi horretarako gauzak nahiko helduta egongo direnik.

## **2001. urteko gestio plana: egitasmoak atalka**

### ***Zuzendaritza Nagusia***

Jarduneko lanak sailtako zuzendarien eskuetara doazen neurrian, zuzendari nagusiaren lana diru laguntzak finkatzera, antolaketa hobetzera eta jarduera berriak sustatzera bideratuko da bereziki. Honako helburuak izango ditu, uda bitartean:

- Gutxienez sei udalekin urteko hitzarmenak sinatu, beste hirurekin ahaleginean jarraitu.
- Lantaldearen antolaketarik egokiena bultzatu.
- Kooperatiba taldeko lau zutaberekin (MCC, MU, Euskadiko Kutxa eta Fagorrekin) *Goienako* bazkide laguntzaile izan daitezen negoziatu.
- Eusko Jaurlaritzarekin telebistaren hedapena negoziatu.
- *Goienaren* aurkezpen ofizial eta publikoa prestatu.
- Kooperatibaren Batzar Nagusia prestatu, bazkide berriei (laguntzaile eta langileei) sarrera emanaz.

*Goienaren  
gainerako sailek  
dituzten premiak  
betetzeko egiten  
du lan Zerbitzu  
Orokorrak.*

- *Goienet* egitasmoa bultzatu eta zaindu.
- Erakundeen diru laguntzetarako deiak zaindu.
- Kooperatibako kalitate zerbitzua bultzatu.
- Irrati egitasmoa landu.

### **Zerbitzu orokorrak**

Sail hau hainbat arlok osatzen dute, bere eginkizuna beste sailen jarduerak behar dituen zerbitzu guztiak eskaintzea da eta. Kooperatibaren hasiera sasoi honetan, oinarrizko lan asko izango du egiteko, gero urtez urte egokitu bakarrik egingo direnak. Hauek dira, arloka:

#### **Pertsonala**

- Barne Araudia osatu.
- Kontratazio eta soldata politikak finkatu.
- Lanpostuen funtzioak eta organigrama zehaztu.
- Prestakuntza, bekadunak, praktiketakoak: irizpideak finkatu.
- Azpikontratazioen beharrak aztertu eta baldintzak zehaztu.

#### **Gestio ekonomikoa eta administrazioa**

- Kontabilitate bateratua antolatu.
- Fakturazio eta erosketako irizpideak finkatu.
- Aurrekontuak prestatu, gauzatu eta jarraitu.
- Altxortegia zaindu, liburuak bete eta diru laguntzak kudeatu.
- Sorrerako ondarea zehaztu, elkarrekin negoziatu eta egoki aseguru.
- Eraikinen eta ekipoen mantenimendua gainbegiratu.

#### **Enpresaren egitura eta antolaketa**

- Estatutu eta erregistro kontuak zaindu.
- Barne Araudia osatu, organoen funtzioak eta barne prozedurak zehaztu.
- Bazkide izateko prozedurak eta organigrama finkatu.
- *Goienak* elkarteei eta gainontzeko bazkideei eskaini beharreko zerbitzuak zehaztu.

#### **Bestelako eginkizunak**

- Banaketa zerbitzua gainbegiratu.
- Abian diren ikerketak gainbegiratu.
- Prestakuntza bultzatu, planak zehaztu eta jarraitu.
- Azpiegituretako inbertsioak kudeatu.

#### **Baliabideak**

Lan hauek guztiak ondo betetzeko, Zerbitzuen sailak arduraduna eta bi laguntzaile behar ditu. Gastu bereziei dagokienez, hardware, software eta sail barneko trebakuntzarako 600.000,- pezeta aurreikusi ditu sail honek 2001. urterako.

*Telebistaren unitate  
ibiltariak  
jarduera  
autonomia izango  
du, eta  
autofinantziaziora  
joko du.*

### **Telebista saila**

Debagoiena eskualdeko telebista euskaldun komertziala den GOITBk, 2000.eko maiatzean sortu eta hurrengo hilabeteetan izan duen bilakaeran oinarrituta, ondoko eginkizunak izango ditu urte hasi berrian.

#### **Helburuak**

- Lantaldea finkatu eta profesionalizatu.
- Telebistaren irudi estetikoak hobetu.
- Emisio egunak normaldu.
- Telebistaren arlo komertziala indartu.

#### **Egitasmoak**

• Informazio alorreko saioek izandako bultzadari eutsi eta gainontzekoak indartu.

- ETBrekiko harremanak sendotu.
- Inbertsio plana gauzatu.
- Dekoratu berriak prestatu.
- Kontinuitatea indartu.
- Seinalea eskualde guztian hedatu.
- Audientzia neurtzeko tresnak prestatu.

#### **Baliabideak**

Telebistari buruzko hausnarketa egin zenean, eskualde osorako telebistak dituen errorekei erantzuteko honako talde hau ikusi zen egokia: zuzendaria, erredaktore burua eta beste hiru erredaktore (bat kiroletakoa), teknikari burua eta beste bost teknikari. Unitate ibiltariak bere taldea izango du, premien araberrakoa, eta talde honek autofinantziazioa lortzea du helburu. Baliabide teknikoei dagozkien premiak inbertsio planean daude jasota.

#### **Aurrekontuak**

Inbertsio plan osoaren aurtengo zatia 24 milioikoa da. Kopuru horretara iristeko arazorik balego, dekoratu birtualak hurrengorako utz daitezke eta orduan kopurua 17 milioira jaitsiko litzateke.

### **Prentsa saila**

2000. urte hondarrean abiatu da *Goienaren* prentsa arloko jarduera *Goienkariarekin*. Sail honen produktuek, kooperatibaren gainontzekoek bezala, Debagoieneko herritar, elkarte, erakunde, talde eta abarren behar komunikatiboei erantzuteko bokazioa dute, modu arinez eta euskara zaindu eta ulergarri.

#### **Helburuak**

- Lau edizio lokal izango dituen *Goienkaria* sortu, gaurko atal komuna eta aldizkariak oinarri.
- Herrietako erredakzioak bateratu eta baliabideak optimizatu.
- Egunkarirako prestatu, produktuan, banaketan eta finantziazioan.
- Elkarlanean jardun nazio mailako prentsarekin eta Debagoieneko elkarte eta erakundeekin.
- Nahi duten bailarako herritar, elkarte, erakunde, talde edo enpresa guztiei astero doan banatu.

*Prentsa idatzian ere  
lau ordezkaritza  
antolatuko dira,  
arduradun  
banarekin.*

### **Egitasmoak**

- Gaurko atalen funtzionamendua normaldu eta gehigarri bereziak sortu.
- Harpidetza eta banaketa sistema hobetu.
- Herrietako aldizkarien aldaketa egin bitartean, une honetako produktuei eutsi.
- Edizio lokalak sortu, *Goienkariarekin* uztartzeko moduan.
- Eduki berriak eskaintzeko azterketa egin.
- Euskalkiaren inguruko proiektu bat abiatu.
- Egunkariaren bideragarritasuna aztertzeko ikerketak zuzendu.
- Produktu enlatatuak (atenporalak) prestatu.
- Beste komunikabide batzuekiko elkarlana bideratu (Euskaldunon Egunkaria...).

### **Beharrezko baliabideak**

- Materialak: barne sarea kudeatzeko zerbitzaria behar da, eta QuarkXpress programa originala, edizioak sortzeko.
- Pertsonalak: aldizkarietako lantalde bateratua egungo langile guztiekin antolatuko da. Lau ordezkaritza antolatuko dira, edizioen arabera, arduradun banarekin. Lau ordezkaritza buruak, diseinu arduraduna eta komertzial bat izango dira arloko zuzendariaren kideak gestio taldean. Horrez gain, taldearen barrutik edo kanpotik, lanpostu berri hauek bete behar dira: argazkilari bat, dokumentalista bat eta iragarki sailkatuak eta lehiaketak kudeatzeko pertsona bat.

### ***Sail komertziala***

Herri aldizkarietako estrategia komertzialak bateratzerako orduan, interes komunaren eta partikularren arteko lehia saihestea izan da kezka nagusia. Arazoa gainditzeko, bezero bakoitzak *Goienako* komertzial bakarra, eta komertzial bakoitzak *Goienako* katalogo osoa behar dutela hartu da oinarri. Bigarren ildo bat, hedabideen kudeaketa-taldeetan komertzialak integratzea da, ikuspegi komertzialak ekoizpenean behar besteko pisua izan dezan.

### **Helburuak**

- Orain arteko fakturazioa finkatu, bateratzeak ez dezala galerarik ekarri.
- Hazkundera bezero berrietan oinarritu, eskualdekoak nahiz kanpokoak.
- Truke, lehiaketa eta pizgarri politikak finkatu.
- Datu base bateratua eta sare egokia antolatu.
- Promozio tresnak prestatu, *Goiena* ezagutarazteko.
- Publizitate agentziaren antolaketa sortu, zerbitzurik zabalena eskaintzeko.

### **Egitasmoak**

- Herri aldizkariak ediziotan biltzeko urratsa ondo egiteko kontsulta eta komunikazio tresnak prestatu eta erabili.
- *Goiena* bere osotasunean azalduko duten dossier eta bideoa prestatu, bezeroei banatzeko.
- *Goienkariaren* atal salgarriak finkatu (eskelak, sailkatuak, tarte babestuak...) eta estrategiak zehaztu.

*Komertzial guztiek katalogo osoa salduko dute, baina bakoitza produktu baten gestio taldeko kide izango da.*

- GOITBn ahalegin berezia egin aukera guztiak aztertzeke, baita unitate ibiltariarenak ere.
- Irratiari buruz, hasitako lan komertziala areagotu, produktuaren hobetzearekin batera.
- Urtean behingo gida komertzialei buruzko hausnarketa bultzatu, eta aldizkakoak landu.
- Bestelako produktu komertzialak aztertu, egokitu eta bultzatu.

#### **Beharrezko baliabideak**

Katalogo osatuak eskatzen duen lanari aurre egiteko, zuzendari komertziala eta bost komertzial beharko dira, egun osoz, eta komisiopon lan egin dezaketzen saltzaileak. Horrez gain, publizitate guztiaren diseinua egingo duen diseinatzailea aukeratu behar da. Lantalde honetan, komertzial guztiek katalogo osoa salduko dute, baina bakoitza produktu baten gestio taldeko kide izango da, ekoizpenean ikuspegi komertziala txertatze aldera. Aldi berean, lantalde komertzialak koordinatzaile bat izango du, zuzendariaren ordezkari lanak egingo dituena.

Inbertsio eta gastuetan, datu base eta sare informatikoa, sakelako telefonoak, aurkezpenetarako dossier eta bideo bat, bezeroetako arreta tresnak eta opariak, edo kanpaina bereziak hartu behar dira kontuan.

| GOIENAREN ZENBAKIAK               |           |
|-----------------------------------|-----------|
| ■ Elkarre sortzaileak             | 9         |
| ■ Bazkideak                       | 3.000     |
| ■ Langileak                       | 40        |
| ■ Aurrekontua (milioitan)         | 235       |
| ■ Inbertsioak 2001ean (milioitan) | 28        |
| ■ Eskualde aldirikariak           | 1         |
| ■ Herri aldirikariak              | 6         |
| ■ Irakurleak                      | 60.000    |
| ■ Aldirikari aleak, hilero        | 132.500   |
| ■ Orrialdeak, hilero              | 3.281.000 |
| ■ Eskualde telebista              | 1         |
| ■ Emisio orduak (asteetan)        | 30        |
| ■ Herri irratiak                  | 1         |
| ■ Emisio orduak (egunean)         | 24        |

*Goienak eskualde osoa du lan esparru.* **2001. urteko aurrekontua**

| <b>Gastuak</b>           | <b>milakoetan</b> |
|--------------------------|-------------------|
| Pertsonal gastuak .....  | 158.007           |
| Material erosketak ..... | 3.500             |
| Moldiztegia .....        | 35.323            |
| Banaketa .....           | 9.233             |
| Funtzionamendua .....    | 4.230             |
| Konponketak .....        | 2.100             |
| Komunikazioak .....      | 3.500             |
| Produktu bereziak .....  | 7.800             |
| Beste gastu batzuk ..... | 2.000             |
| Amortizazioak .....      | 10.000            |
| Gastuak, guztira .....   | 235.697           |

| <b>Sarrerak</b>                | <b>milakoetan</b> |
|--------------------------------|-------------------|
| Publizitatea .....             | 72.000            |
| Produktu bereziak .....        | 24.000            |
| Antzuolako Udala .....         | 3.045             |
| Aramaioko Udala .....          | 2.103             |
| Aretxabaletako Udala .....     | 9.825             |
| Arrasateko Udala .....         | 47.600            |
| Bergarako Udala .....          | 24.160            |
| Elgetako Udala .....           | 1.553             |
| Eskoriatzako Udala .....       | 6.284             |
| Leintz-Gatzagako Udala .....   | 416               |
| Oñatiko Udala .....            | 17.203            |
| Gipuzkoako Foru Aldundia ..... | 12.712            |
| Eusko Jaurlaritza .....        | 15.231            |
| Sarrerak, guztira .....        | 236.140           |
| <b>Emaiza .....</b>            | <b>+443</b>       |

#### **Ondorioak, labur**

Oraindik eskualdeko herri guztien partaidetza lotu ez den arren, *Goienak* eskualde osoa du lan esparru, eta bere egungo lantaldea eta antolaketa dagoeneko esparru horren arabera dira. Bestalde, *Goiena* elkarteekin hitzartzen ari den tratuan, hauek duten lantaldea bere osotasunean hartzeko konpromisoa lotzen ari da, langile bakoitzak bere elkartearekin dituen eskubideak gutxienez bere horretan errespetatuz.

*Goienak lantalde  
bandia izango du  
aurten, 40 lagun  
ingurukoa.  
Besteak beste,  
langile bakoitzaren  
espezializazioa eta  
polibalentzia  
mailak finkatuko  
dira.*

Bi arrazoi hauengatik, *Goienak* lantalde handia izango du aurten, 40 lagun ingurukoa. Lehen momentuan, lantaldeak elkartu bakarrik egingo dira, eta hemen bikoiztasunak eta gabeziak sortuko dira. Berehala, ordea, lan komunak bateratzen eta pertsonak nahasten hasiko dira, bakoitzaren kokapen eta funtziorik egokiena zehaztu arte. Maiatzean, ediziodun *Goienkaria* hasten denerako, ordezkartitzek antolatuta behar dute egon, egitura berriaren arabera. Aldi berean, langile bakoitzaren espezializazio edo hedabide ezberdinetako polibalentzia ere finkatuko da. Antolaketaren hobetzeak ekarriko du egungo gainkarga arintzea. Kontuan izan behar da *Goienkaria* ia lantalde propiorik gabe ari dela argitaratzen, eta telebistak ere lanak dituela eskualdera behar bezala iristeko.

Lantalde eta produktu guztiak bere gain hartuta, *Goienaren* 2001.eko aurrekontua 230 milioitik gorakoa izango da. Horietatik 100 inguru salmenta komertzialak izango dira, beste horrenbeste udalen ekarpena eta gainontzekoa bestelako diru sarrerekin estaliko da.

Diru sarrera komertzialetan, kooperatibak ahalegin handia egin nahi du bide berriak jorratu eta orain arteko kopuruak gaintzeko, eta horretarako baliabideak ere prestatu ditu. Hala ere, aurrekontuetan zuhur jokatu da, orain arteko datu errealetatik hurbilago, balizko helburuetatik baino. Pentsatzekoa da aurreikuspena gaintu egingo dela.

Udalen diru laguntzetan, hasierako irizpideei eusten zaie. Iaz bezala, GOITB eta *Goienkariarentzat* urteko eta biztanleko 1.000 pezetako erreferentzia hartuta ezarri dira kopuruak. Horrez gain, udalek herri aldiakariari ematen dieten laguntza, batez beste, 600 pezetakoa da urteko eta biztanleko, eta hau hartu da erreferentzia ediziodun *Goienkariarako*, maiatzetik aurrera. Honekin, 1.600 pezetako ordain sariarekin, udalen laguntzek aurrekontu osoaren %45 inguru estaliko dute.

Ehuneko hau, hurrengo urteetan, txikituz joatea da *Goienaren* helburua. Irrati egitasmoaren garapenerako ez bada, udalen kuota ez da haziko urteko bizi-kostua baino gehiago. Aldiz, egunkaria edo internet egitasmoak bere kabuz garatuko ditu kooperatibak. Beraz, aurrekontua dexente hazi daiteke, baina autofinantziazioan oinarrituta. Horrela, udalen finantziazio kuota gero eta txikiagoa izango da.

Urteko inbertsioak guztira 28 milioi ingurukoak izango dira, eta hauek ere baliabide propioz estaliko dira. Amortizazio eta kontratazio politika egokiak finkatu dira horretarako. Aurten 10 milioiko amortizazioa sartu da eta, urte bukaeran, *Goienak* 12 lan bazkide izango ditu.

Finkatze sasoia izango da 2001. urtea *Goienarentzat*. Lankidetzak lotu, antolaketa finkatu eta egitasmo berriak zehazteko sasoia. Iazko bateratzea eta aurtengo finkatzearen ondoren, 2002. urtea izango da arlo berrietan abiatzeko ordua.

# Eskualdeko telebistaren esperientzia

## Aurrekariak

Arrasateko hedabideen kontakizunean agertu da nola aldizkariaren ondoren telebista sortu zen, 1990ean. Urteen joanean, Arrasate Telebista (ATB) gorpuztu egin zen. Hamar urte betetzeko orduan, astearen zazpi egunetan emititzen zuen katea zen, astean 30 orduz, eta 15 saio ezberdin eskaintzen zituen. Tresneria analogiko profesionala erabiltzen zuen, Betacam formatukoa. Bazuen teknikari talde zaildua, eta erredakzio lanak aldizkariko kazetariak egiten zituzten. Izan ere, aldizkaria eta telebista elkarre beraren emaitza ziren, Arkorenak.

Aretxabaletan antzeko prozesua gertatu zen. Aldizkaria onarri, 1999ko otsailean herriko telebista sortu zuen Aretxabaletako Komunikabideak Loramendi (AKL) elkarre. Telebista berriak astean bi egunez emititzen zuen, guztira lau bat orduz. Tresneria digital ez profesionala erabiltzen zuen, eta bi egun erdiko langile zituen, kazetaria bat eta teknikaria bestea.

*Goiena* sortzeko lehen urratsetan, elkarre biok oso garbi ikusten zuten eskualdeko telebista bakarraren premia, eta telebista berria egiteko bakoitzarena desagertuko zela onartua zuten.

## Bategitea

Erraz adostu zen telebista berriaren, GOITBren, oinarria ATB izango zela, bera zen-eta garatuena. Egoitza eta tresneria zeudenetan erabiliko ziren, eta Atxabaltako tresneria konpatibilizatzeko bidea ere aurkitu zen. Bi lantaldeek bat egingo zuten, eta telebista berria bere erredakzioa garatzen hasiko zen, egunerokoa ondo lantze aldera.

Aurre urrats moduan, 2000. urte hasieran ATBko erredaktore buru postua sortu zen, eta telebistaren albistegietako ikuspegia aldatu egin zen. Aurrerantzean lan eremua ez zen izango Arrasate eta beste herriak, baizik eta Debagoiena. Horrez gain, saioen edukietan eta lotura irudietan egokitzapen batzuk egin ziren. Aipatzekoa da ATBk zituen 18 saioetatik bakar bati aldatu behar izan zitzaioela izena, Arrasateri lotua zegoelako, gainontzeko guztiek zeudenetan balio izan zuten.

Hedapenerako ere ATBren azpiegitura hartu zen oinarri, zeren Murugaineko emisoretik eskualdearen hegoalde osoa har zitekeen. Aramaiok bere herrirako dorrean GOITB ikusteko tresneria jarri zuen, eta Eskoriatzak ere seinalea bere kable eskaintzan sartu zuen. Horrela, Debagoieneko bost herrira iritsi zen hasieratik GOITB.

Beste lau herrietan, Bergara, Elgeta, Antzuola eta Oñatin, teknikak jartzen du muga. Murugainetik ez da zuzenean herri horietara seinalerik iristen, eta tarteko dorreak erabili behar dira, Belar eta San Migel gainetan, biak Eusko Jaurlaritzarenak. Toki telebistak oraindik legeztatu gabe daudelako, Eusko Jaurlaritzak utzi egiten die emititzen, baina ez dago baimen formaletarako aukerarik. Beraz, ez zen dorreak erabiltzeko modurik izan, eta GOITBk ezin izan zuen lau herrietara iritsi.

Atxabalta Telebistak apirilaren amaieran eten zuen emisioa, batez ere langileek egoera berrira egokitzeko denbora izan zezaten. ATBk GOITB sortu bezpera

arte jardun zuen. Ez zen, beraz, zerbitzua eten.

Horrela, 2000ko maiatzaren 22an Debagoienaren zati handi batek lehen aldiz jaso zuen GOITB etxean.

### Hausnarketa

Telebista berria abiatzeko hausnarketa handirik behar izan ez bazen ere, *Goienak* ez zuen samurkeriarako joerarik, eta berehala hasi zen telebistaren nondik norakoak finkatzeko eztabaida prozesua. Ohi bezala, idatzietan oinarritu zen eztabaida, eta zerbait esateko zuen orok izan zuen bere ekarpena egiteko aukera. Ekarpene esanguratsuenak, noski, medioko profesionalengandik etorri ziren, baina orekarako onak izan ziren medioz kanpokoenak ere.

Eztabaidaren ardatza berehala jarri zen agerian. Beste inon baino areago, telebistan

igartzen dira baliabideek ezarritako mugak. Plato handia, puntako tresneria edo baliabide asko dituen telebistari antzematen zaio, badituela. Berdin nabari zaio horiek guztiak ez dituen telebistari, ez dituela. Telebista txikiak, lehiatzeko orduan, ondo asmatu behar du zertan oinarritu bere lehiakortasuna, eta horretara bideratu lehentasunez bere baliabide urriak. Hala ere, zer du hobe? Gutxi egitea, eta hori oso ona? Edo gehixeago, kaliatean galdu arren?

Bidegurutzean, batzuen ustez informazio saioak bakarrik egin behar zituen GOITBk, eta horretan eman bere indar guztiak. Besteek eskaintza ugariagoa nahi zuten, albistegiekin bakarrik hainbat herritarrengana ezin iritsia ikusten zutelako. Ez ziren jarrera kontrajarriak, eta bien sintesia lortu zen, ondoko dokumentuan jasotzen dena:

## Goiena Telebistari buruzko hausnarketa

Mikel Irizar  
2000ko azaroa

### Historia laburra

*Goiena* egitasmoa adostu zenean, telebistaren ereduaz edo programazioaz ez zen hausnarketa berezirik izan. Ontzat eman ziren, lehen txanparako, Arrasate Telebistak hamar urteko ibilbidean garatutakoak. Horrela, GOITB izango zena ATBn oinarrituko zen, edukiak eskualdeko ikuspegira egokituta. *Goiena* sortu eta bateratu ahala, unea etorriko zen hausnartzeko, eta telebistaren helburuak, baliabideak, programak, lantaldea eta antolaketa adosteko. Une hori, hausnartzeko lehen unea, iritsi da.

### Hausnarketa

Komunikazioa, bizkor kontsumitzen den gaia da, eta hedabide guztiek etengabeko hausnarketa eskatzen dute, nola berritu eta hobetu hartzailearen arreta lortzeko.

Dena dela, gure oraingo hau oinarritzko hausnarketa da, GOITBren zutabeak finkatzeko balioko duena. Ez gara hutsetik abiatuko, egin den bideko eskarmentua hor dago. Baina une honetan geure buruari baïmena eman behar diogu pentsamenduaz dena hankaz gora jartzeko, eta GOITB morrontzarik gabe irudikatzen. Gero, asmakizun horri errealitatearen mugak ezarriko dizkiogu eta hor izango dugu telebista, agian oraingoaren oso antzekoa, agian oso bestelakoa.

Hausnarketa antolatu samar joan dadin, lehentasunak behar ditugu. Ezin dugu guztiaz aldi berean jardun, sekulako nahasketa sortu nahi ez badugu. Har ditzagun, beraz, korapilo nagusiak:

#### *Helburuaz*

*Goienaren* helburua euskararen eta gizarte kohesioaren alde eragitea izanik, ezinbestekoa da gure hedabideak eta komunikazio zerbitzuak ahalik eta herritar gehienengana iristea, hau da, masibo izatea. Honek bi muga ditu: baliabideak eta duintasuna. Masibo izate aldera ez dugu edozer gauza egingo, kode baten arabera jokatu dugu. Eta pentsatutako guztia egitera ere ezingo gara iritsi, beraz, lehentasunak adostu beharko ditugu.

#### *Programazioaz*

Telebistako zuzendari den Andoni Urzelairi eskatu zitzaion hausnarketa abiatzeko txostena presta zezala, eta horrela egin du. Bere txostenean lehentasun nagusi bat ezartzen du: hurbileko informazioa lantzerantz bideratu behar dira telebistaren baliabideak, hor legoke eskualdeko telebisten indarra. Estepanek beste ekarpen bat idatzi du, eta bere ustez, edukiak mugatzen badira, ikusle multzo garrantzitsuak alboan gera daitezke, beraien interesik erakartzen ez delako, eta programazio zabalagoa egin beharko litzateke.

Bi txosten horiekin, bi bilera ireki egin dira. Lehena, elkarteetako ordezkarienezat zegoen deitua eta oso jende gutxi bildu zuen. Bigarrena,

*Informazio kutsuko  
saioek osatuko dute  
GOITBren  
programazioaren  
bizkarrezurra.*

hedabideetako langile guztientzat zen, baina telebistako lantaldea bakarrik agertu zen eta, oro har, Andoniren proposamenarekin ados daudela ikusi zen.

### ***Antolaketaz***

*Goiena* egitasmoan antolaketa zirriborro bat bazegoen, artean datu asko falta bazen ere. Emisio zentroa Arrasaten egongo zen, ATBren azpiegitura baliatzeko, eta beste hiru ordezkaritza egongo ziren, hauek ere emisioan sartu ahal izateko moduan hornituta. Bestalde, Arrasateko egoitzaren mugak ikusita, gerora beste produkzio zentro baten beharra aipatzen zen, Zubillagan edo egon zitekeena. Horrela, Otalaran emisioa eta zuzeneko saioak egingo lirateke, eta Zubillagan, enlatatua. Areago, Zubillagako ekipamendua gurpil gainean jarritz gero, unitate ibiltari ganorazkoa ere izango genukeen.

Geroztik, ordezkaritzen planteamenduari bi muga sortu zaizkio. Alde batetik, seinale hedapenerako laguntzak oraingoz bertan behera gelditu dira, eta ezin da jakin etorriko bidea noiz izango den posible. Eta bestetik, telebistako lantaldeak, sakabanaketan arriskuak ikusten ditu eta nahiago luke bateratuago jardun. Gauzak egiteko gutxieneko masa kritikoa behar dela uste dute.

### ***Kalitateaz***

Toki telebista batek ez du handien baliabiderik, baina emaitzaren kalitatea zaindu egin behar du. Zapping egiten ari dena nekezago geldituko da kalitate eskaseko irudiarri begira. Hurbilekoa izate hutsak lehen alditan estaliko ditu akatsak, baina luzera begira, besteen gutxieneko mailan egon behar da. Egungo tresneria digitalak ematen du kalitate duina. Grafismoa eta edukiak neurri berean lantzeko, pertsonak behar dira.

### ***Finantziarioaz***

Egitasmoaren aurreikuspenek hemen izan dute hutsik nabarmenena: udalen diru laguntzak lehenago espero genituen. Oraindik ez dakigu denak iritsiko diren ere. Eta falta direnak ez dira txikiak preziso, %40 inguru zalantzan dago. Hori gabe, *Goienak* aurrera egin lezake, baina ez berdin. Datorren urteko garapena osoa izango da kasu batean, edo murriztua bestean. Eta telebista izanik autofinantziaziorako hedabiderik zailena, honek igarriko luke bereziki murrizketa. Hau ez da ahazteko kontua.

## **Proposamena**

### ***Informazioa, bizkarrezurra***

Datorkigunari Informazioaren Gizartea deitzen diote dagoeneko. Informazioa indar eta lehentasun bihurtu den seinale. Munduko informazioa Debagoienara ekartzeko bide asko dago, eta laster gehiago. Debagoienekoa hemen eta munduan zabaltzeko, guk daukagu baliabide gehien, guk izan behar dugu bide nagusia.

Informazio hitzak oso zentzu zabala du, ez da albistegietara mugatzen. Andonik proposatzen duen ereduak *Goienkariaren* antzeko funtzioa beteko luke, arlo guztietako informazioa, albisteak, kultura, kirola edo aisialdia, baita zerbitzuak eta iritzia ere.

Nire ustez, saio multzo horrek osatu behar luke programazioaren bizkarrezurra. Lantalde profesionalak eginga, eta kalitatez lehiakorra. Urtez urte egokitu bai, baina funtsean asko aldatuko ez litzatekeena. Hori egitera bideratu beharko lirateke telebistako baliabide gehienak.

*Telebistaren izaera  
informatiboak  
onartzen du  
bestelako  
eskaintzarik ere:  
zuzeneko musika,  
kultura ekitaldiak,  
eta abar.*

### **Bestelakoak, osagarri**

Bizkarrezur informatiboak onartzen du, hala ere, bestelako mamirik, eta klase askotakoa, gainera. Zuzeneko musika edo kultura ekitaldiak grabatu eta ematea, gizarteko talde eragileekin elkarlanean egindakoak, beste toki telebistekin trukean egin daitezkeenak, erdarazko toki telebistei euskarazko saioak saltzeko eginak...

Lan hauek, edozein modutan, oso aldakorrak izan daitezke urtean zehar eta urte batetik bestera. Horregatik, oso egitura malgua beharko litzateke, eta ahal bezain autonomia, eguneroko jarduerarekin lehian edo traban ez ibiltzeko.

### **Bi adar, bi talde**

Egitasmoan aipatzen zen bi zentroren ideia egokitze ordua da, ea gauzatzeko aukerarik dagoen. Zuzeneko emisioari kokapen eta lantalde finkoa eskaini, eta enlatatuari kokapen ibiltaria eta lantalde malgua. Hemen zehatzago:

#### **Albiste zerbitzuak**

Andoniren proposamena oinarri izango luke, hiru gauza erantsita:

- Egunean zehar albiste aurrerapen informalak, idazgelatik bertatik.
- Programazioaren bukaeran albistegia errepikatzea, azken orduko gairik egon bada off-ean edo, sartuz.
- Asteburuetan albistegia egitea, arinagoa, eta igandean kirol ekitaldiren bat.

Honek eskatuko luke asteburuko taldea eta astean zeharrekoa bateratzea, eta errotazio sistema bat ezartzea.

#### **Ekoizpen taldea**

Jon izango luke buru, aldikako beste bi edo hiru lagunekin, eta unitate ibiltaria tresna. Bere kabuz jarduteko gai izango litzateke, helburu hauekin:

- Komertzialekin adostuta, saltzeko moduko produktuak egin, ea taldeak bere burua ordaintzea lortzen duen.
- Gizarte ekimenekin saioak elkarlanean egiteko aukerak aztertu, lehentasunak eta txandak finkatu, diru iturriak elkarrekin landu. Hemen, lehentasunezkoa litzateke Txatxilipurdirekin hasitako bidea, gazteentzat saio bat elkarlanean egiteko. Lankidetza hau epe luzekoa izan daiteke, eta diru laguntza bidez finantzatzeko modukoa da.
- Toki telebistekin eta ETBekin materiala trukatu, kostu txikiko emisio orduak lortze aldera.

**Garapena lantaldean**

Hausnarketaren ostean, eta haren ildoak jarraituz, telebistaren garapena etengabea izan da. Ez horrenbeste emisio orduetan edo saio berrietan. Lehen txanpa honetan, lantaldea sendotzen eta tresneria berritzen eman dira indar guztiak.

Lantaldean, erredakzio taldea hazi da nabarmen. Erredaktore buruaren esanetara beste hiru erredaktore etorri dira pausoka, eta herrietako erredakzioekiko elkarlana sendotuz joan da. Egun, talde honek ondo estaltzen du eskualde osoa eta albiste saioak gero eta trinkoagoak eta eragingarriagoak dira. GOITB eskualdeko informazio iturririk indartsuena bilakatu da, horrenbestez.

Teknikarien lantaldea ere hazi egin da, neurri txikiagoan izan bada ere. Abiatzean, hobe zen multzo honen egoera. Teknikarien taldea antolatzeko arazorik nagusia ordutegia da. Jarduera nagusia industria duen eskualdean, astegun guztiak izan daitezke garrantzizkoak, eta horietan lanordu guztiak. Beraz, astean zehar ENGak noiznahi egiteko azpiegitura behar da, eskualdeko edozein herritan. Gero, ordea, iluntzeko emisioa dator eta, zuzenekoan, platoan behar dira teknikariak, bizpahiru orduz. Eta asteburua iristen denean, kultura ekitaldiak eta kirola nagusitzen dira. Hauek ere estali beharrekoak, neurri batean bederen.

Lantaldean errotazioak eta txandak eskatzen ditu lan honek. Baita astea eta asteburua batzea, hau da, aste osoa atal bakar bihurtzea, lanerako edo atsedenerako. Langile batzuk nagusiki estudio barrukoak dira, eta besteak kanpokoak, antolaketa posible izan dadin. Baina aldi berean, teknikari guztiek izan behar dute gai lan gehienetarako, edozein ustekabe konpon-tzeko.

Aurrera begira, telebistaren garapenak lantalde tekniko indartzea ekarri beharko luke. Bera da oraintxe baliabideetan justuena.

**Garapen teknikoa**

ATBk formatu profesionala erabiltzen zuen, Betacam. Duela zortzi bat urte egin zuen jauzi, aurreko Super VHS formatuak ez zuen eta, nahi besteko mailarik ematen. Toki telebistek hurbiltasunean dute handiekin lehiakor bihurtzen dituen abantaila, baina hurbilekoak ez badu kalitate tekniko nahikorik, lehiakortasunak ez du luze iraungo.

Betacam formatua profesionala da, baina analogikoa, ez da digitala. Eta hau gaur egun muga da. Teknologia digitalak aukera eta molde berriak sortu ditu arlo askotan, baita telebistan ere. Finean, digitaletan dagoen irudiarekin informatikaren aukera guztiak erabil daitezke, editatzeko, irudi birtualekin nahasteko, konprimitzeko edo emititzeko. Telebista txikientzat bestela egin ezinak ziren lan batzuk, edo lan orduen poderioz bakarrik egin zitezkeenak, errazten eta ahalbidetzen ditu tresneria digitalak. Gainera, telebista handiak ere bide horretan doaz eta, GOITBri dagokionez, ETB —bere lankiderik handiena— goitik behera ari da digitalizatzen. Digitalerako jauzia ezinbestekoa zen.

Ezinbestekoa, eta presazkoa. Izan ere, zortzi urte lehenago erositako ATBren tresnak azkenetan zeuden. Gehiago iraun lezakeen arren, telebistaren tresneriari 6/8 urteko iraupena ematen zaio jeneralean eta toki telebistetakoari, laburragoa. Baliabide gutxiago dagoen tokian, dagoena maizago erabili behar izaten da. Eta tresnen bizia erabilera-ordutan neurtu behar da, urte kronologikoetan baino.

Gauzak horrela, telebista berria tresna zaharrekin abiatu zen, baina aldi berean inbertsio plan zehatza prestatu zen, birmoldatze tekniko bideratzeko. Formatuaren aldetik, DVCam aukeratu zen, lehengoaren pareko digitala zelako, eta, aldi berean, beste telebistekin —ETBekin, bereziki— bateragarriena zelako.

Bigarrenik, muga non egon zitekeen zehazteko ahalegina egin zen. Teknologiaren bilakaerak gero eta aukera gehiago jartzen ditu baliabide urrikoaren eskura, eta ezinbestekoa da aukera eskuragarri horiek ez galtzea. Baina jakin egin behar da bereizten noraino den mesedegarri ahalegina eta non hasten den gehiegikeria. GOITBri buruz, beharrezkotzat jo zen ordenagailu bidezko emisioa eta kontinuitatea, lanerako baliabide mordoa libratzen zuelako. Mugakoak ziren dekoratu birtualak eta kamera robotizatuak, gastu ugari aurrezteko balio zuten arren, kostu handia zutelako. Dena dela, sartu egin ziren. Eta kanpo gelditu ziren produkzio zentroa, lehengo egoitzaren txikitasuna gainditzeko balioko zuena, eta unitate ibiltari berria. Entresaka hau egin eta gero, inbertsio plana 48 milioiren bueltan jarri zen.

Azkenik, dena batera gauzatzea ezinezkoa izango zela jakinda, epeak eta aldiak zehaztu ziren. Lehen aldian, presazkoenean, kamera eta ediziorako tresneria erosi zen, hondatuen zeuden aparailuak ordezkatzeko. Aldi honek 13 milioi inguruko inbertsioa eskatzen zuen, eta dagoeneko burutu da. Ondorioz, telebistaren periferiako hainbat elementu berritu egin dira.

Ekoizpenaren bihotza, bigarren aldiak aldatuko du, 24 milioiko kostua izango duenak. Emisioa eta errealizazioa bereiztu egingo dira. Errealizazio gela osorik digitalizatuko da eta, honi esker, errealizazioarako espazioa txikitu egingo da eta editatzeko beste gela bat sortu. Eta egungo gelen antolaketa osoa aldatu egingo da, egoera berrira egokitzeko. Une horretan sortuko da teknikoki telebista berria, eta hortik aurrera oraingo estutasunak eta beste hainbat arazo konponduta geldituko dira. Aldaketa honek eten luzea eskatzen du, eta eten horren eragina murrizteko, aldaketa uztailan hasita egingo da, udan.

Inbertsioen azken aldirako utzi dira elementu osagarriak. Dekoratu birtualak bigarren eta hirugarren aldien artean jarriko dira, eta kamera robotizatuak, hirugarre-

nean. Azken aldi hau datorren urtean gauzatuko litzateke.

Inbertsio hauei guztiei *Goienak* egin die aurre eta egingo. Horretarako, erabakigarriak izan ditu, eta izango, bere bazkideen kapitalerako ekarpenak. Elkarrekin hasieran egindako ekarpenen zati handia, eta lan bazkideen ekarpenak gero, inbertsio plan hau finantziaztera bideratu dira. Eta hurrengo urteetarako, amortizazioak izango dira inbertsio berriei aurre egiteko bide nagusia. Horretarako finkatu da, aurtengo Gestio Planetik hasita, amortizazio politika zuhurra, tresneriak dituen kostua eta iraupena kontuan hartuta, urtez urteko ustiapen-kontuan sortuz joan dadin, eta balantzean metatuz, inbertitu behar denerako dirua.

### **Aurrera begira**

Toki telebista den aldetik, GOITBk argi dauka lehiakorra den guneetan eman behar duela bere onena, eta horretara bideratu behar dituela bere baliabide gehienak. Hurbileko informazioa da toki telebista baten indargune nagusia, eta hor egin dira orain arte ahaleginak, erredakzio taldea eta teknikariena sendotzen. Egun, inor baino lehenago eta albiste gehiagoetara iristen dira. Euskal Telebistak berak gero eta maizago erabiltzen ditu GOITBren irudiak edo informazioak.

Aurrerantzean, zerbitzua osatzea eta kalitatea jasotzea ditu helburu telebistak. Eta, bereziki, haur eta gazteengana iristeko gauza izan nahi du. Ardatz hauetan oinarritzen da hurrengo bi urteetarako egitasmoa:

### ***Emisioa ugaltzea***

Toki telebisten eskaintzak osagarria eta tarteagarria behar du izan, edukiz eta ordutegiz. Emisioa ugaltzeko orduan, eguerdiak eta asteburuak dira tarterik interesgarrienak. Albiste saioak lirateke bizkarrezurra, asteburuetan unitate ibiltariak grabatutako kirol saioak eta bestelako ekitaldiak lagun dituztela.

### ***Kalitatea jasotzea***

Digitalizazioak badauka berarekin kalitatean hobekuntza. Ekoizpeneko ildo nagusia eta emisioa baliabide digitalez egiten direnean, kontinuitatearen kalitateak nabarmen egingo du gora. Edukien kalitatea ere asko hobetu da erredakzioa sendotu den neurrian. Egitasmo berrian, dekoratuak, argiztapena eta grafismoa dira kalitatea jasotzeko prozesuan landu beharreko atalak.

### ***Haur eta gazteengana iristea***

Telebistaren ikusle garrantzizkoak dira haur eta gazteak. Kontsumitzaile handiak direlako, alde batetik. Euskarazko telebista kontsumitzeko talderik prestatuenak direlako ere bai. Eta, azkenik, hizkuntzaren eta baloreen transmisioan hartzaile nagusia

direlako. GOITBk lankide aditua hartu du, Txatxilipurdi gazteen aisialdirako elkarteak, gazteen saioetarako aholkulari izan dadin. Lehen emaitza, elkarrekin prestatutako *Jolasplast* saioa izango da, datorren udazkenean ematen hasiko dena.

Esan gabe doa, aspaldiko kontua delako eta berehala gauzatzea espero delako, telebista eskualde osoan ikusteko moldaketak prest daudela, bai seinale hedapenerako egin beharrekoak, eta bai lantaldeak eskatuko dituenak. Ezen, daudenetan aurrera egiterik izango luketen arren, eskualde osoa lan eremu eta lankide hartzen dutenean, orduan izango dutelako, GOITBk eta *Goienak* berak ere, zentzu osoa, erabatekoa.

# Eskualdeko aldizkaria eta egunkari asmoa

## Goienkariaren plana adosteko lana

Behin enpresa jarduera abiatuta, lan zehatzetan lehena, eta zailena, *Goienkariaren* estrategia adostea izan zen. Merezi du xehetasunez aipatzea, gauzak egiteko modua argi erakusten duelako.

Bergarako elkarteak, Jardunek, egunkariaren aldeko apustu garbia eskatzen zuen. Lehendik arituak ziren gaia hausnartzen, eta aldizkariak baino eragin handiagoa izango zuen tresna sortu nahi zuten. Egunkariaren bideragarritasuna ziurtatu bitartean, behin behineko formularen bat onartzeko prest zeuden, denbora laburrerako.

Aretxabaletako elkarteak, A.K.-Loramendik, egunkariari arriskuak ikusten zizkion batik bat. Aldizkariak egunkariaren baitan urtu, eta gero egunkariak ez bazuen aurrera egiten, prozesuaren amaierako egoera hasierakoa baino okerragoa izan zitekeela uste zuten. Horregatik, ez zeuden egunkariaren alde.

Bi jarrera hauen artean, gainontzeko elkarteetan ere zalantzak zeuden. Aurrera egiteko premia ikusten zuten, baina tentuz, arriskuak murriztuz eta urratsak tenkatuz.

Gauzak horrela, hausnarketari ekin zitzaion 2000ko uda aurretik. Txosten idatzia erabili ziren nagusiki, eta iritzi

ezberdinak edo kontrajarriak paperean jarri ziren. Huskeria dirudi, baina urrats handia izan zen. Kasu askotan, arazoa mugatu egiten da papereratzean, bilutsiago ageri da, txikiago ere bai, sarri.

Txosten horiek oinarri, berariazko talde bat sortu zen gaia lantzeko, eta adostasun puntuak aurkitzeko. Bilera bakoitza amaitutakoan, adostasuna noraino iritsi zen eta hurrengoan landu beharreko ezadostasunak aktan jasotzen ziren. Horrela, adostutakoa gorde egiten zen, bermatu, eta arazoa murriztuz joan zen. Hiru bilera nahiko izan ziren, Kontseilu Errektoreari proposamen bat egiteko.

Proposamen horretan, elkarteetako ordezkari eta hedabideetako langile guztien batzarra biltzeko asmoa ere bazegoen. Egindako hausnarketa, eta estrategia bateratuaren oinarri nagusiak jasoko zituen txostena zabalduko zen aurrez, eta haren inguruan ados jartzeko ahalegina egin. Udazkeneko larunbat goiz batez bildu zen batzarra, eta eguerdirako “fumatta” zuria eman zuen. Kontseilu Errektoreak bere hurrengo bileran onespen formala ematea besterik ez zen falta. Adierazgarria delakoan, hauxe da —osorik— batzarrak ontzat eman zen dokumentua:

## *Goienaren prentsarako egitasmoaz*

Mikel Irizar | Sarrera  
2000ko azaroa

*Goienaren* bilakaeran, prentsako produktu zehatzei buruzko eztabaidan sartu garenean, gai honen inguruko kontestua eta ildo orokorrak berdetu beharra agertu da, hurbilera begiratzeak ez dezan ekarri urrinekoa bistatik galtzea. Idatzi honek, horixe du helburu bere lehen partean, eta bigarrenean *Goienaren* prentsa egitasmoa gauzatzeko urrats, egutegi eta xehetasunak proposatzea, gure arteko adostasuna ahal den trinkoena izan dadin.

### **Goienaren helburuaz, bi hitz**

*Goienak* ez du bere bazkide sortzaileek aurrez ez zuten helbururik. Hauek, komunikazioaren arloari ekin ziotenean, hurbileko komunikazioaren esparrua euskararentzat irabaztea zuten helburu, ahal bezain arrakastatsu eta masibo izango ziren hedabideak sortuz eta kudeatuz, herritarrek kontsumitzen zuten informazioaren ahalik eta zatirik handiena euskaraz emandakoa izan zedin. Orduan eta gaur, hedabideak tresnak dira, helburua lortzeko balio duten gailuak. Hedabideei buruz erabakiak hartu behar direnean eta hainbat aukera alderatu, helburua lortzeko bakoitzak zein neurritan balio duen hartu behar dugu irizpide nagusi. Gehien balio duena hautatu behar dugu, ez politena edo kuttunena, eragingarriena baizik. Horrela bakarrik jakingo dugu ziur, zerbait galdu arren, gehiago dela irabazten duguna.

### **Goienkariaren historia, labur**

*Goiena* sustatzeko taldearen lehen bileretan, 99ko uda/udazkenean, Arkok telebistaren arloan zuen kezkarik handiena, eta Jardunek prentsa arloan. Elkarrekin atzetik zekarren eskualdeko egunkariaren lanketa, eta bere lehen asmoa zen orduko egoeratik zuzenean egunkarira jauzi egitea. Bilera batzuen ondoren, tarteko urrats bat hobetsi zen, herri aldizkarietara eutsi eta, aldi berean, bateratzeko tresna bat sortzea. Horrela jaio zen *Goienkariaren* asmoa. Astekari izanik, herrietako erredakzioak bizkortzen lagunduko zuen, eskualdekoa izanik, eskualdea langai bihurtuko zuen eta edukiak mailakatzen erakutsi, eskualde eta herrien artean. Eta bere egunkari itxurak hasieratik adieraziko zuen egunerokora jauzi egiteko borondatea.

Orduan eta gaur, egoeraren diagnostikoak sortzen du prentsa arloan jauzi bat eman beharra. Aldizkarietara egindako lana oso ona izanik, maila horretan geratzeko baditu bi arazo. Alde batetik, helburua neurri txikian betetzen da, debagoiendarrek irakurtzen dutenetik oso zati txikia hartzen dute gure aldizkarietara, eta oro har, euskal prentsak. Txanpa indartsua egin da, baina gehiago behar dira estropada irabazteko. Eta bestetik, lehengoari euste hutsak beste egitasmo batzuk gureari aurrea hartzeko arriskua dakar, eta izan dugu ez aspaldian horren adibiderik. Eraiki dugun egitasmo elebakarrak badu jaiotzeko ahulezia bat, ezin da oraingo egitasmo elebidunekin lehian jardun, ezin die irabazi. Eskualdean

*Bide bi aztertu ziren  
prentsa idatziaren  
atalean,  
eskualdeko  
informazioa  
bideratzeko:  
euskarri berria  
sortzea eta leku  
berezia egitea  
lanean  
ari ziren  
aldizkarietan.*

hedabide elebidun batek irautea lortuko balu, edozein arlotan, gure diru sarrera printzipalena kolokan legoke berehala, eta gure etorkizuna airean. Dagokigun esparruan bakarrak izatean datza gure indarra, eta bakarrak izateko geuk aurrea hartu eta bete behar ditugu balizko arlo guztiak, zirrikiturik utzi barik.

Kezka hori oinarri, *Goienako* talde sustatzaileak hiru azterkizun abiatu beharra ikusi zuen balizko egunkariaren bideragarritasuna ikertzeko: produktuarena, banaketarena eta finantziazioarena. Eta produktuaren azterketaren lehen urratsa *Goienkaria* izango zen, 2000ko udaberrian abiatu eta urtebeteren bueltan nahikoa eskarmentu emango zuena, maketa, eduki eta antolaketa buruz. Arduraduna izendatu zen, Eneko Azkarate, eta lantze lanak abiatu.

Bitartean, *Goienak* aurrera egin zuen bateratze bidean, herri guztietako elkarteak egitasmoa bildu ziren arte. Iazko abenduan zazpi herritako elkarteek **Goiena egitasmoa** izeneko dokumentua sinatu zuten, elkarlanerako oinarri gisa, eta han, besteak beste, *Goienkariaren* asmoa jasotzen zen. Ahal bezain laster, apirilean edo, egunkari formatuko astekaria sortuko zen, eskualde osorako, lehengo aldizkariekin batera eta hauek lankide hartuta. Lankidetzaz horren bilakaerak erakutsiko zuen bateratze bidean egin beharreko ibilbide zehatza. Aurtengo lehen hilabeteetan, hala ere, gaiak kezka nabaritzen hasi zitzairen Aretxabaletako ordezkariak, eta martxoa aldera egunkariari ezetza ere adierazi zuten bilera batean. Gerora, jarrerak hurbildu egin dira, eta azken hilabeteotan egitasmoan lortutako adostasuna gaurkotu eta sendotzeari ekin zaio.

### Eztabaida, gaur

Uda aurretik jakin zen *Goienkariarentzat* aurreikusitakoaren ordeza, aretxabaletarrek proposatzen zuten bidea. Eskualdeko edukientzat euskarri berria sortu partez, lehengo aldizkarietan leku egitea ikusten zuten egokiago. Egunkariaren aukera ez zuten baztertzeko, baina beldur ziren bidean sortutako euskarri berriak agian aldizkariak desagertaraziko zituela, egunkariaren sorrera ekarri gabe.

Irailean zehar hainbat bilera egin ditu gaiak lantalde batek, eta korapilo batzuk askatu ditu. Ondokoak, gutxienez:

- Egunkaria egitea bere garaian erabakiko da, produktua, banaketa, finantziazioa eta bideragarritasuna aztertzen direnean. Azterketa horiek egitea erabaki da orain. Eta bideragarri ikusten bada, egunkaria egin egingo da.
- *Goienkaria*, produktuari dagokion azterketa egiteko tresna da. Edukiak, maketa, edizioak, barne antolaketa, azpiegitura informatikoa... zehazteko balioko du.
- Errotatibaren prezioek moldiztegiarekin duten aldea hain da handia, hortik aurrezten den diruak nabarmen lagun bailezake bestelako baliabideak hobetzen eta produktuen kalitatea jasotzen.
- Gaurko egoeratik egunkarirako trantsizioa tinko eta tentuz egin beharrekoa da, arriskuak minimoak izan daitezen eta emaitzak onenak.
- Eztabaidan A aukera deitu dena, *Goienkaria* lehengo aldizkariak gain sortzea, izan da abiapunturako adostasun zabalena eragin duena. Hurrengo urratsa C aukera izan daiteke, bitartean egin beharreko lanak ondo egiten

*Azkenean,  
euskarri berria  
egitea erabaki zen,  
hiru alditan.*

badira. Batetik besterako jauzia, erritmo ezberdinetan egin ahal izango litzateke, egoeren arabera.

Bilera horiez gain, elkarte eta hedabideetan ere banatu dira han-hemenka hainbat iritzi idatziz eta prozesua biribiltzea falta da. Argi daitezkeen azken itzalak argitu, eta bidean abiatzeko bezperan gaude.

### **Egunkarirako trantsizioa**

Aurreko puntuan aipatutako ildoak abiapuntu hartuta, hauek lirateke bihar hasi eta egunkaria egiteko erabakia hartu arte egin beharreko urratsak.

#### ***Oinarriak***

Gaurko egoeratik egunkarirainoko trantsizioa ondo egingo bada, gutxieneko baldintza batzuk bete beharko dira. Hemen proposatzen den trantsizioak ondoko oinarriak betetzen ditu:

- Herri guztiek gutxienez gaur duten beste espazio eta baliabide izango dute aldi gutietan, eta azken emaitzan. Herri gehienek orain baino askoz gehiago.
- Trantsizioan zehar eta egoera berrian *Goienaren* prentsa ekoizpena gaurko aldizkariena baino handiagoa izango denez, lantaldea ere gaurkoa baino handiagoa izango da eta, beraz, gaurko lanpostu kopuruaz ez dago zalantzarik.
- Adostutako epeen barruan, hedabide bakoitzak urratsak noiz egingo dituen bere kudeatzaile den elkarteak erabakiko du.
- Bidean aurrera joan ahala gero eta nekezago izango den arren, egunkaria sortzeko erabakia hartu arte atzera egitea posible izango da, hedabide bakoitzaren gutxieneko nortasuna gordeko delako.

#### ***Lehen aldia: Goienkariaren atal komuna prestatu.***

(2000ko urria eta azaroa). Trantsizioa finkatzen den une beretik, eta hau bizkor izatea komeni da, atal komuneko lantaldea osatuko da, eta lan hauetan murgilduko da:

- *Berrigara, Arko* eta *Aretxagazeta* lotuko dituen sare informatikoa sortu, gainontzeko herrietakoa aztertu eta lehen datu basea osatu.
- Edukien azterketa bultzatu, herriz herriko erredakzioekin elkar lanean.
- Maketa finkatu, Goio Aranaren laguntzarekin.
- Banaketaren hutsuneak bete, Aitziber Langaranen laguntzarekin.
- Publizitate irizpideak finkatu, Gotzon Arzelusen eta herriz herriko komertzialen laguntzarekin.
- Errotatibarena lotu, bai prezioa eta bai funtzionamendua.
- OJDren kontrola eskatu produktu berriarentzat.

Hau egiten den bitartean, aldizkariak gaurkoan jarraituko dute. Gainera, *Goienkaria* iragartzen hasiko dira, beraien gehigarri gisa. Hilabete hauetan *Goienkariak* sortuko duen gastua udalei proposatutako hitzarmenetan aurreikusita dago.

#### ***Bigarren aldia: atal komuna egin, edizioak prestatu.***

(2000ko abendua - 2001eko apirila). Aurreko lan guztiak ondo burututa daudenean, *Goienkariaren* atal komuna kaleratzen hasiko da, 20.000 ale, asteoro etxeetan. Hurrengo txanpan, atal komuneko lantaldeak eta aldizkarietakoek hau izango dute egiteko:

*Erabateko erronka  
eguneroko  
banaketan dago.  
Ezin da  
egunkaririk egin,  
ez bada etxez etxeko  
banaketa ondo  
antolatzen.*

- Aldizkariak izan duten eduki galtzea, eduki berriekin bete edo aldizkaria murriztu.
- Aldizkariak A3 formatura birmoldatzeko prestatu.
- Edizioan bilduko diren aldizkariak uztartu.
- Zero aleak prestatu eta jende artean probatu.
- Herritarrei aldaketa iragarri, azaldu eta onartzen lagundu.
- Publizitatearen kudeaketa zaindu, eta hasierako hipotesiak kontrastatu.
- Erredakzio guztiak lotuko dituen sarea osatu, datu basea gizendu.

Edizioak prestatu ahala, *Goienkarian* sartuz joango dira. Lehenen eskarmentuak onuragarri izango dira ondokoentzat. Aldizkariaren mantxetak gorde egingo dira, aurrera egiten den bidean, atzera ere egin ahal izateko. Azken produktuaren batasuna eta edizioen nortasuna orekatzea izango da erronka. Aldi honetan ez dago gailak, moldiztegitik errotatibara joateak merketzea dakar.

### ***Hirugarren aldia: lau edizioko Goienkaria egin, egunkaria prestatu.***

(2001eko apirila - 2001eko abendua). Prentsa ekoizpen guztia egunkari formatuan dago, *Goienkariaren* mantxeta kanpoan, OJDren kontrolpean, lau edizio lokalak barruan, aldizkariaren mantxetak bistan. Urtea amaitu arteko lanak, eguneroko produktoria egokitzeak eskatzen dituenak:

- Zenbat eguneko eta orrialdeko egunkaria.
- Lantaldea, funtzionamendua eta informatikako azpiegitura.
- *Goienkariaren* atal bakoitza nola egokitu, eta aparte behar diren atal berriak.
- Hamabi urtetik honako datu base digital osoa.
- Egunerorako publizitate estrategia.

Aldi honetan aurrera, erredakzio guztiak praktikan bateratuz joango dira, *Goienak* integrazioaren kontrako biderik hartzen ez badu. Lantaldea, azpiegitura eta produktua prest leudeke egunkarira jauzi egiteko.

### ***Beste egin beharrekoak: banaketa, finantziarioa.***

(2000ko iraila - 2001eko abendua). Gorago esan bezala, *Goienkaria* produktua lantzeko tresna da, eta aldi berean, elkarlanean jarri eta integrazioa eraman gaitzakeen bidea. Baina, beste egiteko batzuk ere ezinbestekoak dira, egunkaria bideragarri izango bada.

### **Banaketa**

Gaurko aldizkariak badute nola-halako banaketa antolamendua, maiztasun handikoek landuagoa, asteroko banaketarako oinarri badena. Hutsuneak bete beharko dira, eta horietan Oñati da larriena, bere tamainaren arabera. Hala ere, erabateko erronka eguneroko banaketan dago, ezin da egunkaririk egin, ez bada etxez etxeko banaketa ondo antolatzen. Egiteko hau Saiolanen aurtengo ekimenetan sartu da, eta beraiek proposatutako pertsona, Aitziber Langaran, hasia da lehen urratsak egiten. Urtarrila amaitu arte, gaiak jabetu eta arloa barneratzen ariko da, eta urtariletik uztailera eskualdeko banaketa zerbitzuaren bideragarritasun plana prestatzen. Bitarte horretan, eta bere lanak oinarri

*Iturri propio  
eta laguntza  
publikoez gain,  
herritarren dirua  
beharko da  
egunkaria abiatzeko.*

praktikoa izan dezan, *Goienak* dituen banaketa arazoetan laguntzaile izango da. Eta prestatzen duen plana bideragarri bada, udazkenean abiatzeko prest legoke, berdin *Goiena* barruko atal bezala, edo enpresa autonomo gisa. Datorren urtea amaitu orduko, jakingo dugu zehatz nola banatuko litzatekeen gure egunkaria.

### **Finantziarioa**

Iturri propio eta laguntza publikoez gain, herritarren dirua beharko dugu egunkaria abiatzeko. Hala ere, salmenta zuzena eta harpidetza gordina saihestu egin behar dira. Doanekotik saltzekora dagoen jauzi horretan, sekulako galera izateko arriskua dago. Gainera, doaneko hedabideen esparrua irabazia dugu, eta ezin diogu orain inori oparitu. Horregatik, ondo aztertu beharrekoa da herritarren dirua gureganatzeko formula, kuota edo ordain sari baten truke eman behar diegu beraientzat ordain sari baino gehiago eta guretzat gutxiago balio duen zerbitzu multzoa. Hau aztertzeko soziologo bat izango dugu, Julen Aranguren, Saiolanen gidaritzapean, ikasturte osoan lanean. Julenek ere, udarako plana prestatu eta udazkenean abiatuko luke, egunkariaren sorreran datu zehatzak eta oinarri finkoa eduki ahal izateko.

### **Multimediarantz**

Idatzi hau ez iluntzearen, esan gabe geratu da urrats hauek egiten diren bitartean, eguneroko beste hedabide bat izango duela *Goienak*, telebista. Eta epe horretan, beste euskarri batzuei dagozkien azterketak ere aurrera eramane beharko dituela, irratia eta internet, gutxienez. Azterketa eta prestatze lan horiek bultzatzeko, lantalde bereziak antolatuko dira, nahiz eta beste euskarrietako profesionalen lankidetzak beharko den. Izan ere, komunikazio enpresen bilakaeran multimedia funtzionamendua da jomuga, eta profesionalak eduki hornitzaileak bihurtzen dira euskarri guztietarako, nahiz eta gero eduki hori euskarri bakoitzera egokitu beharko den. Prozesu hau beste guztiekin interaktibo izatea, elkarri trazarik egin gabe, hori izango dugu erronka.

| GOIENAK KUDEATZEN DUEN HERRI PRENTSA |              |               |        |        |
|--------------------------------------|--------------|---------------|--------|--------|
| ■ Aldizkaria                         | Eremua       | Maiztasuna    | Orriak | Tirada |
| ■ Goienkaria                         | Dbgna-Aram.  | Astekaria     | 24     | 20.000 |
| ■ Aretxagazeta                       | Aretxabaleta | Hamaboskaria  | 24     | 1.500  |
| ■ Arrasate Press                     | Arrasate     | Astekaria     | 28     | 6.400  |
| ■ Berrigara                          | Bergara      | Astekaria     | 24     | 5.400  |
| ■ Goibekokale                        | Elgeta       | Hilabetekaria | 20     | 650    |
| ■ Kontuola                           | Antzuola     | Hamaboskaria  | 4      | 5.400  |
| ■ Ze Barri?                          | Eskoriatza   | Hilabetekaria | 24     | 1.700  |

Denbora behar izan zen prentsa egitasmoa adosteko, eta ez ziren urtebete lehenago ezarritako epeak bete. Baina indartuta irten zen *Goiena* hausnarketatik, partaideon elkarrenganako konfiantza sendotu egin zen.

### **Goienkaria kalean**

Egitasmoan zehaztu bezala, *Goienkariaren* atal komuna 2000ko abenduaren batean jaio zen, aurkezpen ekitaldi jendetsuan. Bi hilabete lehenago, lantalde bat sortu zen emaitza horretara garaiz eta duintasunez iristeko.

Lantalde honetan, ondo zaildutako jendea zegoen, eta produktu berriak herri aldizkariak emandako eskarmentua izango zuen oinarri. Hala ere, bazegoen nahikoa elementu berri buruhauste dexente emango zuena. Lehena, errotatibarena zen, eta aurrez menperatzen ez zen egunkari formatua. Diseinua neurri berrietara ondo egokitu behar zen, ikasteko zegoen koloreak nola ajustatu paper berrian, eta argazkien tratamendua ere egokitu beharra zegoen. Kasu honetan, bereziki, profesional ona jartzea izan zen erremedioa. Arazo teknikoak konpontzeaz gain, arrakasta handiko diseinua sortu zuen.

Bigarren ariketa zaila edukiak mailakatzeari izan zen. Ordura arte, maila bakarrean egiten zen lan, herrian, aldizkarian zer sartu eta zer ez izaten zen kontua. Baina *Goienkariarekin* beste maila bat sortuko zen, eskualdekoa, eta gaiak maila batean edo bestean kokatzea lan berria zen, eta batzuetan zaila. Are zailago zen gai bera bi mailatan sartu behar zen kasua, orduan maila bakoitzari zegokion erregistroa ere aurkitu behar zen eta. Hemen ariketa erreala egin zen, aurreko aldizkarietako ale mordoa hartu eta gaiak mailakatzen saiatu, irizpideak finkatu arte.

Hirugarren erronka, egoitza ezberdinak sarean lotu eta antolaketa deszentralizatuan jardutea zen. Aldizkariaren erredakzioetan bazegoen barneko sarea, baina langileak elkarren ondoan zeuden eta hurbiltasun

horrek komunikazio zuzenerako aukera guztiak ematen zituen. *Goienkariaren* erredakzio nagusia Bergaran egongo zen, *Berrigararekin* batera, baina Arrasateko eta Aretxabaletako taldeak aparte egongo ziren, nahiz eta taldekide izan. Erronka hau oraindik ere gainditzeko bidean da, azpiegiturak eta ohiturak ez dira-eta bat-batean sortzen edo aldatzen.

Laugarren koska, publizitatearena zen. Hedabide berri bat sortuko zen, iragarki asko hartzeko gai zena, baina lehengo osagarri behar zuen izan, eta ez lehiakide. Aldi berean, lantalde komertziala bete-betean zegoen Gabonak inguruko zurrunbiloan murgilduta, eta ez zegoen handik inor kentzerik, ez eta haien lanean interferentziak sortzerik. Zuzendari komertziala bereiztu zen lan honetarako, eta bezero ez ohikoekin ahalegina egin zen, emaitza oso onekin.

Eta bosgarren arazoa, banaketarena. Arazo gutxien lehendik astekaria zuten herrietan zegoen, biak astero uztartzeak eman zezakeen lana. Maiztasun txikiagoko aldizkarietan, banaketa ez zen beti behar bezain bizkorra edo profesionala, eta indartu egin beharko zen. Arazorik handiena, noski, aldizkaririk gabeko herriak ziren, hauetan hutsetik sortu behar zen zerbitzua. *Goienarentzat* balizko egunkariaren banaketa ikertzen ari zen pertsona arduratu zen gaiaz eta, zailtasunak zailtasun, lehen uneko emaitza oso txukuna izan zen, eta geroztik hobera egin du.

Oro har, 2000ko abenduaren 1ean sortu zen *Goienkariak* bide ona egin du, bere lehen hilabeteetan. Diseinuak gorespen asko jaso du, herritarren aldetik bezala hedabideetako profesionalen partetik. Edukien tratamendua gustuz hartzen du jendeak, eta eskualdeko edukietara ohitzen ari da irakurlea, denbora behar duen prozesuan. Eta publizitateari dagokionez, *Goienkariak* duen balio erantsia erakutsi du, herrietako aldizkarietan agertzen ez zen iragarle mota berria bereganatuz.

Emaitza ona izan da eskualdeko astekaria. Produktu erakargarria eta profesionala den neurrian, *Goienaren* irudia sendotzeko balio izan du. Eta eskola funtzioa ere bete du, asko ikasi du-eta lantaldeak *Goienkaria* eginaz, hurrengo urratsetarako oso baliagarri izango dena.

### **Hurrengo, edizioak**

*Goienkariaren* egitasmoan finkatu zen atal komuna kaleratu eta gero edizioak lantzen hasiko zela. Herrietako aldizkariak lau ediziotan bilduko ziren, egunkari formatura birmoldatuta eta nortasun ezaugarriak gordez.

Kontuz eta tentuz egin beharreko urratsa da hau. Helburu hartu da herri aldizkariak urte luzetan metatu duten kapitala, herritarren atxikimendua, oso osorik produktu berrira eramatea, ez dadin bidean ezer galdu. Gauzak ondo egitea eskatzen du horrek.

Erronka nagusiak, oraingoan, bi dira. Lehenbizi, erabakigarria da diseinuarekin asmatzea, zeren kasu honetan ez baita produktu berria sortzen, baizik eta lehengoa birmoldatzen. Eta hartzaileak lehengoa ondo ezagutzen eta asko estimatzen du. Horregatik, edizio berrian ezagutu egin behar du aldizkaria, aurkitu egin behar ditu atal edo zutabe ezagunak. Eta aldaketan zerbait irabazi egin behar du, argazkien tamaina eta edukien kalitatea, adibidez. Bestela, berehala piztuko zaio galdu duenaren mina.

Bigarren erronka, antolaketan dago. Lau ediziodun *Goienkariak* esan nahi du lehengo ekoizpena ia bikoiztu egingo dela. Berdin aldizkaririk ez duten herriek, edo maiztasun txikikoek, guztiek izango dute astekaria, atal komunaz gain. Lantaldea indartu beharko da, antolakuntza hobetu, azpiegiturak osatu eta tresna informatiko berriak eskuratu eta menderatu.

Hauek, dena dela, arazo teknikoak dira. Eta arazo teknikoei erantzun egokiak emateko gaitasuna badu *Goienaren* lantaldeak. Arazo arriskutsuagoa da herritarrek bilakaerari egingo dioten harrera.

Arrisku hori ahalik eta gehien murrizteko, ikerkuntza soziologikoa ari da egiten *Goiena*. Lehenik, eztabaida taldeak bildu ditu, lau herri handienetan bana eta irizpide osagarritz hautatutako jendez osatuak. Hauek iritzi mordoa eman dute, egindakoari eta egiteko asmoei buruz. Hurrengo urratsa ikerkuntza kuantitatiboa izango da, eztabaida taldeetatik irtendako hainbat aldagairen garrantzia neurtzeko. Lan honek pauta interesgarriak emango ditu, birmoldaketa zehazteko orduan kontuan hartuko direnak.

### **Egunkaria ikertzen**

Prensa arloan *Goienak* egunerokoaren ahalegina egin nahi du. Agian ez zazpi eguneko egunkaria, akaso lehen ordukoa barik, eguerdikoa. Baina asteroko maiztasunetik gora egiteko aukera guztiak jorratuko ditu. Debagoiendarrek irakurtzen dutenaren zati handiagoa izan nahi du, bere helburuak hobeto eta areago beteko direlako.

Dena dela, aldizkarigintzan ohitu denarentzat, asterokoan izan bada ere, egunkariarena sekulako erronka da. Are gehiago, lehengo jardueran arrakasta izan eta herritarren atxikimendu zabala jaso duenarentzat. Horregatik, *Goienak* ziur jokatu nahi izan du gai honetan, bere oraingo produktuek urteetan metatu duten kapitala produktu berrietara igaro dadin, bidean galerak izateko arriskua murriztu eta minimizatu.

Jokaera zuhurraren lehen adierazgarria, lehenago aipatu den bezala, trantsizio aldia zirriborratzea izan da, hau da, prentsa arloan egungo aldizkarietatik balizko egunkarira doan bidean tarteko urratsak eta helmugak ezartzea. Horrez gain, beste hiru ikerkuntza ildo lantzen ari dira.

Lehena, edukiei eta diseinuari dagokie. Lan hau *Goienkariarekin* berarekin ari da egiten. Astekaria den arren, egunkari itxura nabarmena du, eta egunkari balizkorako probaleku bikaina izaten ari da. Bada probaleku oraingo atal komuna, eskualde osorakoa, eta areago izango da lau edizioduna bihurtzen denean. Edukiak

mailakatzen ikasteko balio du, bai herrirako eta baita eskualderako ere, eta bietarako denak maila bakoitzean behar duen trataera zehazteko. Diseinuan ere, aparteko tresna da egunkari itxurako astekaria frogak egiteko, gaur egungo maketa hainbat modutan eraldatzeko, atal bakoitzaren balizko bilakaerak igartzeko, edo errotatibaren baldintzak eta emaitzen berri jakiteko. Egunkaria egiten bada, ziur esan daiteke dagoeneko produktu ona izango dela.

Bigarren ikerlana, egunkariaren banaketari dagokio. Produktua masibo izan dadin nahi da eta banaketa, pertsonalizatua. Eta honek arazo asko sortzen du. Lan mekanikoenak hartzaileen datu basea sortzea eta, kanal eginak erabiliz, kanpoko banaketa prestatzea izango dira. Baina auzoetako etxe guztietara egunero eta garaiz iristea, lan zaila da, oso zaila, eta helburua bera birdefinitu beharra ekar lezake. Adibidez, gosari orduko egunkaria izan partez eguerdikoa egiten bada, banaketa asko erraz daiteke, eguerdian jendea askoz ere bilduago dagoelako. Zenbait kasutan, banaketa etxeetara egin ordez, toki jakinetan egin daiteke, lantegi edo dendetan, eta lana asko arindu. Saiolanen tutoritzapean ari da ikerketa hau egiten *Goienak* ordaindutako pertsona bat. Udan amaitua izango du.

Azken ikerketa, hau ere ezinbestekoa, finantziazioaren gainekoa da. Berez, *Goienak* bere osotasunean behar zuen ikerketa hau, sarrera komertzialez eta diru laguntzez gain, hirugarren hanka aurkitzeko. Baina, denboraren joanean, egunkariaren bilakaerarekin lotuz joan da, normala denez, egunerokora jauzi egiteak *Goienaren* aurrekontuan ere jauzi handia ekarriko lukeelako eta, ondorioz, diru premietan. Hainbat harpidetza sistema ari dira ikertzen, hainbat egunkariaren klub esperientziak ere bai, eta beste hainbat aukera. Une honetan, galbahean pasatu ondoren gelditu diren aukera nagusiak jendartearen ari dira frogatzen, eztabaida taldeen bidez. Lan honen ondorioak, gero, neurketa kuantitatiboaren bigarren galbahetik pasatuko dira, sendoak eta adierazgarriak izan daitezten. Ikerketa hau ere Saiolanen tutoritzapean eta *Goienaren* kontura ari da egiten, eta udazkenerako egongo da amaituta.

Informazio hau guztia erabiliko da udazkenean egunkariari buruzko hausnarketan. Ahaleginerako borondatea argia da. Datuek ezina erakutsiko balute, hori onartzeko adorea ere badago. Oraingoan ezingo balitz, hor legoke lau ediziodun *Goienkaria*, herri guztiak eta eskualdea asteoro landuz, hurrengo ahaleginerako oinarri. Hori, oraingoan ezingo balitz.

# Eskualdeko atari informatikoa

## Lehen lanketa

“*Goiena* komunikazio zerbitzuak” kooperatiba komunikazioaren euskarri tradizionaletan abiatu da, hau da, prentsa, telebista eta irratan. Izan ere, kooperatiba sortu duten elkarteek arlo horietako hedabideak zituzten jardunean.

Hala ere, *Goienak* argi izan du, sorrera beretik, komunikaziorako euskarri berria bazegoela munduan eta bazetorrela gurera. Informatikan eta elektronikan oinarritutako teknologia eten gabe ari zela bilakatzen eta “Internet” izen orokorraren pean komunikazio sistema erabatekoa ari zela

osatzen egunetik egunera, horizontalean, interes ekonomiko handi eta mila jardun txiki autonomei esker.

Iazko udaberrian hasi zen gaia lehen aldiz lantzen, eta tartean oso argigarri izan zen multimedia enpresa jakin baten Interneteko zuzendaria den Iñaki Alzibarren ekarpena. Berak idatzi zuen ondoko testua, hausnarketarako abiapuntu izan zena. Urtebete igaro den arren, eta xehetasunak salbu, interesgarria delakoan osorik ekarri da dokumentua.

## *Internet: medioaren egungo egoera*

**Iñaki Altzibar** | **Medioa**  
2000ko udaberria

Internet mende amaierako fenomenorik handienetakoa da, eta komeni zaigu honetaz jabetzea. Ondoko urteetan, hainbat bitarteko erabiliz sartuko gara Interneten: sakelako telefonoak, telebista, ordenagailua, autotik, eta abar.

Etxea tresna digitalez gobernatuko da: musika ekipoa konfiguratu, etxeko tresna elektrikoak programatu, ziurtasun sistemak...

Argazkigintza, musika eta bideoa digitalak dira dagoeneko, eta belaunaldi edo iraultza digitalaren muinean daude. Jendeak Internetez entzuten du irratia, saretik ekartzen du musika, eta duela gutxi arte pentsa ezineko pertsonekin ditu harremanak, munduan sakabanatuta.

Gazteek erabiltzen dute nagusiki teknologia hau. Eta herrialde batek beste guztien gainetik: Estatu Batuak. EEBBetan, 14 urtetik gorako biztanleen erdiak erabiltzen du sarea, eta 14 urtetik 23ra bitartekoen %98k. Iazko azaroan bazeuden 118 milioi internauta eta hilero 5,4 milioi gehiago dira.

Egunetik egunera nabari da nola telekomunikazioen arloko enpresa handienak egoki kokatzeko ahaleginak egiten dituzten. Denek nahi dute leku bat hartu gune estrategiko horretan, komunikazio-enpresa handiak egoeraz jabetzen direnean —eta ari dira— haiekin itunak egiterakoan indartsu izateko. Horrela, merkatu globalizatuan lehiatu ahal izango da, berme handiagorekin.

Kulturaren ikuspuntutik, merkatuaren zatirik handiena “lagun amerikarraren” menpean geratzeko arrisku bizia dago, telekomunikazioen kostua dela eta. Izan ere, Interneten sartzea askoz ere merkeago da Estatu Batuetan, eta komunikazioen kalitatea askoz ere hobea.

Europar sortzen den trafikorik gehiena Estatu Batuek gobernatzen dute. Kultura morrontzaren arriskua inoiz baino larriagoa da, eta horren adibide da Telefonikak eta BBVAk Terrarekin egin dutena. Kultura hispanoaren esparrua hartuz, merkatuaren zati handia nahi lukete, ikuspegi diruzalea nagusi. Arazoa are larriagoa da kultura txikientzat.

Teknologiak guztion eskura egon behar du. Mendebaleko mundu “librean” ezberdintasun berriak ari dira sortzen, teknologia eta baliabide berrietara iristen ez diren pertsonak baztertzea dakartenak. Eta berdin kulturei buruz, komunikatzeko molde berrietara egokitzen ez direnak desagertzeko zorian izango dira, edo kultura nagusien mende geratzeko.

Internet ez da oraingoz hedatu Euskadin, eta gai honetan dagoen eskaintza urria da. Baina honek ez luke oztopo izan behar bide egokiak sortzen hasteko, sarean ibiltzea arrunt bihurtzen denean kalitatezko eduki eta zerbitzuak eskaintzeko prest egon nahi duenarentzat. Hurrengo bi urteetan aurreikusten da Euskadin sarea masibo bihurtuko dela, aurreko dagoeneko nabarmen igoko

*Gurea bezalako  
kultura komunitate  
bat bere oinarrizko  
osagaiak gordetzeko  
balioko duen  
egitasmoa abiatu  
beharrean dago.*

delarik. Honetan, behar bada, sakelako telefonoak izan lezake zerikusi handia, bide hau bultzatu nahi baita salerosketa elektronikoetarako. Gurean ordenagailu baino telefono gehiago dagoenez, WAP (Wireless Access Phone) teknologiak erraztuko luke Internetetarako sarbidea seguruenik.

Komunikazioa jaulkitzailearen eta hartzailearen artean gertatzen da. Hartzailearen arreta ez badugu gureganatzen, beste norbaitek harrapatuko du. Erronka honen aurrean, kultura batek iraungo badu, ugaldtu egin behar ditu jaulkipenak, seinale asko sortu behar ditu hartzaileengana iristeko.

Azken batean, pertsonen premiak bereziak dira, banakoak. Estatu Batuek ondo menperatzen dute teknologia eta badakite hark pertsonengan duen eragina. Eta abantaila hori baliatzen ari dira aspaldidanik, zerbitzuak eta informazioak pertsonalizatzeko, hori baita hartzaileak atxikitzeak giltzarria. Bide honetatik, eta Internetek ematen duen komunikatzeko aukerari esker, milaka edo milioika komunitate birtual sortuko dira. Multzorriok, lurralde jakin batean eta denboraren joanean kultura bihurtu diren komunitateen desagertzea ekar dezakete, hauetan lan itzela egiten ez bada.

Pentsa Internetek zure biki digitala aurkitzeko bidea ematen dizula, hau da, zure kezka berdina izango dituen, munduan edonon bizi dela ere. Harekin lor dezakezun kidetasuna zure inguru hurbilarekin duzuna baino sendoagoa izatera iritsi daiteke.

Horregatik, eta hemen oraindik iraultza digitala hasi besterik egin ez bada ere, gurea bezalako kultura komunitate bat bere oinarrizko osagaiak gordetzeko balioko duen egitasmoa abiatu beharrean dago, une honek dituen alde on eta txarrak kontuan hartuta.

Alde txarren artean, berandu ibiltzea dago, oraindik abiatu ez izana. Baina honek ere badu bere alde ona, hain zuzen, arrakasta izan duten ereduak baliatzea. Bestalde, gure esparruko errealitatearen berezitasunak kanpoko inork baino hobeto ezagutzeak abantaila ematen digu, teknologiaren ezagutza soilaren aurrean.

Teknologia ezagutzeko presa dago, helburuen aldeko lana abiatzeko, baina helburuak zehaztea ere ezinbestekoa da, horrela bakarrik aprobeitza ditzakegulako lehian ditugun abantailak, tokian tokiko pertsonen, arazoen eta premien ezagutza, batez ere.

### Medioaren bilakaera

Interneten gaineko lehen berria Eskoriatzan izan nuen, 1993an. Irakasle Eskolaren baitako multimedia enpresa batean egiten nuen lan. Multimedia ikastaro baten barruan, Kataluniako Unibertsitateko irakasle batekin internetez mintegia izan genuen. Oso jende gutxi zuen artean sarearen berri. Internet Explorer-ik ez zegoen eta Netscape zen nabigatzailearik erabili. Unibertsitatean asko erabiltzen zen irakasleen arteko lankidetzarako tresna gisa, inongo irabazi asmorik gabe baliatzen zuten posta elektronikoa, interesatzen zitzaizkien gaiak edo iritziak trukatzeko. Unibertsitate batzuk Web orriak sortzen hasi ziren, hainbat informazio edonoren eskura jartzeko.

Giza harremanetarako aurrerapen handia zen Internet. Inork inoren informazioa erabiltzen bazuen, nahikoa zen trukean izena aipatzea.

Sarera iristen zen informazioa gero eta zabalagoa zen. Nahi zena aurkitzeko

*Enpresak  
orain dela gutxi  
konturatu ziren  
sarearen abantailez.*

arazoak hasi ziren eta bilaketa errazteko bilatzaileak sortu ziren. Kode batzuk erabiliz, nahi den informazioa arin aurkitzeko bidea eskaintzen dute.

Orain bost urte inguru, gauzak aldatzen hasi ziren. Enpresa anglosaxoiek batez ere, sareak negozioen lehian eman zezakeen abantaila igerri zuten. Sarearen arorik merkantilistena hasi zen.

Enpresen katalogoak sortzeari ekin zioten. Ez zuten gehienetan aparteko erabilpenik, baina enpresaren irudia eta produktuak mundu osoan, egunean 24 orduz eta astean zazpi egunez ikusgai izateak besteetatik bereizteko balio zuen. Web orriak gero eta ugariagoak ziren, eta bilatzaileak ere bai. Hala ere, sarea oraindik orokorra eta sakabanatua zen.

Orduan, Estatu Batuetako zenbait enpresak mundu mailakoa izango zen aldaketaren buru izan beharra sumatu zuten, eta sareak ematen zituen aukerak baliatu beharra. Mugitzen hasi ziren, eta hurrengo hilabeteetan beste mugimendu asko ikusi zen. Eta lehia ireki zen, ondoko lehiakideekin:

- Bilatzaileak oinarritzko elementu bihurtu ziren. Denen helburu nagusia ahalik eta erabiltzaile gehien atxikimendua lortzea zen, eta Interneten sartzeko jende gehienak bilatzaileak erabiltzen ditu.

- Sarbide hornitzaileak. Hauek erabiltzaile askorekin zuten lotura, sarbide kontratuei esker.

- Telekomunikazioetako operatzaileak. Komunikazioaren gauzatzerik garatuena Interneten ari da gertatzen: posta elektronikoa, bideokonferentziak, teklatu bidezko solasak, eta abar.

- Software enpresak. Hauek negozio eremua handia dute hemen. Sareak programak, datu baseak eta abar behar ditu garatzeko.

- Eta azkenik, bankuak. Salerosketa elektronikoa agertu denean, eta sare bidez munduan erabiliko den dirutza izugarria somatzen hasi denean, gizarteko eragile kontserbadore hau ere mugitzen hasi da.

Hauekin guztiekin hasi zen aldaketa. Estatu Batuetan, sarbide hornitzaile nagusia izan eta milioika erabiltzaile biltzen zituen AOL (America On Line) enpresak *Yahoo* erosi zuen, munduko bilatzailerik erabiliena. *Geocities*, web orri pertsonalei aterpe emanez, munduko komunitate birtualik handienetakoa bilakatu zenak, bat egin zuen bilatzaile handienetakoa zen *Excite*ekin. Telefonikak *Olé* erosi eta *Terra* sortu berri du, bilatzailean oinarritutako eduki ataria.

*Yahoo*-ren helburua da Internetarako sarbideetan nagusia izatea. *Terrak* beste horrenbeste nahiko luke, merkatuaren eremu hispanoan eta honen ingurukoetan.

### **Edukiak, zerbitzuak, edo zerbait gehiago**

Honaino iritsita, galdera bati erantzun beharra sortzen da. Zein da funtsean enpresa hauek Interneten leku berezia hartzera bultzatzen dituen arrazoa?

Lehen hurbilketan, pentsa daiteke bereizteko premia dela, marketing ariketa bat, ohiko merkatuko lehiakideengandik bereiztuta agertzeko. Internet irabaztoki bihurtzen hasi zenean, negozio posiblea informazioaren salmentan ikusten zen, informazioa doanekoa barik ordainduzkoa izaten bazen, euskarri tradizionaletan den bezala. Publizitatea sartu zen eta, egun, informazioa doanekoa da.

*Erabiltzaile izango direnen atxikimendua lortzeko, dendaz gain, goi mailako eta balio erantsiko zerbitzuak eskaini behar dira.*

Hala ere, zalantzak hor dirau. Zergatik ahalegindu edukien eskaintza zabala eta mota askotako zerbitzuak ematen, publizitateari kasu handirik egiten ez dion hartzaileari?

Erantzuna, nire ustez, azken urtean eta Estatu Batuetan gertatu den merkataritza elektronikoaren eztanda lotua dago.

Sargune edo atari hauek saltoki itzelak bilakatuko dira, eta horretarako prestatzen ari dira. Ahalik eta erabiltzaile gehien atxiki nahi dituzte, gero balizko erosle izango direlakoan. Eta **borondatez, modu librean** erabiltzaile izango direnen atxikimendua lortzeko, dendaz gain, goi mailako eta balio erantsiko zerbitzuak eskaini behar dira, kalitatezko informazioan oinarrituak eta besteenak baino erabilgarritasun handiagoak.

### **Eduki atariak**

Edukia da, beraz, erabiltzaileak erakartzeko giltzarria. Egun, badira bi motatako atariak: horizontalak eta bertikalak. Horizontalak informazio orokorrekin osatutakoak dira: zinema, eguraldia, ekonomia, literatura eta abar, ahaztu barik bilatzaileraren bat, webmail-a (web orri bidezko posta elektronikoa), agenda, jokoak... Bertikalak, aldiz, arlo zehatzetara mugatutakoak dira, negozioak, telekomunikazioak, kirolak... Hauek ere zerbitzu osagarriak izan ohi dituzte.

Badira, baita ere, tokiko atari horizontalak (lanetro.com edo micciudad.com), informazio orokorra erabiltzen dutenak, baina esparru mugatu bati lotuak. Atari horizontal nagusietan ere nabari da tokiko informazioari lehentasuna emateko joera. Atari hauek ez dute informazio bera ematen toki ezberdinetan sartuta.

Informazioa da giltza. Ondo egituratutako informazioa, gaurkoa eta gaurkotua.

### **Merkataritza elektronikoa**

Egin dezagun gai honetaz aipamen laburra. Bi motatako eragiketa egiten dira. B2B, edo Business to Business, enpresen artekoa da, hauen arteko eskari, ordainketa eta gainontzeko harremanak Interneten bitartez egiten direnean.

Aldiz, B2C, edo Business to Consumer, enpresen eta azken kontsumitzaileen artekoa litzateke. Bigarren hau, hala ere, denda tradizionalaren ideiatik harantzago eramanez behar da.

Interneten erabiltzaileak aukera asko ditu erosteko, nekerik gabe. Bere arreta (eta erosteko gogoia) bereganatu nahi duenak berezia izan behar du. Berezia, bezeroa tratatzeko moduan, eta bere eskaintza haren ezaugarrietara egokitzeko gaitasunean, bezero bakoitza bakarrik biltzen. Berezia, produktuarekin batera balio handiko informazioa ematen duelako. Prezioan berezia, eta produktuan, eta informazioaren gaurkotzean... Ahalegin itzela egin behar da, arrakasta lortzeko bada.

Puntu hau osatzeko, hona hemen barrabés.com etxeko Carlos Barrabés-i entzundakoak. Web negozioan oinarritutako komunitate arrakastatsuak sortzeko moduz ari da.

- Bezeroa konforme bakarrik ez, txundituta utzi behar dugu.
- Guneak interaktibo izan behar du: bezeroa – bezeroaz informazioa – bezeroa

*Produktu  
eta informazio  
eskaintzak  
pertsonalizatu  
egin behar dira.*

- bezeroa – dendariak – bezeroa  
bezeroa – saldu aurretiko eta osteko zerbitzuak – bezeroa
- Balio erantsiko informazioa behar du.
  - Erabiltzaile bakoitza berezia da, zerbitzua bakoitzari egokitu behar zaio.
  - Bisitariekin komunitate egin behar da, aktiboa eta eskuhartzailea izango den komunitatea.
  - Informazioa etengabe gaurkotu behar da.
  - Bezeroekin izan ditugun harremanen historia gorde behar da.
  - Sistemak mailakatua izan behar du, mailaz mailakoa alegia.
  - Produktu eta informazio eskaintzak pertsonalizatu egin behar dira.
  - Hizkuntza, agian, ez da arazo izango urte batzuren buruan (robotak).
  - Informazioa sortzen duen lantaldeak profesionala behar du izan.

*Goienak* diagnostiko honen gainean zehaztu du bere estrategia, hurbileko komunikazioak euskarri berrian izan ditzakeen aukerak aztertu eta gero. Hausnarketa horren emaitza da *Goienet* egitasmoa.

### **Hurbilekoa sarean**

Laster ultrakonektatuta egongo gara. Airez, kablez, uhinez eta zuntzez, milaka jasoko ditugu seinaleak, huntaz eta hartaz, huntaz baino hartaz gehiago. Informazio ugari izango dugu, eta zuzenean edonondik emana, baina gutaz gutxi eta euskaraz, gutxiago.

Dagoeneko, eta sareari esker, munduko edozein toki dugu eskura. Distantzia berdina daude auzokidearen ordenagailua eta Singapurrekoa. Aldi berean txateatu ahal dugu baterekin nahiz bestearekin. Akordatu barik, hurbiltasuna ezabatu egin daiteke. Eta hurbiltasuna da gure gaurko antolaketaren ardatza. Auzoa eta herria, hurbilekoekin osatzen ditugu. Euskaraz hurbilekoekin egin ahal dugu. Gure interesen hamarretik zortzi, gutxienez, hurbilean daude.

Mundukoa bezainbat behar dugu hurbilekoa, kopuruz gehiago eta maiztasunez sarriago. Mundukoa bezain eskura behar dugu hurbilekoa sarean ere. Orain arte komunitate izan dena ez bada sarean ere komunitate bihurtzen, nekez iraungo dute mundu berrian haren hizkuntzak, kulturak eta gainontzeko komunitate ezaugarriak.

### **Atariak**

Sarearen garapenean hitz magikoak izan badira, denetarako balio zutelako, horietako bat zalantzarik gabe “atari” hitza da. Berez, oso kontzeptu zabala da, eta bilgune edo sarbide hitzak ditu parekoak.

Sarea hedatu eta edukiz bete den neurrian, bere antolaketarako tresnak sortu behar izan dira, nabigatzea errazte aldera, eta tresna horietako bat atariak izan dira.

Labur esanda, kide izan daitezkeen interesen bilgunea litzateke ataria. Horrela, sarean antolatu gabe dauden interes komunitateak, atarien inguruan antola daitezke, besteak beste.

Hain zuzen, hemen hasten da *Goienaren* interesa atariekiko, hauek komunitate birtualak sortzeko tresna izan daitezkeen neurrian.

### **Goienet**

Sareak hurbiltasuna ezaba lezakeela genion gorago. Eta hurbiltasuna antolaketa-ardatz du euskal gizarteak. Historiaz, kulturaz, edo hizkuntzaz komunitate direnak sarean ere komunitate irautea dute erronka. Bere nortasun ezaugarriak etorkizunera eramane nahi dituen komunitateak, sarean komunitate birtual izateko ahalegina egin beharko du, sarean ere hurbiltasuna kohesio tresna izan dadin.

Euskal gizarteak dituen hedabide orokorrak nahiko hurbilekoak dira. Hurbilagokoak toki komunikabideak. Guztien artean eutsi diote, neurri batean, munduko hedabideen tirakadari. Beste horrenbeste egin behar da orain sarean. Lan horren bere zatia egitera dator *Goienet*.

*Goienet* atari bat izango da. Hurbileko —Debagoieneko— edukiz betetako ataria. Hortxe aurkitu ahal izango dira *Goienaren* hedabideetako erredakzioek sarerako landuko dituzten albiste eta informazioak, ahozkoak edo idatziak, azken ordukoak presaka idatzita, besteak landuago, eta kablea hedatzen denean telebista irudiak ere bai. Hainbat zerbitzu: autobusak, farmaziak, turismo argibideak, gida komertzialak edo ekitaldien agenda... Baita administrazioen desmaterializazioak ekarriko dituen aukera guztiak: udal eskariak, ordainketak, ziurtagiriak, altak eta bajak, eta beste mila tramite, etxetik egiteko moduan. Berdin eskualdeko unibertsitatearen edukiak, hala hitzaldi edo jakinarazpenak, nola matrikulatzeko bidea

edo azterketen emaitzak jakitekoa. Horrela, zerrenda luzea egin daiteke eskualdeko eduki balizkoen hornitzaileekin.

Eduki horiek hartzen dute debagoien-darren denboraren zati nagusia. Horri eransten bazaizkio posta elektronikorako sarbidea, bilatzailea, eta sareratzeko lotura batzuk, eskualdeko internauta arruntaren premien % 80 estaltzen duen zerbitzua izango genuke. Honek, epe ertainera, publizitaterako aukera zabaltzen du, baldin eta ataria "hit" asko biltzeko gai bada, orduan iragarleentzat ere interesgarri bihurtuko delako.

*Goienet* ere euskara hutsez egingo da. Ordenagailuaren aurrean dabilena ohituta dago apenas ulertzen dituen hitzen artean manejatzen. Beraz, kizkuntza ez litzateke oztopo izango. Eta bitartean, prestigiozko tokian jarriko da euskara, alegia, mundu zibernetiko eta ultramodernorako sarbidean.

Hauxe litzateke *Goienet* atariaren zirriborroa:

# Goienet

Debagoieneko ataria

Publizitatea

Bilatzailea

Kategoriak

Alta eman

## Lagunartea

- Txat
- Foroak
- Web posta
- Sakelakoen mezuak
- Iragarkiak

## Informazioa

- Azken berriak
- Artikuluak
- Elkarriketak
- Artea & kultura
- Hemeroteka

## Udalak & Mankomunitatea

- Akordioak
- Tramiteak
- Dokumentuak

## Unibertsitatea

- Albisteak
- Tramiteak
- E-mailak

## Enpresak

- Albisteak
- Harremanak

## Zerbitzuak

- Autobusak
- Farmaziak
- Ikuskizunak
- Kale gidak

## Aisialdia

- Telebista
- Musika
- Jatetxeak
- Hotelak
- Eskualdea ezagutu

## Debagoieneko gida

- Bilatzailea

## Albisteak

Argazkia

- Gaia
- Laburpena
- Soinua/bideoa

Argazkia

- Gaia
- Laburpena
- Soinua/bideoa

## Loturak

- Artea & kultura
- Zientziak
- Kirola
- Ekonomia
- Enpresa
- Hezkuntza
- Jendea
- Informatika
- Lorezaintza
- Internet
- Bidaiak
- Motorra
- Komunikabideak
- Aisialdia
- Osasuna
- Gizarteak
- Natura
- GKEak

## Web posta

Erabiltzailea

Pasahitza

## Goidenda

- Eskulangintza
- Argitalpenak
- Erreserbak
- Jakiak

Inkesta

Bidali lagun bati

### **ZOPE eta e-gune**

Informatikan oinarritutako teknologiaren bilakaera bizkorra da, eta ez da lan erraza ondo hautatzea. Une honetan, *Goienak* Zope zerbitzarian ikusten ditu

aukerarik onenak, bere eskuragarritasuna eta prestazioak kontuan izanda. Hauek dira xeheago zerbitzari honen ezaugarriak, Code&Syntax enpresa hornitzaileak eskainitakoak.

## Zer da Zope?

**Code & Syntax**  
2001eko udaberria

Zope Web Aplikazioen Zerbitzari bat da (Web Application Server): web orrialde dinamikoak edo beste modu batera esateko, web orrialdeak erabiltzaileak eskatzen dituen momentuan sortzen dituen programa bat.

Web sistema normalean, web orrialdeak pertsona batek sortzen ditu eta gero zerbitzari batean gordetzen dira. Interneten nabigatzen dagoen bat toki hartara iristean, zerbitzariak orrialdea bidaltzen dio zuzenean, sortu zeneko eduki eta itxura berberarekin.

Zope eta antzerako sistemekin, ordenagailuak momentuan sortzen ditu web orrialdeak, behar diren elementuak batetik eta bestetik hartuz: jaso duzun azkeneko e-posta, azken orduko berriak, edo txateko lagunak bidali dizun mezua jarritz. Zein informazio eta zein momentutan eman behar den, programatu egiten da aurretik.

### Zertarako balio du?

Orokorrean, eguneratze jarraia eta erabiltzaile askoren artean aldatuko den edozein webgune sortzeko balio du Zopek:

- Albistegiak: edozein albiste berri gehitu eta momentuan azaltzen da web-gunean.
- Eztabaidaguneak: albisteak bezala, baina erabiltzaile askok batera lan egin dezakete beraien aportazioekin.
- Informazio datu baseak: telefono gidak, artxibategi bateko datuak, fondo kulturalak (liburu osoak, argazki bankuak, eta abar) Microsoft Access, SQL, Oracle, eta beste hainbat datubase sistemarekin bateragarria da.
- Produktuen katalogo eta dendak.
- Banka elektronikoa.
- Enpresa barruko agenda eta informazio sistemak.
- Hauetako zenbait zerbitzu uztartzen dituen interneteko atariak.

Guneko edukia beste proiektu batzuetan erabiltzeko esportagarri egiten du, XML estandarren bidez. Era berean, beste guneeetako edukia ere integratzen ahal da Zope gunee batean.

- Eta bururatzen zaizun beste edozein sistema.

### Zer behar du Zopek abiatzeko?

Zope ia edozein ordenagailutan jar daiteke martxan, baita etxekoan edo portatil batean ere. Momentu honetan, Windows, MacIntosh, Linux eta zenbait UNIX sistematan funtziona dezake. Berarekin lan egiteko berriz, sarera konektatuta dagoen edozein ordenagailutik egin daiteke, Mac, PC edo beste edozein sistema dela.

*Goienet* gaur dagoen puntutik zerbitzu ematen hasteko puntura eramango duen prozesuak urte amaiera arte iraungo luke. Bitarte horretan, edukiak zehaztu behar dira, ataria diseinatu, zerbitzaria egokitu, loturak eta eduki hornitzaileak finkatu, eta zerbitzuaren bideragarritasuna aztertu.

### **e-gune**

2000ko udazkenean jakin zen bazebilela Debagoienean egitasmo bat, “e-gune” izenekoa, hainbat eragile pisuzkoen artean bultzatuko zena, Interneterako

enpresa proiektuak bideratzeko. *Goienak* berehala ikusi zuen oso egokiera ona izan zitekeela bere *Goienet* egitasmoa garatzeko, eta harremanetan jarri zen “e-gune”ko arduradunekin. Aurrerago, *Goieneten* aurkezpen formala ere egin zen.

Hala ere, “e-gune” abiatzeko hasieran aipatu ziren egunak atzeratu egin dira, eta *Goiena* zain dago.

# Eskualdeko irradi egitasmoa

## Abiapuntua

Aurrekari historikoen kontakizunean aipatu da *Oñati Irratiaren* sorrera eta *Arrasate Irratiarena*. Lehena, sortu zenetik Oñatiko Udalak zuzenean kudeatzen du, bere langileekin. Arrasatekoan, aldiz, udalaren borondatea ez zen zuzenean kudeatzea, eta Eusko Jaurlaritzarekin zirrikitu bat adostu zen kudeatzea “de facto” Arkoren esku uzteko. Gero, Arkok *Goienarekin* ekoizpen kontratua sinatu zuenean, Arrasateko irratia egiteko ardura kooperatibak hartu zuen.

*Goienaren* estrategia eskualdean lehena eta onena izatea delako, balizko lehiakideei aurrea hartzea da bere jokamoldeetako bat. Honen arabera, irratia ez da presazko arlotzat hartu, legearen itxitasunak udalen kudeaketa zuzena ezartzen duenez, lehiakide askoren beldurrik ez dagoelako. Hala ere, irratia kontsumoa handia da, eta medio honek ezaugarri bereziak ditu, *Goienaren* eskaintzaren barruan toki esanguratsua ematen diotenak.

## Irratia eskualdeko multimediar

*Goienaren* hasierako egitasmoan eskualdea eta herria, biak hartzen ziren jardun eremu. Medio bakoitzarentzat eremu egokiena zein izango litzatekeen ere zehazten zen. Telebistak, bere zailtasuna dela eta, eskualdeko medioa behar zuen izan, bakarra eta indartsua. Prentsa, eskualdekoa eta herrikoa izango zen, atal batzuk eskualderako komunak eta besteak herrikoak, ediziotan bilduak. Irratiari, bere sinpletasuna medio, herrian ikusten zitzaion eremu nagusia.

Izan ere, *Goiena* ez da jaio eskualdeko hedabideak bakarrik sortu edo kudeatzeko.

Eskualdeko baliabideak optimizatzea du helburu, baina bakoitza dagokion eremuan. Herrian optimiza daitekeena ez da eskualdeko bihurtuko. Ikuspegi honetatik, irratia herriartasuna telebistaren eskualdetasuna orekatzeko bidea izan daiteke.

Irratia erraza da, lantalde handi barik pertsona bakarrak egin lezake zuzeneko emisioa. Zuzeneko edonondik egin daiteke, ez estudiotik bakarrik. Sakelako telefono bat nahikoa da irratian zuzenean sartzeko. Honek sekulako aukera ematen du zerbait gertatu eta minutu gutxira handik bertatik gertatutakoa entzuleei kontatzeko. Ez dago beste mediorik aukera hori hain modu errazean ematen duenik.

Gainera, irratia da herritarren partehartzerako biderik onena. Edonork ahal du, dagoen tokitik, telefono dei bat egin eta irratian zuzenean sartu, albiste, iritzi, adierazpen, ohar, kexa edo ekarpenak emateko.

Legez, udal guztiek dute irradi lizentzia bat izateko eskubidea. Mugak ere badaude, noski, hedapenari buruzkoak edo beste irradi batzuekin elkarlanean jardutekoak. Baita kudeatze lanak inoren esku uzteko ere. Baina legeak ematen dituen aukerekin, eta mugak gainditzeko aurki daitezkeen zirrikituekin, nahiko erraza da udal irratien egitura eraikitzea.

Eta, azkenik, irratia merkea da, tresneria digitalak ahalbidetzen du giza baliabide gutxirekin emaitza ganorazkoak izatea. Hau da, ekoizpen handia iritsi daiteke, gastu gutxirekin. Tresneria, bestalde, estudiokoa nahiz hedapenerakoa, ez da garestia eta edonoren eskura dago. Zenbait

ikastetxek edo giza multzok bere irratia sortu badu, zergatik ez du udal bakoitzak berea izan behar?

### **Irratia, nola?**

Herri bakoitzak bere irratia izan lezake, eta ona lizateke Debagoieneko herri guztiek irratia izatea. Baina herri guztiek ezin dute, beraien kabuz, irradi emisio behar bezain luzea eta profesionala egin. Ez lizateke hori antolatzeke modu egokia.

Antolaketa ona beste hau izan daiteke: 24 orduko emisio bateratua aireratuko duen irratia eratu eskualdeko kontuekin eta laguntzaileen saioekin, eta horren gainean herri bakoitzak bere ahalmenaren arabera emaitza ezartzea, emisio komuna eten eta emisio propioa eskainiz.

Egin liteke 24 ordu iraungo duen emisio komuna, bakarra. Lagungarri izango lituzke telebistako erredakzioa eta *Goienkariakoa*. Jarraipena ziurtatuko luke, hau da, edozein herritarrek mugitu gabe utziko luke irratiko dila, jakinda beti izango duela intereseko emisioa. Gaur egun, oso nekeza da entzuleari gogoraraztea une eta egun jakinetan “bere” irratia aurkitu behar duela, bestelako ordu guztietan ez bazaio sintonia horretan ezer eskaintzen.

Emisio propioa herri bakoitzak zehaztuko luke *Goienaren* baitan. Kontuan hartu behar da herri guztietan —txikienean ere bai— egongo dela norbait kooperatibako hedabideetarako lanean. Norbait hori, herriaren tamainaren arabera, pertsona bakarra ordu batzuetan edo talde dextentea jardun osoz izango da. Oinarri horren gainean, profesionalekin osatzeko aukera dagoelako edo laguntzaile talde sendoa sortu delako, herri bakoitzaren emisioa —egonkorra eta ohikoa— finkatuko litzateke.

Antolaketa honetan, herri bakoitzak izango luke emititzeko gaitasun osoa, estudio, hedapen sistema eta guzti. Eta nahikoa luke emisio komuna etetea, haren gainean berea aireratzeko. Aukera hau baliatu ahal izango litzateke edozein unetan, azken

orduko albiste bat edo presazko iragarpen bat emateko, adibidez.

### **Korapilo? Zein korapilo?**

Bai, goragoko proposamenak badu korapilorik. Debagoienak bederatzi herri ditu, beraz, bederatzi herri irradi izango lituzke. Gainera, emisio bateratua egin eta aireratzeko beste bat behar luke, hamargarrena. Legez ez legoke aukerarik, eta diruz gehiegizkoa lizateke. Nola askatu korapiloa?

Geografiak eman lezake erantzuna. Gaur egun, *Arrasate Irratia* ia eskualde osoan entzun daiteke, bere potentzia mugatua den arren. Izan ere, Murugainen du irratia emisorea, eta Murugain eskualdeko erdigune geografikoa da. Bestalde, irratia erredakzioak telebista-koarekin batera dihardu, Arrasateko Otalora kalean.

Demagun, orduan, *Arrasate Irratia* birmoldatu eta *Goiena Irratia* bihurtzen dela. Behar besteko potentziarekin, berak egingo luke emisio komuna, telebistarekin elkarlanean eta sinergiak baliatuz. Ordu batzuk —egunean bi, hiru?— izango lituzke Arrasaterako soilik diren gaietarako. Ordu horietan egingo lukete beste irratiek beren emisioa, seinale komuna etenda. Arrasatekoa besteko emisio propioa iristen ez den herriak Arrasateko albisteak jasoko lituzke, berea eten eta emisio komuna hasi bitartean.

Abiatzeko ez da aukera txarra. *Arrasate Irratia* dagoeneko ari da eskualdera irekitzen. Bi maila definitzen hasi beharko luke, herrikoa eta eskualdekoa, eta hau telebistako erredakzioarekin landu. Lantaldea indartu egin beharko luke, eta herrietako erredakzioak irratian ere inplikatzeko hasi. Laguntzaile sarea sendotzen has daiteke, beste herrietara hedatuz. Eta seinale honen gainean, aurrera egin nahi duen udalak nahikoa luke *Goienarekin* zerbitzu hori ere lotzea eta, bere emisioa prestatzen denean, bestearen gainean aireratuko litzateke.

Aurrerago, aukera gehiago ere sor daiteke. Herri bakoitzean ikusi egin beharko da zer nolako indarra hartzen duen bertako irriatiak. Gerta daiteke sekulako garapena izatea, ekimen handiko taldea sortzen delako, eta orduan herrikoaren presentzia gero eta nabarmenagoa izango litzateke 24 orduko emisioan. Irrati indartsuak sortzen diren neurrian, elkarren arteko funtzionamendua egokitu egingo litzateke.

Hemen, *Goienaren* beste jardueretan bezelaxe, zentzuz jokatzeari da kontua. Helburu partikularren gainetik, herritarrei komunikazio zerbitzu egokiak ematea da kooperatibaren eginkizuna, eta antolaketa irizpideak horretara mugatu behar dira.

### **Legearen gainean**

Esana doa udal irratien legeak asko errazten duela lizentziak lortzea, beti ere udalei emango zaizkielarik, eta asko zailtzen duela kudeatzearena, derrigorrez udalen esku jartzen du eta, irratien kudeaketa zuzena.

Hala ere, Arrasateren kasuak argi erakusten du ezina ekinez egin daitekeela, eta kudeaketa zuzenarenak ere baduela lege estuan zirrikiturik. Eusko Jaurlaritzari galdera eginda, honek ahoz erantzun zuen bi puntu zeudela ezinbestean errespetatu beharrekoak, udal batek bere irratia kudeaketa inorekin elkarlanean gauzatu nahi bazuen. Lehena zen, udala izanik irratia jabea eta lizentziaren titularra, udalak izendatuko zuela irratiko arduradun eta erantzule izango zena. Eta bigarrena,

irriatiak publizitate sarrerarik izaten bazuen, sarrera horien arrastoak agertu egin behar zirela udal kontuetan.

Erantzun hau eta Jaurlaritzaren ahozko oniritzia jaso ondoren, Arrasateko Udalaren eta Arkoren artean lankidetzak hitzarmena adostu zen, irratia elkarlanean kudeatzeko, eta hitzarmen horren ondorioz iritsi zaio *Goienari* kudeaketaren ardura. Aurrekaririk bada, beraz, eta bidea —bidezidorra— zabalik da, aurrera egin nahi luketen beste herrientzat.

Hala ere, hau behin behineko konponketa litzateke. Berez, ez du zentzu handirik legearen itxitasunak. Finean, udal zerbitzuen kudeaketa zuzena aukera bat da, beste batzuen artean, eta udal bakoitzak ikusiko du zein duen aukerarik gustukoena. Areago, joera bat ari bada nagusitzen administrazioetan, hori zerbitzuen kontzertazioa da, hau da, ezarritako baldintzen pean zerbitzua ondoen eman lezakeen enpresarekin lankidetzak garatzea. Joera honek gastuak eta buruhausteak murrizten dizkio administrazioari, eta lagundu egiten du zerbitzua eraginkorragoa izaten.

Horrela, behin betiko bideen bila, ahalegina egin beharko litzateke udal irratien legea egokitzeko, eta zeharkako kudeaketari tarte egiteko. Orain artekoa traba zelako udal irratien sorrera izoztuta badago, traba hori kentzeak lagundu egingo luke herriz herriko irratien loraldia eragiten.

# Zerbitzuak: sail komertziala

## Abiapuntua

Hedabideen ekoizpen zuzenean erabiltzen ez diren jarduera guztiak “Zerbitzuak” atalean bildu dira, *Goienaren* organigraman. Ekoizpenari laguntzeko edo hura osatzeko behar diren lanak dira, ekoizpenaren zerbitzu osagarriak. Erredaktoreak, teknikariak eta diseinatzaileak ekoizpen zuzenean ari dira, baina beraien lana egiteko, azpiegitura informatikoa, erosketak eta hornidurak behar dituzte, ekoiztutakoa banatu, saldu eta diru bihurtzea ere bai, eta abar, eta abar. Lan horiek guztiak dira “Zerbitzuak”.

Zerbitzuen arlo hau zen herrietako hedabideetan gutxien garatutakoa, baliabide urriak beti ere errazago bideratu ohi direlako ekoizpenera, eta ez lan “indirekto”etara. Kasu askotan, erredaktoreek eurek egin behar izan dituzte lan komertzialak edo administrazioak. Beraz, abiapuntuan gabezia eta hutsune asko zituen zerbitzuen arloak.

Zerbitzuetan, sail komertziala zen garatua, eta aurrerantzean ere izango da. Horregatik, atal berezia eskaini zaio.

## Bateratzeko urratsak

Arrasateko taldeak bazituen hiru komertzial egun osokoak, eta Bergarakoak bat. Gainontzekoetan, ez zegoen komertzial berezirik, bestelako langileren batek orduka egindako lana zen. Eta, hala ere, 70 milioi inguruko salmenta kopurura iristen ziren herri guztien artean.

*Goienak* hasieratik zuen enpresa izateko borondatea, horren ondorio guztiak onartuta. Bere helburu nagusienetako bat diru sarrera ahalik eta altuenak lortzea da, autofinantziazioa hobetu eta diru

laguntzekiko menpekotasuna arintzeko. *Goiena* edozein enpresa merkantiletatik bereizten duen puntu bakarra, baina garrantzi handikoa, helburu komertzialen gainetik gizarte kohesioa eta euskara bultzatzeko helburua da. Autofinantziazioa ahalik eta handiena izatea, beraz, tarteko helburua litzateke. Baina lortu beharreko helburua, nolana ere, bera gabe ez legoke eta azken helburua lortzerik.

Gauzak horrela, sail komertziala indartzea lehentasuneko lana izan da bateratze bidean. Eta ez da erraza izan komertzialen bateratzea, edo beren artean leihan ibiliak zirelako, edo lehengo produktuei atxikimendu berezia zietelako, edo elkarte bakoitzaren diru sarrerak kolokan jartzen zituelako. Hala ere, zailtasun hauek gaindituz joan dira.

Elkarteei zegozkien arazoak konfiantza sortu den neurrian konpondu dira. Duela urtebete elkarte gehienek zalantzan jartzen zutena, bakoitzaren negozio osoa kooperatibaren esku uztea, sei hilabete geroago posible ikusten zen, eta handik sei hilabetera, egina dago.

Komertzialen artean ere, duela urtebete herrien arteko elkarlana egoki ikusten zen, baina bakoitzak bere etxean segituz. Sei hilabete geroago produktu komunak saltzen ari ziren, eta handik sei hilabetera sail bakarrean batu dira.

Komertzialen bateratze honetan erabakigarriak izan dira *Goienaren* bi erabaki. Lehena, zailtasun guztien gainetik, helburu honi eustea, enpresa berriaren zutabe nagusitzat hartuz. Kosta ahala kosta, eskualdeko hedabide berriak ezin ziren herrietakoekin leihan sartu. Hemen

epeltasunik azaldu izan balitz, agian kooperatibaren barne batasuna ez zen izango gaur den bezain trinkoa. Eta bigarren erabakia, merkataritza taldea bateratu aurretik ere zuzendari komertzial bakarra hautatzea, bateratze bidean erreferentzia izan zedin. Gai honek merezi du azalpen luzeagorik.

*Goiena* sortu aurretik, herri hedabide-etako lan komertziala —aldizkarietakoa, bereziki— ondo bideratua zegoen. Aldizkarien sorrera beretik norabide egokian jarri zen lan hau, eta geroztik egindako urratsak aproposak izan dira salmenta kopuruek urtez urte gora egiteko. Egoera horretan, kooperatiba berriak zekartzan aldaketak arriskuak ere bazituen berarekin. Produktu berriak sortzea, lehengoak birmoldatzea, herriko mugak gainditu eta eskualdeko esparru berrian jardutea, urrats horiek guztiak arriskutsuak ziren, eta horrela azaldu zuten komertzialek.

*Goienak*, hala ere, aurrera egiteko asmoa zuen, arriskuak txikiagotzeko aukera guztiak baliatuz. Eta aurrera egiteko elementu bat zuzendari komertzialaren hautaketa izan zen. Deialdi ireki eta publikoa zabaldu ondoren, ahalegina egin zen perfil ezberdineko jendea erakartzeko, lan komertzial gordinagoetan jardun izandako jendea, hain zuzen ere. Zuzendari berriak esperientziaduna behar zuen izan, salmentan trebatua, helburuen arabera jokatzeko ohitua, produktu edo zerbitzu berriak asmatzeko sortzailea eta bezero berriak aurkitzeko ausarta. Hautaketaren emaitzak bete-betean ase zituen aurrez jarritako baldintzak eta handik aurrera, iazko udazkenean, hasi zen sail komertzialaren bilakaera.

Hurrengo hilabeteetan, zuzendari komertzialak eragin zuen dinamika bateratzailea ondorioak ematen hasi zen. Produktu komunetarako gutxieneko tresnak adostu ziren, eta aurrera begirako arazoei erantzunak aurkitzen hasi. Sei hilabete geroago, talde komertziala batuta dago, oinarritzko estrategiari buruzko hausnarketa egina dauka, eta behar dituen azpiegitura

informatikoak sortzen ari da. Aurten talde gisa sendotzea du helburu, hurrengo urteetako erronkei aurre egiteko.

### **Hausnarketa**

Jatorriz, *Goienako* komertzialak produktu bakarrarekin ohituak zeuden edo, gehienez, produktu nagusi bat eta hainbat osagarrirekin. Oinarri honekin, produktu saltzaileak ziren jarreraz, hau da, produktua ondo ezagutu eta balizko bezeroei ondo saltzen zekitenak. Beti, ordea, produktua zen ardatza eta bezeroa eroslea.

*Goiena* multimedia izateak, multiprodukzioa ere adierazten du. Eta euskarri ezberdinetan ekoizteak, monoproduktuan oinarritutako jarrerak baliogabetu egiten ditu. Multimediaren katalogo osoa salduko duten komertzialak behar dira eta hau aldaketa garrantzizkoa da. Areago, lehenbizi katalogoa zehaztu eta ondoren bezero bila irten ordez, arrakasta komertzial handiagoa lor daiteke lehenengo bezeroak ondo ezagutzeko ahalegina egin eta gero haien premietara egokituko diren produktu eta zerbitzuak pentsatzen badira.

Kezka hau oinarri hartuta, urte hasieran jarduera komertzialari buruzko hausnarketa abiatu zen, eta estrategia berriaren ildo nagusia finkatu, dokumentu batean. Han jasotzen direnez arazoak eta irtenbideak, ondoren doaz dokumentuaren atal garrantzizkoenak:

## *Talde komertziala eratzeke proposamena*

Mikel Irizar  
2001eko otsaila

*Goiena*, konberjentzia edo bateratze prozesua da. Eskualdeko hedabide eta lantaldeak hurbilduz joan dira, eta asmoak bateratu diren neurrian, elkarrenganako konfiantza sortuz joan da eta bategiterako urratsak etorri dira. Bategitea, dena dela, hainbat puntutan egin beharrekoa da, arloen arabera. Telebista, adibidez, guztiz bategina dago eta prentsa, aldiz, nahiko berezita. Talde komertziala erdibidean legoke, antolaketa bateratua zehazteko unean. Proposamen honek hausnarketarako abiapuntu izan nahi du.

### **Orain arteko jardun komertziala eta lantaldea**

Herri aldizkariak urteak daramatzate publizitate salmantan. Profesionaltasun handiagoz astekariak, eta amateurrako besteak, baina guztien artean zifra potoloa lortzen dute, eta urtez urte potoloagoa. Telebistaren fakturazioa urriagoa da, baina ez da baztertzen baliabide eta denbora gehiagorekin orain arteko mugak gaindi daitezkeenik. Azken datuen arabera, 2000ko maiatzean hasi zenetik GOITBk %20an gaititu du lehengo ATBren publizitate fakturazioa. Horrez gain, gida komertzialak eta Arkok egin ohi duen Udal euskaltegien kanpaina produktu errentagarriak dira, eta bide baten adierazle. Alegia, euskarri propioak saltzeko sortzen den taldeak bestelako produktuak asmatu eta merkatura ditzakeela, hauen irabaziekin jarduera osoaren autofinantziazio maila hobetuz.

Jarduera honen esparru nagusia eskualdea da, eta esparru hau modu intentsiboan jorratzen da. Bezeroak ezagunak dira, hauen kopurua mugatua delako. Eta euskarriak masiboak dira, nahiz ez diren beste batzuen maiztasunera iristen. *Goienan* batu diren hedabideen jardun komertziala eskualdeko handiena da zifratan, esparru jakin honetan liderrak gara.

Lantaldeari buruz, Arkorena zen garatuena, eta ondoren Berrigararena. Gainontzekoetan, ez zegoen lan komertziala soilik egiten zuen langilerik. Hedabideetatik zetozen lau komertzialei *Goienak* zuzendari komertziala gehitu die. Gainera, aurtengo Gestio Planean bosgarren komertziala hartzea onartua dago, eskualde osoa behar bezala lantzeko.

### **XX enpresaren erreferentzia**

XX enpresaren jardun komertzialak badu *Goienarenarekin* parekotasunik. Hura ere bategite baten ondorioz sortu zen, eta lehengoak gaitituko zituen antolaketa berria behar izan du. Esparru jakin bat jorratzen du nagusiki (...), nahiz eta kanpoan hedatzeko ahaleginean ari den. Bezeria mugatua eta ezaguna du, datu base batean jasota dagoena. Eta bere esparruan liderra da, (...) merkatuaren %53ko kuota du, bere leihakide guztiak batera baino gehiago da.

Bestalde, duela hamar bat urte hasita, bere izaera aldatu duen iraultza gauzatu du: plan komertzial bat. Epeka eta urratsez urrats egin da ezarpen hau, enpresaren antolaketa osoa eraldatu arte.

*Goienak bi helburu ditu aurtengo Gestio Planean: lehengo negozioarik ez galtzea, eta bezero edo negozio berriak aurkitzea.*

Bi arrazoi hauengatik, interesgarria da *Goienarentzat* XX enpresaren bilakaera hori eragin zuen tresnaren berri izatea, gauza batzuk daudenetan hartu edo baztertzeke, eta beste batzuk gure premietara egokitzeko.

(Aipatutako Plan Komertzialaren ezaugarriak xehetasun handiz azaltzen dira)

Prozesu honen xehetasun batzuk ez dira *Goienan* erabiltzekoak, baina urrats nagusiak lagungarri izan daitezke gure antolaketarako.

### **Goienako antolaketa komertzialerako irizpideak**

*Goienak* bi helburu ditu aurtengo Gestio Planean: lehengo negozioarik ez galtzea, eta bezero edo negozio berriak aurkitzea. Hemen aipatuko direnak lehenengo helburuarekin lotzen dira gehienbat, dagoeneko bezero direnekin. Bezero hauekin, oraingo aldaketa giroan negozioarik ez galtzea lortu behar da, eta gerora negozio hori handitzeko aukerak aztertu.

Esparru mugatua modu intentsiboan jorratzeko, irizpide hauek dira oinarri:

- Bezeroak mailakatu eta mailaren arabera arreta eskaintzea. Maila txikikoa den eta handikoa izango ez den bezeroak arreta administratiboa behar du, mekanismo bizkorra eta funtzionala. Arreta komertziala, denbora luzea eta prestaketa eskatzen duena, maila batetik gorako bezeroekin erabili.

- Bezeroa ezagutzea, lehenetsun. Zertan ari den, epe labur eta luzeko asmoak, zaletasunak, lehiakideekin zer egiten duen, besteengan zer miresten duen... Honek ezinbestean dakar harreman pertsonalizatua, hurbilekoa, gure aldetik pertsona bakarra katalogo osorako.

- Bezero pertsonalizatuaren ibilbide komertziala finkatu. Maila batetik gorako edo multzo jakin bateko bezeroentzat oinarritzko produktuen paketea zehaztu, nola banatu haien dirua gure produktuetan, haien satisfakzioa eta gure helburuak ondoen lortzeko.

- Bezero handien gestio komertzial integrala lortzen ahalegindu. Konfiantza sortzen den neurrian, gure euskarriak saltzeaz gain, beste batzuen bitartekari ere izan gaitezke, komeni bada. Bezero eksklusiboa beti da konpartitua baino leialagoa.

### **Bezeroei begira egin beharreko urratsak**

#### ***Datu basea osatu eta antolatu.***

- Herri guztietako orain arteko bezeroak bildu, dagoen informazio guztia jaso, homogeneizatu.

- Horretarako behar den azpiegitura informatikoa zehaztu, kargak egiteko beharko den laguntza.

#### ***Gestio pertsonalizatuko bezeroak bereiztu eta multzoak egin.***

- Muga non dagoen zehaztu, nondik gora gestio pertsonalizatua.
- Pertsonalizatuak ez direnentzat mekanismoak prestatu. Nork hartuko ditu eskelak edo iragarki txikiak? Nola egin erreziboen jarraipena?

- Pertsonalizatuaren multzoak zeren arabera? Ze eragin izango du geografiak? Adibidez, Debagoieneko auto saltzaile guztiak multzo baten sartzea, ona ala txarra? Hobe zonaka banatuta?

- Zenbat bezero multzo edo kartera bakoitzean? Kartera guztietan antzera?

*Goienaren arlo  
bakoitzak bere  
gestio taldea izango  
du, egunerokoari  
erantzun eta  
etorkizuna  
aurreikusteko.*

***Kartera bakoitza gestore bati atxiki.***

- Nork ezagutzen du ondoen kartera bakoitza?
- Zer alde on edo txar dute atxikimendu ezberdinek?
- Bezeroak mugitu behar badira, gestorearen arabera, hau da momentua.

***Egoera berria bezero pertsonalizatuei azaldu.***

- *Goiena* eta antolaketa berria zergatik sortu diren.
- Proposamen moduan aurkeztu, gestorea hautatzeko aukera utzi.

***Bezero bakoitzaren ibilbidea zirriborratzen hasi.***

- Zer konsumitzen duen eta zer falta duen.
- Hurrengo urterako erronkarik aurkeztu behar zaion.

**Talde barruan egin beharreko urratsak**

***Urteko plangintza zehatza prestatu, egutegia finkatu eta ardurak banatu.***

- Datu basea, karterak...
- Tarifa, katalogoa, dossierak, bideoa...
- Sasoiko produktuak: euskaltegien kanpaina, gidak, produktu berriak...
- Komunikazio plan orokorra, aurkezpenak...

***Politikak finkatu***

- Prezioak, beherapenak, pizgarriak...
- Paketeak, trukeak, leihaketak...
- Produktuen artean komeni zaizkigun desplazamenduak...

***Produktuen gestioan parte hartu***

*Goienaren arlo bakoitzak —telebistak, prentsak...— bere gestio taldea izango du, egunerokoari erantzun eta etorkizuna aurreikusteko. Produktuen aldaketak edo produktu berriak ere hor sortuko dira, eta gestio talde bakoitzean komertzial bat egotea ezinbestekoa da. Gestio talde batean dagoen komertzialak bere ikuspuntua emango du han, eta aldi berean lotu egingo du arlo hura talde komertzialarekin.*

***Bezero eta merkatu berriak aztertu***

Komertzial guztiek jarri behar dute negozio berriak igartzeko txipa, baina lan hau modu sistematikoan zuzendari komertzialak egingo du. Berak egingo du bezero eta merkatu berriak aurkitzeko ahalegina, eta berak erabakiko du bezero berri bat noiz dagoen kartera batean sartzeko moduan, bitartean bere bezeroa izango da.

***Barne antolaketa sendotu***

Kartera banaketa eta gestio taldeetako partaidetza finkatzen denean, komertzial bakoitzaren eginkizun nagusia horixe izango da. Talde osoak gutxienez asteen behingo bilera dinamika izango du, jarduera aztertu, eztaba idatu eta ajusteak egiteko. Zuzendariak lan komertziala ere egin dezan, ona litzateke taldeko komertzial batek haren ordezkotzako funtzio batzuk hartzea, une bakoitzean finkatuko direnak. Taldeburu honek lan horri dagokion ordain berezia izango zukeen, eta bere karteraren tamaina ere egokitu egingo litzateke denerako astia izan dezan.

*Goienaren talde  
komertziala Euskal  
Herrian euskaraz  
sortzeko bereziki  
prestatuta dagoen  
talderik indartsuena  
izango da.*

### **Agentzia planteamendua gorpuztu**

Goienaren talde komertzialak aurten bost komertzial, diseinatzaile bat eta zuzendaria izango ditu, zazpi pertsona egun osoz. Seguruenik, Euskal Herri osoan euskaraz sortzeko bereziki prestatuta dagoen talderik indartsuena izango da. Gidekin eta Udal euskaltegiekin gertatu dena ez da txiripaz gertatu. Honek eman ditzakeen aukerak aprobetxatzeko prest egon behar luke taldeak.

### **GOIENAKO SAIL KOMERTZIALAREN HELBURUAK**

- Orain arteko fakturazioa finkatu. Bateratzeak ez dezala diru galtzerik eragin.
- Hazkundera bezero berriengan oinarritu, eskualdekoak nahiz kanpokoak.
- Truke, lehiaketa eta pizgarri politikak finkatu.
- Datu base bateratua eta sare egokia antolatu.
- Promozio tesnak prestatu, Goiena ezagutarazteko.
- Publizitate agentzia antolatu, zerbitzurik zabalena eskaintzeko.

### Aurrera begira

Une honetan, eraberritua dago *Goiena*-ren talde komertziala. Bere estrategiaren funtsa aldatzeko norabidea finkatu du. Egoitza berrian kokatu da, gainontzeko zerbitzu zentralekin. Azpiegitura informatiko berriak prestatzen ari da. Eta pertsona berriak ere bildu dira taldera.

Aldaketa horiekin, betiko bezeroei zerbitzurik onena eskaintzeko prestatzen ari da. Bezero berriei, zerbitzurik osoena.

Publizitatea euskaraz sortzen espezializatutako agentzia dela erakusteko gertu. Diseinu zerbitzu puntakoa edonori eskaintzeko gai.

*Goiena* enpresa da eta dirua irabaztea du bigarren helburu, lehen helburua, gizartearen hezurmamitzea eta euskara indartzea, bultzatu ahal izateko. Euskara hutsez diharduelako, diru publikoaren laguntza du. Baina autofinantziazio ahalik eta altuenarekin, inorentzat zama ez izateko.

Autofinantziazio bila ari da sail komertziala.

# Zerbitzuak: gainerakoak

## Zentralizatzen

Aipatu da abiapuntuan gabezia edo hutsune asko zituela zerbitzuen arloak. Herrietan, baliabideak urri eta lehentasunak lehentasun, ez zegoen modu egokian garatua sail hau. Behin *Goienak* elkarteen hedabide guztien ekoizpena bere gain hartu duenean, zerbitzuen saila antolatzeari ekin dio eta bi arazo nagusi aurkitu ditu.

Lehena, han eta hemen baliabide gutxi egonik, gutxi asko bilduta ere ez dela nahikorik egin. Estutasunak izan ditu sail honek lehen urratsetan bere eginkizun guztiak aurrera ateratzeko. Gainera, behar besteko lantaldea gorpuzten ere eman behar izan ditu indarrak, eta horrek areagotu egin ditu larritasunak.

Bigarren arazoa, eredu egokitu beharra izan da. *Goienaren* jatorria sakabanatua da, hedabide bezainbat erabakigune egon da iraganean. Eta aurrerantzean ekoizpena bera nahiko deszentralizatua egongo da, telebista Arrasaten, prentsa Bergaran, eta erredakzioak ia herri guztietan. Honek aukera ematen zuen antolaketa eredu barreiatu samarra erabiltzeko, baina azkenean nahiago izan da eredu zentralizatua.

Alde batetik, baliabide gutxi dagoen tokian, horiek batzeak jardura indartu egiten du, eta ahalmena areagotu. Bestetik, erabakigune asko egon ondoren, bakoitza bere kabuz jarduteko ohiturak gelditzen dira jendearengan, eta horrek kontrola zaildu egiten du, gastuena edo erabakiena. Eta azkenik, enpresaren sorrera uneen komeni da eskumenak gehiegi ez sakabanatzea, ona da egiturak eta prozedurak zehatzak izatea, jakinak.

Horrela, Zerbitzuena *Goienan* makro-saila da, eta bere funtzioak zerrenda luzea osatzen dute: administrazioa, diru kontuak, pertsonala, erosketak, azpiegiturak, logistika... Bada, ordea, beste modu bat sail honen mugak zehazteko. *Goienaren* Zerbitzuen sailak beste sailek berariaz hartzen ez dituzten funtzio guztiak biltzen ditu. Definizio zehatz honek zalantzak argitzeko balio du, eta erantzukizunak banatzeko, ardurak zentralizatzeko, kontrola bermatzeko, eta abar.

## Eginkizunak

Kooperatibaren aurtengo Gestio Plana prestatzerakoan, zerbitzu sailaren eginkizunak zehazteko ahalegina egin zen. Kontuan izan behar da artean *Goiena* ez zegoela gaur bezain bateratua eta hedabide bakoitzaren entretelak ez zirela behar beste ezagutzen. Lehen kolpean egindako zerrenda luzea landuz eta bilduz, lau ataleko hau eman zen ontzat. Lau atal ditu zerrendak, baina atal bakoitzean egin beharreko lanak ondo mardulak dira.

### ***Pertsonala***

- Barne Araudia osatu.
- Kontratazio eta soldata politikak finkatu.
- Lanpostuen funtzioak eta organigrama zehaztu.
- Prestakuntza, bekadunak, praktiketakoak: irizpideak finkatu.
- Azpikontratazioen beharrak aztertu eta baldintzak zehaztu.

### ***Gestio ekonomioa & administrazioa***

- Kontabilitate bateratua antolatu.
- Fakturazio eta erosketa irizpideak finkatu.

- Aurrekontuak prestatu, gauzatu eta jarraitu.

- Altxortegia zaindu, liburuak bete eta diru laguntzak kudeatu.

- Sorrerako ondarea zehaztu, elkarteekin negoziatu eta egoki aseguratu.

- Eraikinen eta ekipoen mantenimendua gainbegiratu.

### **Enpresaren egitura eta antolaketa**

- Estatutu eta erregistro kontuak zaindu.

- Barne Araudia osatu, organoen funtzioak eta barne prozedurak zehaztu.

- Bazkide izateko prozedurak eta organigrama finkatu.

- *Goienak* elkarteei eta gainontzeko bazkideei eskaini beharreko zerbitzuak zehaztu.

### **Bestelako eginkizunak**

- Banaketa zerbitzua gainbegiratu.
- Abian diren ikerketak gainbegiratu.
- Prestakuntza bultzatu, planak zehaztu eta jarraitu.

- Azpiegituretako inbertsioak kudeatu.

Argi dago bere ohiko lanez gain, sail honek gaintzara berezia duela enpresaren egituratze aldia dela eta. Alde batetik, lan handia datorkio aginte-organismo eta egituren partetik, gerora nabarmen jaitsiko direnak. Prozedura gehienak lehen aldiz egiten direnez, horiek asmatzen eta prestatzen lan apartekoa dago, gero errepikatze hutsarekin egingo dena. Eta bestetik, enpresa jarduera bakarrean beste hainbat biltzeak, azpiegituretan, irizpideetan eta moldeetan bateratze lan handia eskatzen du, hau ere aldi bateko gaintzara izango dena.

Kargak eta gaintzarak gehiegizko zama izan ez daitezken, presazkoenak bereiztu dira eta horietara ari dira bideratzen indarrak.

### **Lehentasunak**

Lehentasunetan lehena, jarduera arruntari erantzutea da. Beste ezer baino lehen, langileei ordaindu egin behar zaie, eta hornitzaileei. Bezereen fakturak kobratu

egin behar dira eta laguntzaileengandik laguntzak jaso. Eta hori guztia ondo islatu behar da kontabilitatean, une oro jakiteko jardueraren emaitzen nondik norakoa. Hau ezinbesteko kontua da, informaziorik gabe ezin da enpresa kudeatu.

Bigarren lan garrantzizkoa, azpiegitura egokiak ezartzea da. Ekoizpena hainbat gune fisikotan dago kokatuta, eta gune horien arteko lotura bizkorra behar da elkarlanerako. Enpresa barruko sarea ezartzeko lehen urratsak egin dira, baina asko da oraindik baliabide informatiko egokiak izan arte ibili behar dena. Langile bakoitzak behar dituen tresnak izan ditzan, eta lanpostu guztiak behar bezala lotuta egon daitezen —elkarren artean eta zerbitzariekin—, helburu ekonomikoa da. Teknologiaz ondo hornitutako enpresak lan hobia egingo du, eta gehiago. Fakturazioaren hazkundera lortzeko, hauxe da biderik aproposena.

Lasaixeago egin daitekeen lana, neurri batean egin dagoena, irizpideen bateratzea da. *Goienaren* lantaldean zati bat jende berriz osatua dago, baina gehiengo lehengo hedabideetatik dator, eta multzo bakoitzak bere ibilbidea egin du. Kontratazio eta dirusari politika bakarra behar zen, eta finkatu da; egutegia eta oporrak adostu behar ziren, eta adostu dira. Lanpostu bakoitzaren funtzioak zehaztea baino lantaldearen organigrama osatuago dago, oraindik ikuturren bat edo beste behar duen arren. Fakturazioko irizpideak eta erosketetakoak, praktikan finkatu dira, baina komeni da hauei buruz hausnartzea.

Hiru lan hauen ondoan, enpresaren egituratzeari dagozkionak patxada gehiagorekin har daitezke. Ez handiegia, noski, kooperatibak bere bazkideekin eta administrazioekin dituen betebeharrak legeak araututakoak dira eta.

### **Deialdi publikoei buruz**

Administrazioen diru laguntzen deialdietara eskariak aurkeztea ere zerbitzuen sailari dagokio. Eta zenbait unetan, lan honek

sailaren baliabide guztiak eta gehiago eskatzen ditu. Ez da bakarrik urte batetik bestera errepikatzen den dokumentazioa urteoro aurkeztu behar dela, urte bakoitza lehena balitz bezala. Hori baino ulergaitzago da deialdi bereko atal ezberdinetan dokumentazio guztia aurkeztu beharra, batetik bestera komunak direnak kontuan izan gabe.

Beharrezkoa da diru laguntzen banaketan prozedura formalak zaintzea. Baina ona litzateke formalkeriak gainditzea, eta urteetako lankidetzak sortzen duen konfiantza gauzak errazteko baliatzea. Topaguneak iaz hasi zuen bidea, diru laguntzetarako hedabide guztien solaskidetza eta koordinazio lanak bere gain hartuz, egokia da eta bultzatu egin beharko litzateke.

Deialdi publikoek dakarten lana arintzeko egiten diren urratsak zinez eskertuko ditu *Goienaren* zerbitzu sailak.

### **Antolakuntza**

Hauxe da eginkizun bat, amaitzeko presarik ez badu ere, lehenbailehen hastea komeni dena. Behin eta berriz esan da *Goienako* lantaldea handik eta hemendik elkartutako pertsonekin osatu dela, gehienak herri hedabideetatik etorritakoak, eta gainontzekoak kanpotik hartutakoak.

Biltze hau, telebistakoa kenduta, berri samarra da eta oraingoz ez du beste ezertarako aukerarik eman. Telebistan bi multzo ziren elkartu beharrekoak, bat handia eta bestea txikia. Eta hilabete batzuen ondoren, lantalde bakarra sortu da, ondo antolatua.

Gainontzean, prentsan batez ere, jarduera asko daude elkarren ondoan baina nahastu gabe. Produktu eta lan berriak

abiatu diren arren, lehengo aldizkariak oraindik lehen bezala egiten dira eta, hortaz, lan molde zaharrak eta berriak batera erabiltzen dira.

Herri jakinduriak dio etxe zaharra berritzea baino errazago dela zaharra bota eta berria eraikitzea. Beste kontu bat da etxe zaharra ez botatzeko pisuzko arrazoiak egotea. *Goiena* bera, agian, antolatuago legoke hutsetik hasi izan balitz. Edo oraindik hutsean, nork daki.

Baina *Goienak* lehengoa eta berria biak gobernatu behar ditu une honetan, eta lehengo egoeratik aurrera egin duen arren, ez da oraindik iritsi egoera berria guztiz egituratzera. Antolaketari dagokionez, ibar zaharretik berrira doan zubian dago.

Eta hor du hurrengo hilabeteetako erronka handia. Azpiegiturak osatu eta baliabideak nahastu, tresna eta pertsona bakoitzari kokapenik aproposena aurkitu, lan sistema eragingarrienak ezarri, eta taldea motibatzea dira, laster esanda, egin beharreko urratsak. Orain arte baliabideak bildu badira, orain ekoizpenerako egitura optimizatzeko ordua da.

Ez da arraroa, enpresen lan prozeduratan hobekuntzak ezarri ondoren, emankortasuna %10 igotzea, adibidez. Are errazago litzateke helburu hori *Goiena* bezalako egitura bateratu berrian. Bada, *Goienaren* emankortasuna %10 igotzeak kooperatibaren sarreretan 24 milioi inguruko koska gehituko luke, hau da, diru laguntzarik handienen pareko kopurua. Dударik gabe, merezi du ahaleginak.

# Plan estrategikoa eta etorkizuna

## Martxoaren 31koa

Egun horretan, duela aste gutxi, *Goienak* bere lehen Batzar Orokor arrunta egin zuen, justu Eratze Batzarra egin zenetik urtebetera. Eta aukera baliatu nahi izan zuen ibilbidean mugarria ezartzeko, egun berean aurkezpen publikoa eta lagunen bilkura eginez. Orduan aipatu zen, *Goienaren* ordezkarien aldetik, ekitaldi harekin kooperatibaren aldi bat amaitzen zela, sortze, batze eta abiatze aldia. Eta beste sasoi bat hasten zela, finkatze, sustatze eta garatzekoa.

Orain arte egindako bideak, etxearen zimenduak jartzeko balio izan du. Zimendu sendoak, bide batez esanda. Elkarte sortaileen artean, elkarrenganako konfiantza handia sortu da, adostasun trinkoan oinarritzen dena. Lantalde zaildua eta profesionala bildu da, adinez heldua, ofizioz jantzia eta gogoz prestua. Erakundeekin — udal, Gipuzkoako Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzarekin — gutxienez lankidetzarako oinarriak jarri dira, kasu batzuetan lankidetza bera finkatu ere bai. Beste laguntzaile balizkoekin harremanak hasi dira, eta interes handia somatzen da lankidetzarako. Eta kaleratu diren produktu berriek arrakasta izan dute, *Goienaren* ospe eta izen onaren mesedetan.

Orain, zimendu horien gainean etxea eraiki behar da. Eta oraindik ez dago planorik. Borda bildua izan daiteke, edo baserri galanta. Zer nahi duen ondo daki *Goienak*. Zer ahal izango duen hausnartzen ari da. Ondoren etorriko dira etxearen planoak. Aurtengo urtean egin behar da kooperatibaren Plan Estrategikoa.

## Plan Estrategikoa

Egitasmo baino gehiago da, dagoneko, *Goiena*. Ez da, ordea, errealitate erabatekoa izatera iristen. Egina duena beste du oraindik egiteko.

Telebista da arlorik garatuena. Hala ere, eskualde osora hedatzea, teknologia birmoldaketa burutzea eta gizarte eragileekin elkarlana finkatzea ditu oraindik eginkizun.

Prentsan urratsak egin eta berriak prestatzen ari dira. Lau edizioko *Goienkaria* badator, eta aldaketak eragingo ditu. Askoz handiagoak dira, ordea, egunkariak eragingo lituzkeenak. Ikerketak aurtengo amaituko dira, eta erabakia hartzerik izango da.

Irrati bat du *Goienak*, herrikoa, eta eskualderako egitasmoa. Hau garatzeko borondatea neurtu behar da, eta epeak zehazten hasi. Urte pare baten bueltan *Goienak* bederatzi irrati izango balitu, baten ordez, ez litzateke *Goiena* bera izango.

Eta Internet? Hemen ere bada egitasmorik, baina begirada arrunta iristen den punturaino soilik. Haratago, itsaso zabala dago. Zaila da igartzea zer datorren hurrengo. Epe laburrak erabili behar.

Eginkizun dituen lan hauek guztiak zehaztuko lituzke kooperatibaren Plan Estrategikoak. Aurtengo urtea amaitu orduko finkatuko da plana, urtean zehar argituko diren puntu guztiak kontuan hartuta. Eta hiru urteko epea hartuko luke, tresna eragingarria izateko nahikoa da, eta luzeago jotzea hodeietan ibiltzea izan daiteke.

2002-2005 Plan Estrategikoa zehatza izango da. Arlo bakoitzeko azken helburua eta tarteko urratsak finkatu behar ditu, eta

bilakaeraren egutegia. Horren parean, baliabideak nola egokituko diren zehaztu behar du, lantaldean izan beharreko aldaketak eta kontratazio berriak, eta tresnerian egin beharreko inbertsioak. Eta, noski, horren guztiaren diru aurreikuspenak, gastuen eta sarreraren bilakaera nolakoa izango den ere zehatz azaldu beharko du.

Tresna garrantzizkoa izango da Plana. *Goiena* nolako etxea izango den adieraziko du. Lanak hasi eta gero aldaketak etor daitezke, nola ez. Baina planoen ezaugarri nagusiak finkatuta egongo dira. Eta hau lagungarri da.

Plana adostu eta gero, kooperatibaren partaide bakoitzak argi izango du zein den bere ekarpena, eta zertara bideratuko den. Eta zalantzak argituta, bere ekarpena ahalik eta ondoen egiten saiatu ahal izango da, beste kezkarik barik.

### **Etorkizunean, kohesioa eta konexioa**

Etorkizunera begira jarri den edonork ondo jabetu da konexioen garrantziaz. Lotura ugari sortu da dagoeneko mundu zabalean, pertsonen, enpresen, erakundeen eta mota guztietako gizarte ekimenen artean. Eta loturak areagotzen ari dira, gero eta errazago bihurtzen. Nahikoa da sarearekin lotzea, aukera kontaezinak eskura izateko. Mundua zure eskura.

Are gehiago, konexioarena ez da bakarrik aukera kontua, nahi duenak erabili eta besteek uzteko moduko tresna. Nahiko hedatua dago lotura horien derrigortasuna, horiek gabe ezingo dela aurrera egin, tren hori ezinbestean hartu behar dela. “Konekta zaitez” esan da mila modutan azken boladan, eta konektatzeko laguntza ugari eskaini ere, eskaini dira.

Konexioak, ordea, kohesioa behar du parean. Pertsonen interesak zirkuluetan daude mailakatuta. Lehen zirkuluan, hurbilenekoan, kokatzen dira interes handienak: senideak, lagunak, auzoak. Bigarrenetan, herria, lantegia, ohiko

ekosistema. Hirugarrenean, eskualdea, ekosistema berria, indartzen ari dena. Laugarrenean, lurraldea, gero nazioa, eta komunitate zabalagoak.

Lehen bi edo hiru zirkuluetan, hurbilekoetan, igaroten dugu denbora gehien eta horiei gaude atxiki. Oro har, hurbilekoak egiten gaitu nor, eta hurbilekoekin dugun nortasunak kokatzen gaitu mundu zabalean.

Konekta gaitzen aholkatzen diguten konexio hori banakakoa da. Eta konexioak irekitzen digun munduan gure ingurutik kanpoko eragileak dira nagusi, eduki gutxi dago gutaz, gutxiago dira guk sortuak eta are gutxiago gure hizkuntzan emanak. Sare horri besterik gabe konektatzeak sekulako iraultza eragin lezake gure interesen mailakatzean. Eta hurbiltasunaren gainean eraikita dauzkagun komunitateak, kultura egiturak, sozialak edo politikoak, kolokan egon daitezke urte batzuen buruan.

Kohesioa landu behar da konexioa beste. Hurbilekoa indartu, ekosistema babestu eta nor egiten gaituzten komunitateak sareratu, sarean ere komunitate izan daitezen. Orain arte komunitate izan dena ez bada sarean ere komunitate bihurtzen, nekez iraungo dute mundu berrian haren hizkuntzak, kulturak eta gainontzeko komunitate ezaugarriak.

Horretarako sortu da *Goiena*, eta horretan dihardu buru-belarri.

### **Mikel Irizar**

*Debagoienetan, 2001eko apirilean*